

ttipi-ttapa



URDAZUBI-IRURITA BESTAK / 31



MALERREKAKO EGUNA DONAMARIAN

Malerrekako Egunaren lekukoak herriz herri bere bidea egiten segitzen du. Aldi honetan, Donamarian ospatuko dute: maiatzaren 28an. Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte. / 28

IZASKUN ZUBIALDE

Helduentzako eskola bidean

Eskualdeko hainbat eragilek helduak Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan eskolatzeko proiektua abiatu dute. / 10


SINADURAK

JON
ABRIL
OLAETXEA / 3

AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

ANE
INTXAUSTI
LASARTE / 4

JOSEBA
URROTZ
TELLETXEA / 4



Haritz Azpiroz
leitzarra First Lego
Leaguen munduko
txapeldun / 8



Ekainaren 5ean
Leitzan eginen duten
EH Mendi Erronkaz
Iraitz Uriarterekin / 46



Ernesto Prat
Lekarozko alkatea
herriko hainbat
kontuz solasean / 52



ZOZKETA / 68

donbosco
Lanbide Heziketa

IKASKETA ESKAINTZA ETA ZERBITZUAK
Metodologia ETHAZI (Etekin handikoa) | Lan praktika atzerrian. ERASMUS
Lan sartzeak. LEHEN AUKERA | LH DUALA txandakako Erregimenean
ESKAINTZA PARTZIALA | Heziketa Zikloak ELEANTZA modalitatean

CIFP DON BOSCO LH II
S. Marcos Errep. z/g Apdo. 101 - 20100 ERRENTERIA
T. 943 51 04 50 • F. 943 52 92 20
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

AURREMATRIKULA:
maiatzaren 9tik 27ra

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

AUTOMOZIOA

- Bilgailu automobilen elektromeikanika. LOE zikloa (A eta D)
- Karrozeria. LOE zikloa (A eta D)

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Soldadura eta galdaragintza. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA

- Telekomunikazioen instalazioak. LOE zikloa (A eta D)

INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Bero ekizpenen instalakuntzak. LOE (A eta D)
- Klimatizazio eta hotz instalakuntzak. LOE (A eta D)

KIMIKA

- Kimikagintza. LOE zikloa (A eta D). TOLOSako egoitzan

Lortu
bi (bi) zikloak
3 urtean!!!

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA

AUTOMOZIOA

- Automozioa. LOE zikloa (A eta D)

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Metal eraikuntzak. LOE zikloa (A eta D)

INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua. LOE (A eta D)
- Mekatronika industriala. LOE zikloa (A eta D)

ELEKTRONIKA

- Elektronika mantentze-lanak. LOE zikloa (A eta D)

KIMIKA

- Farmazia produktuen, bioteknologiaren eta antzekoen fabrikazioa. (LOE, A eta D)
- Analisiko eta kalitate kontrolerako laborategia. LOE zikloa (A eta D)
- Kimika industriala. LOE zikloa (A eta D). TOLOSako egoitzan

ELIKAGAIEN INDUSTRIA

- Prozesua eta kalitatea elikagaien industrian.

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

- Mugikortasun seguru eta jasangarriko prestakuntzako goi-mailako teknikaria.

LANERAKO HEZIKETA

- Lanbide Kualifikazioen Katalogo-ikastaroak
- Eskaintza-ikastaroak • Eskara-menpeko ikastaroak • Lanerako heziketa ikastaroak
- Heziketa-beharren diagnosis (HBDak) • Lanbide heziketa DUAL ALTERNANTZIAN • Lehen Aukera



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Zubiak

Oieregiko Erreparatzeko zubi nornahik gurutzatzen ahal du. Baita Sunbillako Zubi Zaharra, edota Berako San Migel ere. Bidasoa gurutzatzeko bidea libre da hiruretan. Argazkietarako modukoak: ederrak, politak, historia handikoak, libreak.

Bidasoan beheiti, ordea, porlanarekin batera, zubien alde itsusiak ageri dira. Bidaso bera gurutzatuagatik ere, bideak ez dira hain libre. Polizia-kontroletatik harago, traba guti azal zurikoontzat. Azalaren kolorea da pasaporte berria. Zuriek libre. Beltzaran eta beltzak kieto. Itxi-ta Senegal, Kongo, Eritrea, Siria edo Afganistangoentzat. Libre europarrentzat, baita Ukrainako errefuxiatuentzat ere. Hipokrisia galanta eraiki dugu zubien bueltan.

Mendetan izan da Bidasoa migrazioen lekuko. Betidanik. Egun, aldiz, bertako biztanleek ez dugu zubi handirik eraiki nahi gure artean bizitzera etorri direnekin, pasoa direnekin. Gure artean ez baleude bezala jotzen dugu. Elkartasun guti eta zubirik batere ez. Argazkietan zubiak dotore aterako dira, baina gure irudia, berriz, ez hain polit.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Mortadelo eta Filemon Pegasoan

Mortadelo eta Filemonen (berriz ere joan den mendeko kontuekin natorrela erranen dute seme-alabek) istorio irriemangarria irudituko luke, aski larria ez balitz. Katalan eta euskal abertzaleei Pegasoan egindako espioitza-lanak «justifikatzeko» beraiek ere espiauak izan direla «salatu» dute Sanchez superintendenteak eta Ofelia idazkariak. *En fin!*

NABARMENTZEKOAK



**EKHIÑE
ZAPIAIN**
BERTSOLARIA



**PASKUAL
REKALDE**
HIZKUNTZALARIA

Bertsotan ederki aritzen dela erakutsi du berriz ere Ekhiñe Zapiain bertsolari beratarrak. Senperen jokotutako Hernandorena gazte sariketa irabazi zuen maiatzaren 7an.

2020an izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain oso Paskual Rekalde Irigoen hizkuntzalari amaiurtarra. Bere sorterrian emanen du akademiako sarrera hitzaldia maiatzaren 21ean.

GIBELERA BEGIRA



2012-05-17 · TTPI-TTAPA · 566 zk.

Pottoka & Eskortz taldearekin solasean

Pantxo Etxebere *Pottoka* eta Mikel Mujika *Eskortz* musikari amaiurtarrek 2012an sortu zuten Pottoka & Skortz taldea, eta baita diskoa argitaratu ere. Bi musikariek kontatu zuten, «nahiko kanta lasaiak sortu zituzten, soinu garbikoak eta folk estilo aldera jotzen dutenak». Bortz kanta bildu zituzten diskoan, kanta bakoitza gai zehatz batekin lotua, eta gainera, Beñardo Goietxe musikari beratarrak eta Andoni Tolosa *Morau* musikari hernaniarraren laguntza ere izan zuten. «Gutierrez ongi pasatu nahi dugu, eta jendeak ere ongi pasatzen badu, ezin dugu gehiago eskatu. Jendeak zure musikarekin disfrutatzen duela ikustea sentsazio polita da», kontatu zuten.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbizuen Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 42
Leitza 33
Hego Euskal Herria 50
Ipar Euskal Herria, Europa 98
Amerika eta Australia 147



KOLABORAZIOAK

ANE INTXAUSTI LASARTE

Hartu gabeko kafeak

Galdu duzu jada zor dituzun kafeen kontua. Baiezkoa eman eta inoiz hartu gabekoena. Hozten utzitako guztiena. *Hozten utzitako harreman guztiena*. Urteen joanak garestitu egin baitu kafea. Garestitu ditu harremanak.

Hasiera batean «harremanen zirkulua» zenak kono itxura hartu du orain, eta konoaren pareten moduan estutu zara zu ere. Zorroztu, zu ere. Selektibitatea egin zenuenetik gero eta selektiboagoa zara, eta autolaguntza liburuek ezezkoa esaten irakatsi zizuten. Baita ikasi ere. Lehen baiezkoa ematen zenuen pentsatu gabe, eta orain pentsatu egin behar duzu baiezkoa eman aurretik.

Errutina hitzari ere zorroztu egin zaizkio ertzak, eta gero eta karratuago sentitzen duzu orain. Karratutasun hori klaustrofobiko bihurtzeraino. Harrapatuta zaude. Ikasketak, lana, etxea. Egin beharreko bost otordu eta edan beharreko bi litro ur. Kirola, egunero. Gutxienez ordubetez. Eta hori dena egiten ez baduzu, zure osasuna inporta ez zaizun seinale. Axolagabe hori. Bio, eco, fit, light. Zero.

Debekatuta dago deskantsatzea, denbora hori produzitzen pasako ez duzun denbora bihurtuko delako. Ez okurritu ere, hortaz, gelditzerik. Eguna hasten denetik bukatzen den arte produzitzea behar duelako izan zure helburu nagusia. Berdin

«EGUNERO HARTZEN DUZU KAFEA. DENBORA DA HARTZEN EZ DUZUNA»

du zer, baina produzitzea. Produktiboa izatea. Zertan, baina? Berdin du. Baina produzitu. Segi. Benga. Aste osoa pasatzen duzu asteburua noiz iritsiko zain. Ikasten, asteburua noiz iritsiko zain. Lanean, asteburua noiz iritsiko zain. Asteburua, zortea

duzunean. Eta egun librea prekarietateak bere egin zaituenean. Zain. Beti zain. Halako batean, hainbesteren ondoren, iristen da eguna eta, azkenean... ez. Azkenean ez duzu ezer egiten. Nekatuegia zaudelako. Eta aste osoan izanen duzun egun libre bakarria deskantsatzen pasa beharko duzu ondoren etorriko diren beste sei egunetan ahalik eta gehien, ahalik eta hobekien eta ahalik eta efizienteen produzitu ahal izateko.

Eta orduan, soilik orduan, etortzen zaizkizu burura hartu gabe utzitako kafe guztiak. Baiezkoa eman eta inoiz iritsi ez zirenak. Zorpean utzitako guztiak. Hozten utzitakoak. Harremanak. Zure errutinaren karratutasunetik kanpo geratu ziren harreman guztiak. Edo hala utzi zenituenak. Erabakita, edo ez. Ikasten, lanean, etxean. Eguneroko frenetiko horren bueltan ikusten ez dituzunak, edota tokirik ez dutenak. Falta dituzunak. Eta ezezkoak.

Topo egin zenuten azken aldian kafe bat hartzeko geldituko zinetela esan zenioten elkarri. Hori izan zen hitz egin zenuten azkeneko aldia. Nahiz batzuetan gogoratzen duzun arnasa dela bera, ahaztu egiten zaizu bestetan. Arnasestukia bizi zarelako.

Kafea, izatez, egunero hartzen duzulako. Bat, bi... batzuetan hiru. Denbora da hartzen ez duzuna. Kafe hori konpartitzeko. Arnasa hartzeko. Bizitzeko.

...

Kafe bat?



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Izurritea omen gara

Gogoan dut amatxi zirikatzeke, nola erraten genuen «Biba Rusia!», hori aditzean aztoratu eta haserretzen baitzen, sekulako biraoa erran bagenu bezala. Beretako komunistak eta masoiak gaiztoak ziren. Nik uste nuen gazteagoa izateagatik gehiago nekiela, eta bera ipuinekin engainatu egin zutela.

Komunismoa zer den gehienok ez dakigu, gero eta gehiagok ona dela uste badute ere. Komunismoa oinarrian kolektibismoa da, alegia, estatuak ekonomia nola izan behar duen, eta ondasunak nola banatu erabakitzen du. Gaztaroan, hainbatek injustiziatzat hartzen dugu batzuek ondasun aunitz izatea, eta bertzeek gutti. Hortaz, zuzen ikusten dugu ondasunak banatzea. Baina nondik ateratzen dira ondasun horiek? Lanaren ondorioz zerbait lortu duenak lana egin ez duenari ematea. Tranpa eginez ere lor daitezke ondasunak, eta maiz instituzioak erosiz egiten dira tranparik haundienak. Alegia, gizakiaren zintzotasun falta da arazoa.

Azken boladan ikusten ditut inguruan hainbat kartel eta pinta-da, krisi garaian komunismoa beharrezkoa dela diotenak; orain dela gutti, adineko emakume batek Ukrainiako aferaz «arauak denontzat dira» erran zidan. Alegia, ezin gara bakoitza gure alde-tik ibili, taldea norbanakoaren gainetik da, kolektibismoa modan da. Bertze emakume gazteago batek, gizakia izurritea dela erran

«EZ DUT USTE KONPONBIDEA KOMUNISMOA DENIK...»

zidan, gehiegi garela munduan, neronek ere aspaldi erran izan dut horixe bera. Galdetu nion ea zergatik ez zuen bere buruaz bertze egiten, gehiegi bagara. Berak erantzun, berak gizarte-ari ekarpena egiten diola. Uste dut ez dela ohartzen zer ari den erraten: Nork erabakiko du nor

den beharrezkoa eta nor ez gizartean? Arrazoi horretatik Hitlerren politikara pauso erdi bat ere ez dago. Nola daiteke denon ongizatea defenditzea eta aldi berean batzuk soberan direla erratea?

Nazismoa nazionalsozialismoa zen, kolektibismoa, denak berdina eta talde izan behar zuten, aita estatuaren menean, denen onerako noski, eta gobernua erabakiko zuen nor zen beharrezkoa edo ez. Berdintasuna, ekologia, elkartasuna aldarrikatzea modan da, eliteek ere sinetsarazi digute horren alde direla, eta horretarako mundu mailako kolektibismoa behar dela, mundu mailako «gobernantza». Estatu sozialismoa indartzen ari da, korporazio erraldoiek, estatuen laguntzarekin, gure lanaren erdia bereganatzen dute gero haiek nahi dutena egiteko. Eta gu artalde zintzoa, oinarritzko errentaren esperoan, hori bai, haundi samarra, eta batzuk soberan daudela onartzen duena.

Ez dut uste konponbidea komunismoa denik, bakoitzaren askatasuna baizik. Geurea dena defenditzea, gure lanaren fruitua eskuratzea, eta ez uztea inoren eskuetan gure bizia eta ekonomia. Horrek ardura eskatzen du, burujabetza (hori zaila da), eta ondorioz elkar errespetatu eta lagun dezakegu. Bide errazena nagusiak agintzen duena egitea da, baina ez gara azienak, gizakiak baizik.

Amatxik susmo txarra hartzen zien komunismo eta masoneria-ri. Uste nuen bera ezjakina zela, eta engainatu zutela. Orain uste dut ni nintzela orduan engainatua, eta berak bai bazekiela zerbait.

11 GALDERA LABUR

BEÑAT ALBISU ETXEBERRIA BEINTZA-LABAIENGO GAZTEA

«Lasterka egitea deskonektatzeko momentua da»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Kirola gustatzen zaidan 16 urteko beintza-labaiendarra naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendia eta kirola gustatzen zaizkit, eta mendi lasterketekin biak uztartzen ditut.

Zer ikasten duzu?

Lekarozen Osasun Zientzietako Batxilergoko lehenbiziko maila egiten ari naiz.

Noiz hasi zinen mendi lasterketekin?

Duela sei urte, futbolearen hasi behar nintzenean, neure kabuz lasterka egitera joaten nintzen tarteka. Futbolearen hiru urte eman nituen, baina mendira lasterka egitera gero eta gehiago eta gustorago joaten nintzen. Duela hiru urte futbola utzi eta Manttalen taldean en-

trenatzen hasi nintzen, aurtengo laugarren urtea dut.

Zer da zuretzat lasterka egitea?

Agian ulertzeko zaila da, baina niretzat gozatzeko, sufritzeko, hobetzeko, deskonektatzeko eta neure buruarekin egoteko momentua da.

Zenbatero entrenatzen zara?

Astearen sei egunetan; batzuetan 45 minutuz, bertzeetan bi orduz.

Lasterketa askotan parte hartu duzu?

Ez, adinak berriki arte mugatu nau. Gainera, pandemia egoerak lasterketa asko bertan behera uztea behartu du.

Gazte Trail lasterketa irabazi duzu berriki. Zein da sekretua?

Ez dago sekreturik, entrenamenduak behar bezala prestatu eta egin behar dira. Hala



ere, errendimendua hobetzeko, badaude entrenamendutik aparte atzentzen diren arloak: atsedaldiak, elikadura, emozioen kudeaketa... hauek zaintzea garrantzitsua dela uste dut.

Beste garaipenik izan duzu?

Nire adinekoen kategorietan bai, baina absolutuetan ez.

Nola ikusten duzu lasterkarien maila gure eskualdean?

Inguruan, zorionez, lastekari eta kirolari asko daude, eta badaude maila onekoak. Gai-

nera gero eta jende gehiago gara, eta hori da garrantzitsua.

Zure asmoak epe motzera?

Nafarroako jubenilen mendi lasterketa txapelketa irabaztea eta Espainiako txapelketa batean parte hartzea.

Eta epe luzera?

Atzera begiratzean egindakoarekin harro sentitzea eta ahal bada, lesiorik gabe. Bertalde, Golden Trail World Series-eko final batean egotea ametsa izanzen litzateke.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Pello Apezetxea Zubiri euskaltzalea**PATRI ARBURUA ETXEBERRIA** IGANTZI

Hilabete luze pasatu da Pello Apezetxea Zubiri zendu zenetik. Haren heriotzaren berri ematerakoan batez ere idazle, etnologo, ikerlari edota ohorezko euskaltzain gisa egin zuen bidea aipatu izan dira, eta merezimendu osoz gainera.

Harekin euskalgintzan aritu ginenok, ordea, bertze alderdi garrantzitsu bat nabarmendu nahi genuke: Pello euskaltzalearena.

Bortzirietan 80ko hamarkadan loratu zen herri mugimendu bizi eta dinamiko hartan funtsezko kide izan zen.

Mugimendu haren eginahalei zor diegu TTPI- TTAPA aldizkariaren, Bortzirietako euskaltegiaren eta kultur ekimen gogoangarri zenbaiten sorrera.

Horrez gain, Pellori eta talde hartako kideei zor zaie Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorrera bera ere. Gaur egun hainbertze aldarrikatzen den instituzioen eta herri mugimenduen arteko elkarlana hasieratik argi ikusi zuen euskaltzale kuadrilla hark. Eta azken hogeita hamar urteotan Bortzirietako herri bakoitzean hortxe aritu dira euskara batzordeak, elkarlanean paratuz udalak, herri mugimenduak eta herriar euskaltzaleak. Pello hor izan zen beti, sorreran ez ezik, ibilbide osoan ere, Etxalarko Euskara Batzordean nahiz Aholkularitza Batzordean.

Euskaltzale sutsu izan zen. Literalki uler dadila gainera, sutu egiten baitzen, ukabilak estu, begiak kartsu eta odola bor-bor, euskararentzat hartzen ziren neurriak edota jartzen ziren baliabideak eta sosak behar bezainbertzeak ez zirenean. Horixe izan liteke utzi zigun leziorik garrantzitsuena: inoiz ez dira aski euskararen garapenerako jartzen diren bitartekoak. Ez ditugu ahazteko Erretorenean ordu txikiak arte luzatzen ziren bilera haiek. Taldetxo hori egiazko eskola izan da guretzat; euskalgintzari, herri-gintzari eta lehentasunei buruzko eskola.

Iazko udaberritik Bortzirietako euskalgintzan gogoeta betean aritu gara.

Azken hiru hamarkadotako formula agortutzat jo eta bide berri bati ekin diogu. Denbora horretan Pello itzaltzen joan zaigu. Gogoeta prozesuaren berri izan bazuen ere, ez zuen aukerarik izan eskualdeko Bor-bor euskaltzaleen mugimendu berriaren sorrera eta aurkezpena ikusteko.

Maiz aditu genion Pellori izena duenak izana baduela dioen errana. Hortaz, segi dezala odolak Bor-bor..

Langileon eskubideen aldeko borroka**ITZIAR DANBORIENA JAIMERENA**BORTZIRIETAKO, BAZTANGO ETA LEITZAKO HAUR
ESKOLETAKO HEZITZAILA TALDEAREN IZENEAN

Eskubidez jositako borrokaren eguna dugu gaurkoan, nola ez, denon arteko batasunaren aldarrikapenak gogor oihukatzeko beharraren sentsazioa plazaratuz, hala nola, bakoitzak bizi dituen emozio nahasien indarra batuz, eta horrexetarako bildu gara zonaldeko haur eskoletako langileria guztiak, Bera, Leitza, Lesaka eta Baztan haur eskola-koak, denon arteko osotasun bat osatuz, borroka honi ausardiarekin eutsiz!

Dakizuenetz, gaur egun haur eskoletan bizitzen ari garen egoera ez da batere xamurra, ez baitiete kasu zipitzik ere egiten gure aldarrikapenei. Horrexegatik biharko eguna kontutan hartuta, Nafarroako haur eskolak greba mugagabera goaz, behar diren erantzukizunei hordagoa botaz. Puntu honetara aitzinetik izan diren egoera penagarriek bideratu gaituzte, batez ere Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak eta hainbat alderdi politikoren eta Txibiteren iruzur taldearen balio falta maila itsusiak. Barnekotasunetik ateratako haserre eta frustrazio maila haundiek inoiz baino elkartuago sentiarazi gaituzte hau aitzinerat eramateko, hau baita denon eskubideen alde egitea eta denok bat izatea; udalak, familiak, langileak, gizarteak eta nola ez gure altxorrik preziatuenak, hain zuzen gure tikiak, kontutan hartuz.

Lotsamangarria da, une honetara ailegatzeak zer nolako barne tristura sortzen digun... Adostasun batera ez ailegatzeak, eskola guzietan berdintasun zehatzik ez izateak, lan baldintza kaotikoak sorrarazi dizkigute, hala nola, zerbitzu minimoetarako mehatxuak eginez. Ez al gara ba denak haur eskolak? Komenigarritzat jotzen dutenean, Nafarroako haur eskolak idealak gara, behin eta berriz erakusleihatuz hartuz. Baina errealitate gordina plazaratzen diegunean, gibeletik jorratutako mehatxu zikinak indartu egiten dituzte, jauntxo aberasgarriak izanez.

Gobernukoak izateagatik ez pentsa beraien harrotasunak tiki sentiarazten gaituenik; errealki sentitu eta bizitzen dugun emakumeen zaintza taldea gara, haurtzaroa osotasunean hartzen dugun bidelagunak, sentsibilitatearen berotasuna haur eskoletan hurbiletik bizi dugunak. Ba al dakite beraiek benetako sentsibilitatea zer den? Edo beraien hiztegi azpijoko zikinen hitzak familiarragoak egiten al zaizkie, hala nola, ez baloratzea eta etiketak jartzea? Zer uste dute hierarkia maila altuan egoteagatik pertsona hobeagoak direla? Usteak erdi ustel, frustrazio, haserre eta inpotentzia maila altu honek garbi adierazi digu gizarte honetan berekoitasunetik bakarrik begiratzen dela, beraien txotxongiloak bagina bezala sentiaraziz. Baina ez! Ez gaude prest hori onartzeko, beraien izatearekin eta ustelkeriarekin ez baitugu bat egiten.

Ez dugu ulertzen zergatik ez diote gure aldarrikapenei erantzunik eman nahi, edo negoziazio mahai bat sortu nahi, bertan planteatzen diren eskubideei erantzuna emanez. Non dago benetako enpatia, errespetua edo ulergarritasun maila? Uste dugu eskatzen duguna beharrezkoa dela, hau da, 0-3 zikloa duintzea ziklo honen kalitatea, unibertsaltasuna, doakotasuna eta lan baldintzen hobekuntza bermatzeko, hala nola, ratioak jautsiz edo langileria bikoiztuz eta finantzaketa moduluak igoz.

Haurtzaroa, errealki kontutan hartu beharreko erdigune pribilegiatua dugu

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

BOTA BERTSOA



**JOSU
SANJURJO ALTZURI**
LESAKAKO BERTSOLARIA

Asteburuko abenturak eta kalenturak

Doinua: Haizea
dator ifarraldetik

*Astea lana egiteko da
beraz gorputza xuabe
behin ortzirala iritsi eta
txoritxo libreen pare.
Nola taberna bilakatu den
egungo harreman sare
sistema honen errutinari
aurre egiteko klabe.
Azken bi urte hauen ostean
urak ez dabilta bare
urteko ardo, kaña kubata
edo txupito JB.
Gogo pilatu asko dauzkagu
barruan baina hala re
Asteburu bat ezin pasatu
aparretan ito gabe.*

*Udaberrian eguzkia da
festaren kide fidela
edalonztian sartu limoia
eta ondoren bi gela.
Ibai ondoan terraza hartu
pentsa nolako nibela
sozializatu nahi duenaren
bizio ta plan itzela.
Bost egunetan landu ondoren
mailua eta zintzela
bi egunetan utzi ohi dugu
dirua eta gibela.
Baina umorez aitortuko dut
agian nabari dela
bi bertso hauek astelehen goizez
egindakoak direla.*

gure haur eskoletan, behar zaion zaintza, kalitatea eta ongizatea eskainiz. Haurra baita bere izateak bereizten duen altxorra. Izate honek elkartasuna, sentsibiltatea eta barkatzeko gaitasuna ematen dizkigu; keinu ttiki batekin hunkituz, ttikitasunaren handitasuna ulertuz, hurbiltasunez zainduz... horixe baita izatea eta haztearen arteko loturaren maitasuna.

Denen belarrietara ailegatu dadila egoera penagarri hau! Haurtzaroari eta bertako langileei behar duten balioa, duintasuna eta errespetua eman. Hori baita benetako haurtzaroaren oinarritzko altxorra, hasitako heziketa prozesu horren bizia...

Haur eskolen elkartasunagatik, duintasunez zaindu dezagun.

Denon artean lortuko dugu.

Duintasunaren alde borrokan

**NAHIA SENPER MAZIZOR ETA AITZIBER ITURRIA
GARMENDIA**

BERAKO MUKIXU HAUR ESKOLAKO
GURASO TALDE BATEN IZENEAN

Idatzi honen bidez, Nafarroako eta bereziki Berako Mukixu Haur Eskolaren errealitatea eta Gobernuaren jarrera salatu nahi dugu. Nafarroako Haur Eskolen parte garen guztiok, gurasoak, umeak eta langileak jasaten ditugu egoera honen ondorio negatiboak. Horregatik:

Elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu Haur Eskoletako langileei, euren greba eskubidea onartuz eta aldarrikatuz.

Langileen baldintzak hobetuz, gure seme-alaben ongizatea bermatua dagoela aski garbi dugu.

Kalitatezko hezkuntza (Gimeno jaunari hainbertze gustatzen zaion kontzeptua) nahi badugu, langileen ongizateak politikaren helburu nagusietako bat izan beharko luke.

Anitzetan langileen esfortzu pertsonalak, orain arte gertatu den bezala, hezkuntza politikaren hutsuneak bete-

tzen dituela badakigu eta egoera aldatzeko momentua ailegatu dela uste dugu.

Ratioen jaitsiera gure seme-alaben heziketa duin baterako oinarritzko aldarrikapena da.

Tamalez, grebara jo behar izan dute oinarritzko eskakizunak adituak izateko.

Arerioak baino Nafarroako Gobernuak ulertu behar du langileak eta pertsonak direla eta beraien eskakizunak oinarritzkoak eta bidezkoak direla.

Soberan dakigu, elkarriketa beharrezkoa dela irtenbidea lortzeko.

Umeek ere blokeo egoera hau pairatzen dute.

Nafarroako Gobernuari, guraso bezala, aldarrikapenak serio hartzea eta irtenbide duin bat ematea eskatzen diogu.

Animo Mukixuko Langileei!!

Elizondoko zahar etxeari

LEIRE BARRENETXE SANCHEZ

Elizondon bada etxe bat non jende aunitz elkarrekin bizi den. Baztan barnean dagoen mikro unibertso bat, mila istorio eta gertakizunekin. Bertan aspertzea ez da erraza. Egia erran normala da hau horrela izatea, izan ere, etxe honetan elkarrekin bizi dira hamaika lekutatik heldu diren ehun eta piko pertsona, urte aunitzeko bizitza bat eta gero, hainbat arrazoiengatik beren azkeneko urteak hemen pasatzea erabaki dutenak.

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zahar etxean hiru urtez lanean egon eta gero, ezin dut erran hemendik *sin pena ni gloria* joanen naizenik. Erizain bezala nire lehenbiziko lana izan denak mila abentura eta ikasketa eman dizkit, batzuk arras onak, bertze batzuk gogorrek ere bai. Pena handiz bertze bide bat probatzea erabaki dut, adinekoen zaintza mundua alde batera utziz.

Seguru nago urte hauetan ezagutu ditudan pertsona batzuk ez ditudala erraz atzenduko. Horregatik idatzi dut gutun hau, mila esker eta aio errateko bertako langile eta adineko pertsona guztiei.



«Robotikak asko emateaz gain taldean lan egiten erakutsi dit»

HARITZ AZPIROTZ ERBITI FIRST LEGO LEAGUEN MUNDUKO TXAPELDUN

Munduko First Lego League Txapelketa irabazi du 16 urteko leitzarrek Legotronic Beavers taldearekin. Urteak daramatza lego piezak oinarri hartuta robotak eta proiektuak garatzen

G. PIKABEA LEITZA

Robotika eta lego ditu afizio Haritz Azpirotz Erbiti gazteak (Leitza, 2006), eta bi zaletasunak uztartzeko bidea aspaldi bilatu zuen. Zortzi urte zituenetik dabil lego piezekin robotak eraikitzen, mundu errealeko erronkei aurre egiteko proiektuak garatzen. Afizio horrek urruti eraman du Leitzako Amazabal institutuko DBH 4ko ikaslea. Nafarroako eta estatu mailako txapelketa irabazita, berriki Munduko First Lego League (FLL) robotika txapelketa ere irabazi du Houstonen (AEB) Legotronic Beavers taldearekin. Haurren eta gazteen artean zientziaren eta teknologiaren inguruko interesa sustatzea duen nazioarteko hezkuntza programa da First Lego League, eta aurten 107 talderen artean, Azpirotzen taldea izan da nagusi. Adinagatik, heldu den urtean parte hartuko du azken aldiz.

First Lego Leagueren Nafarroako, Espainiako eta munduko txapelketak irabazi dituzu Legotronic Beavers taldearekin. Nolako balorazioa egiten zenuke?

Esperientzia bikaina izan da. Azken hilabete hauetan lan asko egin dugu lortu duguna egin ahal izateko, eta aurretik ere buru-belarri ibili gara ahalik eta emaitzarik hoberenak lortu ahal izateko.

Houstonen jokatu zen mundu mailako txapelketa. Nolako esperientzia izan zen?

Mundu mailako txapelketa izugarria izan zen, oso esperientzia ona. Momentu hartan, taldeko inor ez ginen irabazle

izanenginen edo ez pentsatzen ari, egin behar genuenean genuen burua, ahalik eta emaitzarik hoberena lortzeko. Egia



Legotronic Beavers taldea, Houstonen, txapelketa irabazi ondoren.



Leitzarra Houstonen, bi sariak eskuetan dituela, etxera bueltan.

«IZUGARRIA IZAN DA MUNDUKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEA»

«ZORTZI URTE NITUENETIK ROBOTIKAREN MUNDUAN NABIL»

esan, ez nuen irabazle izatea espero eta irabazleak ginela jakitean poz haundia sentitu nuen. Ezin nuen sinetsi. Lan haundia dago emaitza horren atzean.

Ez da First Lego League txapelketan parte hartu duzun lehenbiziko aldia...

Ez, ez. Zortzi urterekin sartu nintzen FLL munduan eta guztira zortzi denboralditan parte hartu dut eta hainbat txapelketatan izan naiz. 2007an Europa mailan sari bat jaso genuen eta 2019an mundu mailako bi sari: robotaren diseinuarena eta robotaren portaerarena. Aurreko bi urteetan ere mundu mailako txapelketara sailkatu ginen, baina Covid-19a tarteko ez ziren egin. Aurten Espainiakoa irabazi eta gero, mundu mailakora sailkatu ginen eta sari berezia izan zen bertan parte hartzea. Munduko txapelketan ikusgarria izaten da hainbat lekutako beste taldeek erronkak nola garatzen eta zein proiektu aurkezten dituzten ikustea. Txapelketetan zure lana aurkezteaz gain, besteena ikusten duzu eta hori partekatzea oso interesgarria da.

Nondik datorkizu afizioa?

Nire aurreneko legoa lau urterekin izan nuen, baina robotika munduan zortzi urterekin sartu nintzen. FLLko txapelketetan parte hartzen, berriz, hamar urterekin hasi nintzen.

Gai jakin bati buruzko benetako erronkak planteatzen dituzte First Lego League txapelketan. Azalduko zenuke?

Bai, hala da. Urtero erronka desberdina proposatzen dute, eta talde bakoitzak irtenbide bat garatu eta aurkeztu behar izaten du. Egin ditudan proiektu guztiak hutsetik hasi ditugu, eta erronka aurkezten dute nean hasi izan gara garatzen. Berrikuntza proiektuak izaten dira: urteko erronkari irtenbidea ematen dion ideia berri bat garatu behar da, eta gero epaile batzuen aurrean aurkeztu eta defendatu behar da.

Beste aldetik, robotaren erronka dago. Proposatutako hainbat proba eginen dituen robot bat diseinatu eta eraiki behar da, eta hori ere epaileei aurkeztu behar zaie. Ondoren, bere portaera zuzenean bi minutu eta erdiko denboran ikusten da, hau da, ahalik eta proba gehien egin behar dira denbora horretan.

Epaimahaiaren aurrean aurkezteko momentua urduritasun haundikoa izaten da?

Bai. Denbora asko pasatzen dugu aurkezpene eta lana prestatzen, eta dena ongi ateratzea nahi izaten dugu. Hala ere, horrenbesteko lana egin eta gero, konfiantza osoa nuen gure proiektuarengan, eta lasai egin genuen.

Zein izan da aurtengo erronka eta zuen aurtengo proiektua?

Aurtengo erronka garraioari eta horrekin lotutako faktore guztiei buruzkoa izan da. Guk kartoizko kaxe alternatiba bat bilatu nahi genien, horiek guztiz ezabatuz. Horrela, polipropilenoazko kaxa berrera-bilgarri bat sortu dugu, betegarri puzgarriekin eta tolesgarria, kartoiaren kontsumoa hutsera jaitsiz.


Zein dira halako proiektu bat garatzeko pausoak?

Aurreneko arazoa identifikatu behar da, eta ondoren, arazo horrentzat hainbat konponbide aurkitu. Gero ideia horietako bat aukeratu eta garatu behar da. Proiektua garatzeko lehenik eta behin prototipo txikiak eraiki behar dira, nahi bezala, funtzionatzen duen ikusteko, eta hortik aurrera ideia garatzen joaten gara, azken emaitzara ailegatu arte.

Zein trebetasun behar dira horrelako txapelketa batean parte hartzeko?

Lan gogorra egiteko prest egotea beharrezkoa da, baita txapelketa egunetan kontzentrazio handia izatea eta lasai egotea ere, dena ongi atera dadin.

Talde ttikietan lan egiten duzue. Zuen taldea MTorres fundazioko



Azpiroitz bere etxean, robotarekin lanean.

Legotronic Beavers taldea da. Aurkeztuko zenuke?

Taldean 14 eta 16 urte bitarteko sei mutil eta bi entrenatzaile gara. MTorres fundazioak taldekide izateko proposamena egin zidan eta dudarik izan gabe onartu nuen. Hasierako urteetan gazteena ni nintzen, eta orain, aldiz, hasierako lagunak falta dira.

Halako txapelketek prestaketa eskatuko dute. Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

**«KONTZENTRAZIOA
ETA LASAITASUNA
BEHARREZKOAK
DIRA»**

Entrenamenduak larunbat eta igandetan izaten ditugu, astean gutxi gorabehera hamabi orduz aritzen gara. Urte osoan robot eta proiektua prestatzen ditugu eta txapelketa ailegatzear denean, aurkezpeneak prestatzen ditugu.

Etorkizun hurbilean eta epe luzera begira zein asmo dituzu?

Hurrengo urtean ere parte hartzeko asmoa dut, baina azkena izanen da, adinagatik ezin baitut gehiago taldekide

**«ASTEAN HAMABI
BAT ORDUZ
ENTRENATZEN
GARA»**

izan. Baina entrenatzaile izateko aukera baldin badut, gustura jarraituko nuke taldean. Epeluzera MTorres fundazioan lan egitea gustatuko litzaidake. **Eta ikasketekin aurrera egiteko asmoa duzu?**

Ingeniaritza egitea gustatuko litzaidake, zehazki, robotika. Garbi dago zergatik hartu dudan erabakia, robotikaren mundua asko gustatzen zait. **Zer ikasi duzu robotikaren munduan zabiltzanetik?**

Robotikak arlo honi buruz asko erakustez gain, talde lanean aritzen erakutsi dit. Bestalde, urtero erronka berri bat prestatu behar denez, horrek ere asko ikasteko bidea eman dit. Gaurkotasuneko gaiak izaten dira.

Helduek ere ikasten segitzeko aukera izan dezaten

Helduentzako eskola sortzeko prozesuan ari dira eskualdeko hainbat erakunde. Ikastaroak irailean hastea da asmoa

A. LARRETxea

Helduek ere ikasten segitzeko gune bat izatea. Horixe da Bortziriak, Malerreka eta Baztango hainbat erakunde eta entitatek bete nahi duten helburua. Horretarako, helduentzako eskola bat eratu nahi dute, hala nahi dutenek hemen ikasteko aukera izan dezaten. Espainiako Konstituzioak, zein Nafarroako Parlamentuak onarturiko 1/1900 legeak zehazten dute hezkuntza-administrazioak heldu guztiek oinarritzko hezkuntza erdietsi ahal izango dutela. Orain artean, ordea, eskualdean ezinezkoa zen hori, izan ere Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ikasteko aukera bakarra Iruñera joatea zen. Eskualdeko hainbat eragile murgildu dira proiektuan batera, hezkuntza komunitatea, udalak, enplegu zerbitzua... Eta horien guztien elkarlanari esker lortu dute eskola martxan paratzeko prozesua abian jartzea.

Gabezia hori betetzeko sortu nahi dute eskola, eta anbizio handiko proiektua izanagatik, urratsez urrats egin nahi dute bidea. Irailean hasi asmo dute, eta horretarako prestaketak egiten ari dira egun. Hasteko, eskaintza murriztua eskainiko dute: alde batetik DBHko titulaziorik ez dutenentzako funtsezko gaitasunen ikastaroa, eta horrekin batera, atzeritrik etorritakoentzako gaztelaniazko ikastaroak. Funtsezko gaitasunen ikastaroa eskaintzea «proiektu estrategikoa» da bultzatzaileen ustez, izan ere hori da DBHko titulaziorik ez dutenek enplegu

zerbitzuko ikastaroak egin ahal izateko duten urratsa. Orain artean, azterketa bat eginez lortzen zen titulazioa hori, baina, hemendik aitzinera ikastaro baten bidez ere egiten ahalko da. Eta hemen bertan egitea da helburua, Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen, Beran, Donezteben eta Elizondon, alegia. Horretarako hasi dute bidea dagoeneko, maiatzeko lehenengo egunetan egin baitzituzten ikasle bakoitzak duen maila aztertzeko probak. Ikastaroa aitzinera ateratzeko gutxienez 15 lagun behar dira, eta hori bermatzea da erronka orain. 15 lagun elkartuz gero, beraz, irailean hasi eta urtarrila bitartean egingo lukete lehen ikastaroa, eta aterako ez balitz, otsailean egingo lukete bigarren saiakera bat.

Oinarritzko hezkuntzako ikastaroez gainera, eskualdean helduentzako eskola sortzeak aukera anitz ekar ditzakeela uste dute bultzatzaileek. Izan ere gako gaitasunen eta hizkuntza ikastaroez harago, jakintza orokorreko bertze batzuk egitea da asmoa, frantses ikastaroak adibidez, edota bertzelako alorren ingurukoak. Helduen hezkuntza sustatzea da finean, ikasi nahi duenak eskualdean ikasi dezan, eta ez dezan Iruñeko bidea hartu.

IKASTAROAK IRAILEAN HASTEA DA BULTZATZAILEEN ASMOA



Mariaje Ganboa da proiektuaren sustatzaileetako bat. UTZITAKOA

«Edozein helduk probesten ahalko duen eskola izanen da»

MARIAJE GANBOA DONEZTEBEKO ENPLEGU ZERBITZUA

Doneztebeko Enplegu Zerbitzuko arduraduna da Mariaje Ganboa, eta bera izan da helduen eskolako sustatzaileetako bat. Orain artean horrelako proiektuak bakarrik garatu ondotik, bereziki garrantzitsua iruditzen zaio helduen eskola elkarlanean sorturikoa izatea, eta gizarte zerbitzuek egindako lana nabarmendu du. Enplegu Zerbitzu gisa horrelako proiektu bat garatzeko zituzten beharren berri eman du: «Guk eskaintzen ditugun ikastaroetan parte hartzeko, ezinbertzekoa izaten da DBHko titulua izatea, eta gu konturatu ginen, eskualdean bazegoela jende aunitz hori ez zeukana. 200 pertsona inguru zenbatu genituen».

Hutsune horri aurre egiteko, sustatu dute Funtsezko Gaitasunen Titulua eskaintzeko helduentzako eskola. Izan ere, behin titulu hori eskuratuta ikasleek lanbide zerbitzuetako ikastaroetan parte hartzeko aukera dute, lan aukera berriak sortuz. Orain artean urtero izan dituzte ikasleak titulazio hori egiteko azterketa libre egin izan dutenak, eta gabezia hori bete nahi dute orain. Eskola hiru lekuetan sortzea dela asmoa azaldu du: «Argi daukaguna da ezin dugula helduen eskola bat toki bakar batean egin, parte hartuko luketen ikasleak ezin direlako hain erraz mugitu. Hezkuntza departamenduak taldea sortzeko gutxienez 15 pertsona eskatzen ditu, eta ez gaude oso urrun zenbaki horietatik». Herriren batean talderik aterako ez balitz, gainera, bertako ikasleak bertze bietara bideratzeko asmoa dutela azaldu du. Maila probak egin dituzten arren, nabarmendu du oraindik ere badela izena emateko aukera: «Orain maila proba egin ezin dutenek ez dute arazorik izanen aitzinerago proba egin eta irailean hasteko».

Hasiera batean, gako gaitasunen ikastaroa egin ondotik, bertzelako eskaintza sustatzea garrantzitsua iruditzen zaio: «Oso interesgarria iruditzen zait, adibidez, frantses ikastaroak egitea. Herriarrek ikusi behar dute hau edonorentzako moduko eskola dela, helduentzako dela, eta denok probesten ahal dugula eskualdean». Hori lortzeko «talde bezala lan egiten eta eskaintzaosatzen» jarraitzeko beharra dagoela azpimarratu du.



Itziar Iguzkiagirre eta Uxo Gamio. UTZITAKOA

«Helduen eskolak herritar guztien aukera berdintasuna bermatuko du»

ITZIAR IGUZKIAGIRRE ETA UXOA GAMIO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Proiektuaren bertze sustatzaileetako bat da Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, eta Itziar Iguzkiagirre eta Uxo Gamio aritu dira langintza horretan. «Eskualdean dagoen behar bati erantzuteko beharrezkoa» iruditzen zaie biei helduen hezkuntza sustatzea: «Errealitate desberdinak ikusten ditugu: atzeritik etorri eta beren herrialdean ikasketak egin dituzten arren, hemen homologatzeko zailtasunak izatea, ikasteko aukerarik izan eta oinarritzko ikasketarik ez dutenak, formazioetan parte hartzeko gogoia izan, baina baldintzarik ez dutenak...». Kasu horietarako guztietarako helduen eskola bat izatea onuragarria ikusten dute: «Helduen hezkuntzak eskaintza ugari ditu, eta jendearentzat aberasgarria izango litzateke. Gainera, helduen hezkuntza pertsona guztiei eskaintzen zaien errekurtso bat denez, herritar guztien aukera berdintasuna bermatuko du».

Onura pertsonalaz harago, helduen eskolaratze zentro bat izateak gizarte mailan izango dituen onurak nabarmendu dituzte: «Pertsona formatuagoak izango ditugu, gizartearen balioak eta kultura hobetuz. Horrez gain, kolektibo horien presentzia handituko da, eta harreman eta sozializazio aldetik ere eragin positibo aunitz izango ditu». Orain artean, batez ere atzeritik etorri eta gaztelania ez zekiten herritarrak artatu izan dituzte, eta unean uneko erantzunak eman dizkiete, batez ere Elkarrizan boluntario taldearen bidez. Oraingo honetan, ordea, «tokiko entitateek elkarrekin lan eginez, beharrak integralki asetzea lortuko dugu». Helduen Hezkuntza Zentroa eraikitzeak «onurak» ekarriko dituela uste dute biek, nahiz eta kontziente diren denbora behar dela horretarako. Horregatik, momentuko beharra ikusita, funtsezko gaitasunak eskuratzeko ikastaroak bultzatzen aritu dira orain arte: «Gizarte zerbitzuetatik interesa izaten ahal duten pertsonekin elkartu gara, sareen bidez informazioa zabaldu dugu eta herritarrak bertan parte hartzera animatu ditugu. Hemendik aitzinera aurrera pausuak ematen jarraituko dugu eskualdeak Helduen Hezkuntzako zentroa izan arte».



Ana Indaburu Elizondo Lanbide eskolako orientatzailea da. UTZITAKOA

«Gaur egun zaila da hezkuntza titulurik gabe lan duin bat aurkitzea»

ANA INDABURU ELIZONDO LANBIDE ESKOLA

Ana Indaburu Elizondo Lanbide Eskolako orientatzailea da proiektuan buru belarri aritu den bertze eragileetako bat. Hezkuntza alorretik ere, helduen hezkuntza bete beharreko premia gisa ikusten du Indaburuk: «Gaur egun ikaskuntza bizitzan zehar ematen den prozesua da. Helduen irakaskuntzarendako eskola bat izateak, pertsona helduei ikasten jarraitzeko aukera ematen digu. Gainera, nabarmendu du «helduentzako ikasketa aukera hau ez duen Nafarroako eskualde bakarra dela gurea», eta «horren beharra garbi dagoela».

Ikasketak erdibidean utzi dituztenentzat, edo ikasketarik ez dutenentzako aukera ona dela iruditzen zaio, izan ere, argi du «gaur egun gero eta zailagoa dela lan duin bat aurkitzea inolako formakuntzarik edo hezkuntza titulurik izan gabe». Profil anitzetako jendea dagoela kontatu du: ikasketarik gabeko etorkinak, oinarritzko ikasketak bukatu gabeak dituztenak, OHOk ikasketak egin zituztenak, baina, gaur egungo DBHko titulura egokitu behar direnak.. Horregatik, azaldu du hasmentan gaztelania eta Oinarritzko Konpetentziak lantzen dituzte ikastaroak antolatuko direla eskualdeko premiak betetzeko. «Ikastaro hauek ikastera bueltatzeko aukera paregabeak dira. Alde batetik, 2. Mailako Profesionaltasun Ziurtagiriak egin daitezke, ziurtagiri hauek lan munduan Lanbide Heziketako Erdi Mailako Graduen baliokideak dira. Eta bertetik, Oinarritzko Konpetentziak gaindituz gero eta ondoren Sarbide Proba eginez, Lanbide Heziketako Erdi Mailako zikloak egiten ahal dituzte».

Helduen hezkuntza lortzeko bidea elkarrekin egin izana azpimarratu du Indaburuk: «Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen beti egon da mahai ganean gai hau, eta denak batera joatea zen falta zitzailguna. Bortzirietan plazaratu zen beharra, eta horren harira hasi ginen elkarlanean. Elkarlan erraza izan da, alor desberdinetako profesionalak gaude, eta bakoitzak bere esparrutik ekarpenak eginez aberastu dugu taldea».

Ireki dute bestetako aldizkarian lanak aurkezteko epea

Kultur Batzordeak, bestetako programarekin batera banatzen duten 'Berako Oihua' aldizkarian idazteko gonbita egin du

A. LARRETXE

Gero eta hurbilago daude Berako bestak, eta Berako Kultur Batzordea hasi da bestak iragartzen dituen *Berako Oihua* aldizkaria prestatzen. Horretarako, bertan publikatzeko lanak jasotzeko epea zehaztu dute: ekainaren 3a izanen da azken eguna. Lanak kultura@bera.eus helbidera, edota Berako Kultur Etxeko bulegoan aurkeztu behar dira, ahal dela formatu digitalean.

Testuarekin batera egilearen izen-abizenak eta nortasun agiria bidali beharko dira nahitaez. Elkarte edota erakunde baten izenean idazten den kasuan, hauen izena paratuko da baina beti erakunde horren izenean norbaitek sinatu beharko du.

Gehienez ere DIN A4 formatuko bi orrialdeko testuak

onartuko dira, eta irudiak ere izan ditzake, eta Berako herriarekin erlazionatutako gaiak landu beharko dituzte testu denek. Euskarazko testuak idaztea sustatu nahi du udalak. Hori dela eta, leku arazoengatik aurkeztutako testu guztiak sartzea ezinezkoa baldin bada, euskaraz idatzitakoek izanen dute lehentasuna. Gainera, udalak testuak itzultzeko eskubidea izanen du, euskaraz argitaratuak izateko.

Ez da onartuko pertsona edo talderen bat mindu edo irain dezakeen testurik, eta Berako Udalak eta Berako Kultur Batzordeak testu horiek baztertzeko eskumen osoa du. Halaber, bi erakunde hauek ez dute zertan bat etorri *Berako Oihuan* argitaratutako iritziekin.

Bidasoko Lehendabizikoa Pedro Iglesiasek

Arrantza sasoiko lehen egunean, maitzaren 1eko 07:25ean arrantzatu zuen Pedro Iglesias 62 urteko arrantzale irundarrak Lehendabizikoa. 4,460 kg pisatu zuen eta 770 mm luze zen. Saldu daitekeen izokin bakarra da, eta Donostiako Rekondo jatetxeari saldu zion 1.600 eurotan.



UTZITAKOA

Harrera Sarearentzako mugikorrak eta motxilak biltzen ari da Labiaga Ikastola

TTIPI-TTAPA

Maiatz hasieran Irungo Harrera Sareko kideak Labiaga Ikastolan izan ziren beren jardunaren berri ematen. Bertan azaldu zieten, motxilak eta mugikorrak behar dituzte, eta horiek biltzeko kanpaina abiatu dute ikastolan.

Txartelik gabeko mugikorrak dira behar dituztenak, eta motxilei dagokionez tamaina ertainekoak, arropa eramateko modukoak. Lagundu nahi dutenek 948 630 172 zenbakira deitu, edo bera@ikastola.eus helbidera mezu bat idatzi behar dute.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

Jauarena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauarena@bera.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Baztango
Inmobiliaria agentzia - API 358
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea
BERA (31780)
Nafarroa

620 028 625
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2*
DONOSTIA (20004)
Gipuzkoa

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Bestetarako egitaraurako azal lehiaketa martxan

Lanak maiatzaren 27ko 13:30 arte bilduko dira, herriko etxeko bulegoetan, eta irabazlea bozketa bidez erabakiko dute

A. LARRETxea

Kultur Batzordeak bestetako egitaraurako azal lehiaketa martxan paratu du. Lehiaketa irekia da, eta nahi bezainbertze irudi aurkeztu ahal ditu sortzaile bakoitzak. Berako bestetako giroa islatu beharko dute afixek eta azalean *Berako Bestak 2022* testua bakarrik agertu beharko da. Lanak maiatzaren 27ko 13:30ak baino lehen eraman behar dira Herriko Etxeko bulegora. Lehenengo, gainera, azal lehiaketaren irabazlea herritarrek erabakiko dute bozketa bidez.

Argazkiak edo irudiak koloretan izan behar dira, ez da diapositibarik onartuko eta paperean aurkeztuko dira, bertikalki 18x27 zentimetroko neurrian, euskarri sendoan eta modu egokian paketatuta.

Gaia, estiloa eta teknika librea izanen da, betiere Berako besta giroa islatzen badu. Genero irudikapenean erabilitako irudien oreka bilatu beharko da lanetan, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren

arloan ezberdintasunen tratamendu gutxiesgarria saihestuz.

Jatorrizko lanak bakarrik

Irudiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, eta ez da onartuko bertze neurri batean argitaratutako lanen kopiarik, ez eta bertzelako artisten plagiorik ere.

Aurkeztutako irudiaren gibelean goitizen bat baino ez da paratuko eta aparteko gutun-azal batean erantsiko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena paratuz. Gutun-azalaren barrenean, orri batean, ondoko datuak agertu beharko dira: izen-abizenak, adina, helbidea, posta kodea, herria eta probintzia, telefonoa eta posta elektronikoa.

Saritutako irudia udalaren esku geldituko da iragarpen, argitalpen, zabalkunde eta abarren eskubide guztiak altxatuko ditu, betiere irabazleari egiletza aitortuta. Saria bakarra izanen da, eta irabazleak 400 euro jasoko ditu (%15eko PFEZ atxikipena ezarriko zaio).

Auto elektrikoak kargatzeko puntua paratu du udalak

TTPI-TTAPA

Auto elektrikoak kargatzeko puntuak paratu dituzte Bera-ko eta Lesakako udalek Goienerrekin elkarlanean. Berakoa, liburutegiaren eta Elektrobieren artean dagoen aparkalekuan dago, Eztegarra frontoiaren parean. Gehieneko kargatze potentzia 44kw-ekoa da, eta bakoitzean bi ibilgailu batera kargatzeko gaitasuna daukate.

Puntu hauek erabili ahal izateko, *Charge and Parking* aplikazioa instalatu behar da mugikorrean, eta bertan izena



Kargatzeko puntua. UTZITAKOA

eman. Hasiera batean 0,40 euro/kwh prezioa ezarri dute, eta prezio hau etorkizunean elektrizitatearen prezioaren bilakaerarekin berrikusiz joanen dira.



UTZITAKOA

Herriko bi abeltzain omendu dituzte

Apirilaren 30ean ospatu zuten azienda feria egunaren 5. edizioan, Luis Irazoki eta Agustin Leonis herritarrek omendu zituzten antolatzaileek, abeltzaintzaren alde Beran egindako lan handiagatik. Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten ferian.

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

Astrolabioak
ortzinalora:
07:15etik
aitzinerara
LABE ZAR
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

Ansona ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 BERA

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Elorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN
Centro Prim regina tolosaechebare



**CIFP "BIDASOA" LHII
IRUN**

IDASOA



Zure etorkizuna, gure erronka

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekimendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Ikastetxeak.*




Mantentze-lan elektronikoa



Zurgintza eta altzarigintza



Telekomunikazioen elektronika



Fabrikazio Mekanikako diseinua

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituena industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleantza (moduluak ingelesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik, bi kurtsoan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egiteko ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsalde).

Bide honek zikloetako moduluak era independentean ziurtatzeko aukera ematen du. Ordutegia ikaslearen beharretara egokitzen da. Lana eta bestelako eginkizunak ikasketarekin tartekatuz, hiru urteko epean dagoen titulazioa eskuratzeko aukera du ikasleak.

Erdi Mailako zikloetatik

orain zuzenean

Goi Mailako zikloetara

Ikasturte honetatik aurrera, espezializazio-kursoak ere bai: 5G Sareen inplementazioa (erdi-mailako titulua duten ikasleentzat) eta Trenbidetako seinaleztapen eta tele-


komunikazio sistemak (goi-mailako titulua dutenentzat).

Metodologia berria

Elkarlanerako metodologia berriaren bidez, lanbidearen berezko gaitasun teknikoak lantzen dira, bai eta gaitasun pertsonalak, lankidetzakoak, komunikaziokoak eta digitalak ere, gero eta gehiago, lan eta lanbide ingurunean beharrezkoak direnak.

Lanbide Heziketa Duala

Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktiko guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuz.



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



GPS
N 43° 20.198'
W 1° 47.897'

Kokapena: Elizatxo, 10 Irungo erdigunetik 300 metrotara,
Elizatxo etorbidea eta Aduana kalearen bidegurutzean

Lehen Aukera Programa

Eusko Jaurlaritzak finantzatzeko duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan esperientzia har dezaten.

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enpresetatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du ikastetxeak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urrats Bat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hogeita hamar enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresendako prestakuntza-beharren diagnostikoak

2022 / 2023 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza egunez eta gauez*
Hizkuntza eskaintza A, D eta B (eleanitza)

Gaztelania, Euskara eta Ingelesa

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA*

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA
INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK*

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

IZEN-EMATE EPEA

Maiatzaren 9tik 27ra,
biak barne

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 15etik 19ra
biak barne



Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez, liburuaren aurkezpenan. UTZITAKOA

Udaberriko agenda feminista lantzen ari da Xulufriak

Estitxu Fernandez eta Erika Lagomaren liburuaren aurkezpena eta Irantzu Pastorren 'Lumineszenteak' erakusketa ekainean

AITOR AROTZENA

Lesakako Xulufriak Sare feministak udaberriko agenda feminista osatu du: apirilean, Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeen egoerari buruzko solasaldia eman zuen MaddiAne Txoperenarek. Joan den igandean mendi buelta egin zuten eta gero emakume* bazkaria Arranon. Maiatzaren 17an, berriz, LGT-BIQ fobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatu dute.

Ekainaren 5ean, M: ama*, eme*, ume* liburuaren aurkeztuko dute Erika Lagoma Pombar eta Estitxu Fernandez Mari-

txalar herritarrek. Feministotik eta amatasunetik pentsatu eta gauzatu dute honako liburu hau, hamahiru lekukotasun jasoz, hamaika ama eta bi aitaren testigantza bana: bikotedunak eta bikote gabeak, heterosexuak eta homosexualak, ama bakarrak, adoptatzaileak, ama ez izatea erabakitakoak...

Ekainaren 16tik uztailaren 3ra, azkenik, Irantzu Pastor herriko argazkilariaren eta Igone Mariezkurrena kazetariaren *Lumineszenteak* erakusketa ikusgai paratuko dute komentuan.

Alondegia erabilerak zehazteko prozesuaren bigarren deialdia larunbatean

A. AROTZENA

Apirilaren 2ko lan saio arrakastatsuari segida emateko, maiatzaren 21ean, larunbatean 10:00etan hasita Alondegia erabilerak zehazteko partaidetza prozesuaren bigarren saioarako deialdia egin du udalak liburutegian. Proze-

suaren informazioa eskura izateko bideo labur bat egin du udalak eta gainera, www.lesaka.eus webgunean, *Lesaka biziberritzen* atalean, bilertako aktak eta orain arte erabiltako dokumentuak ikus daitezke. Herritarrak parte hartzea animatu dituzte.

'Mendiak 1976' dokumentala maiatzaren 29an

Mendiak 1976 filma eskainiko du Beti Gaztek Harriondoa kultur etxean maiatzaren 29an, igandean 19:00etan. Sarrerak www.lesaka.eus webgunean eskura daitezke dagoeneko. Bazkideek 3 euro eta bazkide ez direnek 5 euro ordaindu beharko dute. «Euskaldunen lehen zazpimilakoa» izan zen Afganistango Hindu Kusheko Shakhaur tontorreko (7.166 metro) igoera. Baina jautsieran zoritxarreko istripu bat gertatu zen: espedizioa kideetako bat hil zen eta bertze bat larri zauritu zen.

Gazte eguna ospatuko dute maiatzaren 28an

Bi urte eta gero, Buruztanka Gaztetxeak antolatutako Lesakako Gazte Eguna hilaren azken larunbatean, maiatzaren 28an ospatuko dute. 09:00etan txupinazoa bota eta gosaria izanen dute Buruztanka Gaztetxean, eguna indarrez hasiteko. 11:00etan ginkana izanen dute Plaza Zaharrean. 13:30ean paella txapelketa egingen dute eta 15:00etan bazkaria plazan. Bazkalondotik jokoak izanen dituzte. 19:30ean Sakatu elektrotxaranga ibiliko da herriko karrikak girotzen eta gazte eguneko egitaraua borobiltzen.



UTZITAKOA

Xalbador Madariagari omenaldia

Urtetan musika eta akordeioi irakasle izan den Xalbador Madariagak erretiroa hartu duela eta, omenaldi hunkigarria eskaini zioten maiatzaren 7an soinuariak. Ehun baino gehiago bildu ziren eta musika, aureskua eta oroigarriak eskaini zizkieten, Alondegiko arkupetan bazkaldu aitzinetik.

caser residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondeak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixontzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA BETHARRAM | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 657 780
 | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 160



ZER DIRA BARIZEAK ETA NOLA TRATATZEN DIRA?



Guillermo LARRAÑAGA
doktorea
Kirurgia Kardiobaskularreko
Zerbitzua
Flebologia eta Linfologia
Unitatea

Centro Médico Bera
San Esteban, 17. Bera

Telefonoa: 610 549 507

ODOLA BIHOTZERA ITZULTZEKO, zainek grabitatearen kontra egin behar izaten dute, eta, horretarako, zainetan badaude halako mekanismo txiki eta delikatu batzuk odola bihotzeraino garraiatzeko balio dutenak.

Grabitatearen kontrako mekanismo delikatu horiek huts egiten dutenean agertzen dira **barizeak**, zainek ezin dutenean odola behar bezala bultzatu. Orduan, odola zainetan pilatu egiten da eta zainen paretak dilatatu. Gaixotasun horri Zain-gutxiegitasuna deitzen zaio.



Emakume eta gizonetan **badira hainbat faktore zain-gutxiegitasuna izateko** joera handitzen dutenak: herentzia genetikoa, bipedestazioa (zutik eta geldirik denbora luzez egotea), emakumeen kasuan hilekoak eta haurdunaldiak, obesitatea eta zahartzaroa...

Gaixotasunak aurrera egiten duen neurrian, odolaren zirkulazioa moteltzea ekarriko du eta horrek, lehenago edo geroago, **zainen hantura (flebitisa) sortuko luke, zainetan odolbilduak agertuko dira (tronbosia) eta ehunak suntsituz**. Denborarekin, larruazalean orban ilunak agertzearekin batera, zainak ultzeratzeko lehen fasean eta zain-gutxiegitasunaren kronifikazioan sartuta daudela iragarriko luke.

Barizeek era askotako sintomak sortzen dituzte: **astuntasuna, gaueko kalanbreak, inurridurak, bero sentazioa, azkura edo aznahia eta hanketako edema**. Azken sintoma honek zain-gutxiegitasunaren gaixotasuna fase aurreratu batean dagoela iragarriko luke.

Sintoma horietakoren bat edo guztiak izanez gero, **espezialistarengana joateko abisua dira** eta, bidenabar, diagnostiko egoki bat eskatzekoa. Guk, gure taldearen esperientzian eta oraingo ebidentzia zientifikoetan oinarrituta, kasu bakoitzerako tratamendurik egokiena proposatuko dizugu. Izan ere, paziente bakoitza desberdina da eta zainetako gutxiegitasun kronikoa gaixotasun konplexua, barize kasu guztiak ezin baitira metodo bakar batekin tratatu.

Berako zentroan:

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa – Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFLOGIA

Kolegiatu zk: 202006147

20. urteurrena ospatzen hasi da kultur etxea

Ekainaren 16an bukatuko da logotipo lehiaketara lanak aurkezteko epea eta 150 euroko saria izanen du irabazleak

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 30ean 20 urte beteko ditu Kultur Etxeak, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte datozen hilabetetan, tartean logo berria aukeratzeko diseinu lehiaketa. Ekainaren 16an bukatuko da lanak aurkezteko epea. Irudi irabazleak 150 euroko saria eskuratuko du.

Bestetako argazkiak

Etxalarko kultura batzordeak eskaera egin die herritarrei, aitzineko urteetako Andre Mari bestetako argazkiak eskatzuz,


programan erabiltzeko. kulturetxea@etxalar.eus helbidera bidal daitezke.

Arnedillora egun pasa

Larraburuak antolatuta, Arnedillora egun pasa egingen dute maiatzaren 28an. 08:00etan aterako dira eta Callaghan oinetakoen museoa, Arnedilloko putzuak, turismo bulegoa eta eliza ikusiko dituzte. Bazkal ondotik, bingoa eta dantzaldia. Calahorra bisitatu eta itzuliko dira. Izena emateko 623 15 34 38 telefonora deitu behar da.

104 urte bete ditu Barbereneko Asun Elizalde

Barbereneko Asun Elizalde Danborienak 104 urte bete zituen maiatzaren 2an. Lore sorta eta bisita ugari izan zituen bere egunean, baita auzotarrek antolatutako urtebetetze bazkaria ere. Emakume bizkorra eta indartsua, 105ak ospatzeko zain geratu da Asun.



Asun Elizalde 104. urtebetetzean.

Talo ikastaroa Altxata elkartearen eskutik

Altxataren eskutik talo ikastaroa izan zen Larraburuan apirilaren 30ean. 30 bat lagunek arretaz entzun zituzten herriko talogileen aholkuak eta egindako opilekin merienda-afaria egin zuten. Ikasitakoa gasna feria eguneko talo postuan jarriko dute praktikan.



Taloak egiten ikasten. IRUNE ELIZAGOIEN



**PRESTAKUNTZA-ZIKLOEN
ESKAINTZA ZABALA**

LH ERDI MAILA

- Administrazio-Kudeaketa
- Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mendekotasun-Egoeran Dauden Pertsonen Arreta

LH GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Web aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzea
- Garraio eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Dietetika
- Haur Hezkuntza
- Gizarteratzea

ESKATU HITZORDUA
📞 943 899 214

IZEN EMATEA
Maiatzaren 9tik 27ra

Plaiaundi z/g
20301 IRUN
943 899 214
info@plaiaundi.eus
www.plaiaundi.hezkuntza.net



Ekainaren lehen asteburuko ekintzak prestatzen hasiak

Altxataren eskutik 29. edizioa beteko duen Gasna Feriak ohiko egitaraua berreskuratu du

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 4an, gasna feria bezperan, Etxalarko Andre Mari dantza taldearen emanaldiarekin hasiko da asteburuko egitaraua. Emanaldia larunbatean 22:00etan izanen da Etxalarko frontoian eta dantzariak lagun izanen dituzte herriko musikariak, kantu taldea, gaiteroak eta bertze hainbat lagun.

Ekainaren 5ean, Gasna eta artisau feriaren eguna izanen da. Igandean 10:00etatik 13:30era artisauen postuak eta salmenta izanen da frontoian. 13:30ean XXIX. Altxata gasna lehiaketako sari banaketa egingen dute eta segidan bertso bazkariari paso emanen diote frontoian. Bazkariko txartelak salgai egonen dira Elutsan eta Herriko Ostatuan maiatzaren 29ra arte.

Egun guzian eskulan ikastaroko lanak ikusgai egonen dira eskola zaharretan. Iriondoan goizez baserriko tresnen erakusketa zabalik egonen da nahi duenarentzako eta Etxalarko trikitilariak giroa alaitu dute goizean.

Gasnagileei deia

Ekainaren 5ean, goizean XXIX. Altxata gasna lehiaketa antolatuko dute eta inguruko gasna egileek beraien gasna aurkezteko aukera izanen dute. Parte hartu nahi duenarentzat hauek dira lehiaketaren oinarriak:

Bortzirriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Leitzaldean bizi diren artzain edo gasna egileek parte har dezakete. Ardi latxaren esne gordinarekin egindako gasna txapelketa da. Lehiaketarako gasnak gutxienez 60 egunez onduak izan behar dute. Egile bakoitzak gasna bakarria aurkezteko deia eta 15 euro ordainduko zaizkio. Gasnak ekainaren 5ean, igandean 10:00etatik 11:00etara ekarri beharko dira Etxalarko frontoira. Ohiko sariak izanen dituzte eta herriko gasna onena ere sarituko dute. Gasnak, lehiaketa honen antolatzaileen eskutan geldituko dira.

Informazio gehiago eskura daiteke altxata@gmail.com helbide elektronikoan edo 688 73 04 38 telefonoan.



ARANTXA DANBORIENA

Lurritiederra auzoko bestak

Lurritiederra auzoko besten ospakizuna berreskuratu dute pandemiaren ondotik eta maiatzaren 1ean 50 bat auzotar elkartu ziren Landaburuko Bordan bazkaltzeko. Besta gogoa nabaria zen eta eguraldi ederra lagun, primerako eguna ospatzeko aukera izan zuten.



IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko gazteak sagardotegian

Herriko 35 gazte Adunako Aburuza sagardotegira joan ziren apirilaren 30ean. Argazkian ikus daitekeen bezala primeran pasa zuten. Azkeneko irteera justu pandemia etorri aitzinetik egin zuten eta, bi urteren ondotik, gogo handiarekin zeuden aurtengo sagardotegirako.



USOA
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



ETXALAR
HOTEL-VENTA

*lagunarte, familia,
kinto besta...*

OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com





Ikasgelan egindako irakurketa saioetako bat. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Liburuaren Egunaren harira hainbat ekintza eskolan

Irakurketaren ohitura sustatzeko herriko hainbat txokotan irakurtzen ari dira ikasleak eta gurasoak

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Liburuaren eguna apirilaren 23a izan baldin bazen ere, apirilean hasi eta maiatzaren erdira arte ari dira eskolan gaiaren harira hainbat ekintza antolatzen: etxetik eramandako liburuak irakurri eta aztertzen; haur koxkorrenak ttikienei herriko hainbat txokotan liburuak irakurtzen; gurasoen eskutik eta ahotik, zenbat hizkuntzatan ipuinak, istorioak edo errezetak ikasten; taldetan banaturik, denen artean ipuin bat sortzen... irakurzaletasuna sustatzeko ekimen interesgarria.



Hainbat txokotan leitu dute ttikiek.

Igantzi-San Anton-Lesaka irteera ereiaroaren 4an

Heldu den ereiaroaren 4an, hilabeteko lehen larunbatean eta Igantziko Biltoki elkarteak antolatuta mendi irteera izanen da. Ibilbidea, Igantzi-San Anton-Lesaka izanen da. Izerdialdiaren ondotik, 14:00etan ongi merezitako bazkaria izanen dute Linddurrenborda sagardotegian. Izen emateko azkeneko eguna maiatzaren 25a izanen da eta Biltokin bertan egin beharko da. Bazkide nahiz bazkide ez denak izanen du mendi ibilaldia egiteko eta bazkarirako aukera. Anima zaitezte!

Munduan barrena kantuan Giltzarri abesbatzarekin

Herriko hainbat kantari Giltzarri abesbatzarekin jotake ari dira, hainbat tokitan kontzertuak emanez. Azkena, Lesakan hilaren 14an egindako Bortzirietako V. Abesbatzen Topaketan eman zuten, Sutargi (Lezo, Gipuzkoa) eta Bihotzez (Getaria, Lapurdi) abesbatzekin batera. Ibilbide honi akabaila emateko, maiatzaren 25etik 29ra Britainiara joanen dira Urruñako Kantauri abesbatzarekin batera bi kontzertu eman eta, aitzakia horrekin, txoko hori eza gutzera. Ongi ibili!



UTZITAKOA

Oihan Canabal GRABNiko txapeldun

Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatu ziren GRABNI txapelketako finalak. Eskuz binaka, senior mailan Nafarroako ordezkariak Oihan Canabal herritarra eta Alduntzin izan ziren eta Gipuzkoaren kontrako finala irabazi ondotik txapelketa honetako txapela ere herrira etorri zen.

F. LANCHAS
Akutelladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ERAMATEKO JANARIA
astelehenetik ortziralerara
JATETXEA RESTAURANTE
Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ola SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

Hitzorduz betetako aste hondarra ate joka

Igande honetan mendi itzulia izanen da eta bezperan eskolarteko bertsolari txapelketa jokatu dute

NEREA ALZURI

Gain-gainean dugu mendi itzulia eta Ekaitza Elkartea igandeko azken prestaketetan lan eta lan ari da. Beti bezala, aldi honetan ere, herritar saila ariko da laguntzen.

Ibilbidea 07:00etatik 08:00etara irekiko dute plazan eta hortik aitzinera mendizaleek 27,9 kilometroz herriko mendiez eta inguruez gozatzeko aukera izanen dute. Antolatzaileek oroitari dutenez, itzulian aitzinetik Internetez (*mendizmendi.com*) edo igandean 06:30etik 08:00etara apunta daiteke.

Hitzordu gehiago asteburuan

Asteburuan, Nafarroako bertso eskoletako ikasleen topaketa Arantzan egingen dute eta 55 ikasle bilduko dira. Horren harira, larunbatean, 17:00etan, Nafarroako eskolarteko finala izanen da Aterpean, 14 eta 18 urte bitarteko zazpi bertsolariarekin: Antton Ziriza Saragueta, Beñat Astiz Isasi, Eki Mateorena Zoziaia, Larraitx Goikoetxea Zuriarrain, Manex Leone Baraibar, Olatz Bados Ganuza eta Xabier Elizalde Soto. Horrez gain, asteburuan Ezkioko pilota eskola-koak herrikoekin bilduko dira.



Herritarren interesa ikusita bi ikastaro antolatu ditu udalak. LEIRE MITXELENA

Sendabelarren ikastaroak arrakastatsuak izan dira

N. ALZURI

Udalak antolaturiko sendabelarren ikastaroek harrera ezin hobea izan dute. Hasiera batean bakarrik antolatu baldin bazuen ere, herritar aunitzen interesa ikusita, bigarren bat antolatu zuen eta ortzegun honetan izanen dute azken saioa. Lehenbiziko taldean, 15 lagun aritu

dira eta bigarrenetan, 13. Herrian barna edo inguruan ibili dira sendabelarren inguruan Laura Gurbindo adituaren azalpenak aditzen. Alde teorikoan, sendabelarrak ezagutu, identifikatu, propietateak eta ezaugarriak ikasi, eta erabileraz aritu dira. Alderdi praktikoan, ukenduak eta olioak egin dituzte.



UTZITAKOA

Delirium Tremensen kontzertu jendetsua



Apirilaren 29an, Delirium Tremens taldearen kontzertu ederraz gozatzeko aukera izan zen Aterpean. Hiru hamarkada joan dira baina jarraitzaile eta zale aunitz elkartu ziren kontzertura oroitzapenetan blai! Taldeak diskoa ere argitaratu du.



PATRI ARBURUA

'Epizentroa' liburua solasgai

Joan den apirilaren 28ko arratsaldean, literatura geraldia egin zuten. Baskulan egin zuten hitzordua eta herritar talde bat bildu zen *Epizentroa* liburuaz solas eta gogoeta egitera. Liburuaren egilea den Nerea Loiola idazlea ere Arantzan izan zen.



Aisialdiko hezitzaileek tailer bateratua izanen dute

UEMAk eta Oinherrik sortu dute lehen aldiz eta tailerrak emateko eskaria udalek egin beharko dute

TTIPI-TTAPA

UEMAk eta Oinherrik aisialdiko hezitzaileentzako tailer bateratua sortu dute lehen aldiz, eta herriz herri eskainiko dute orain. Izan ere, hainbat balore partekatzen dituztela (aisialdi euskaldun, partehartzaile, anitz, parekidea...) ohartu dira bi aldeak, eta horiek sustatzeko asmoz sortu dute tailerra, aisialdiko hezitzaileek hainbat gairen inguruko formazio zehatza izan dezaten. Gainera, UEMA-k kide diren 94 herrietako aunitz Oinherri herri hezitzaileen sareko partaide dira.

Hezitzaileentzako tailer praktikoak, herrietan

Aisialdiko hezitzaileentzako tailerrak ahalik eta herri gehienetan ematea da asmoa, maiatzaren 12an Iruñean egindako

aurkezpenean azaldu zutenez, eta horretarako udalek adierazi beharko dute Oinherrik eta UEMAk tailerra eskaintzea nahi dutela, UEMAra (iodrizola@uema.eus) edota Oinherriara (a.astiz@herrihezitzailea.eus) idatzita.

Ahal den neurrian, saioak emateko, partehartzaile kopuru txikia duten herriak elkartzen saiatuko dira UEMA eta Oinherri, beti ere elkarrengandik gertu egonez gero.

Tailerrak praktikoak izanen dira, hezitzaileentzako formazio zehatzarekin, udalekuetan partehartzea eta euskararen erabilera sustatu dezaten. Saioak maiatzaren 23tik ekainaren 24ra (astegunetan, arratsaldean) eta ekainaren 27tik uztailaren 1era (astegunetan, goiz eta arratsaldean) izanen dira.



Ekhiñe Zapiain txapela buruan bukaerako agurra kantatzen. UTZITAKOA

Ekhiñe Zapiain bertsolari beratarrak irabazi du Hernandorena bertso sariketa

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 7an jokatu zen Senpereko Larraldean Hernandorena bertsolari gazteen bertso sariketa, eta Ekhiñe Zapiain bertsolari beratarra izan zen irabazlea. 70 lagun inguru bertaratu ziren Larraldera bertsolari gazteen saioa jarraituz, eta, Zapiainekin batera eskualdeko bi bertsolari ere aritu ziren finalean: Sarako Haira Aizpurua eta Hendaian jaio eta Lesakan bizi den Josu Txoperena.

Zapiainen gibeletik hurrenez hurrenez gelditu ziren Irati

Alcantarilla, Haira Aizpurua Unai Anda, Julene Iturbe eta Josu Txoperena bertsolariak. Aritz Bidegainek egin zituen gai emaile lanak. Saio ederra joan zen, eta maila ona eman zuten bertsolari denek.

Gaztea izanagatik bertsotan bere bidea egiten ari da Zapiain. Hernandorena gazte sariketaz gain, maiatzaren 13an Leitzako Atekabets bertso eskolak antolatutako Mingañe Saltsan bertso sariketan parte hartu zuen, eta igandean Señora sariketako lehen kanporaketan ere kantatu zuen.



**AURREMATRIKULA
MAIATZAREN
9tik 27ra**

Hitzordua hartu

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Mantentze elektromekanikoa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Automatizazio eta robotika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Administrazioa eta finantzak

Jar zaitez gurekin harremanetan informazio gehiago lortzeko.

www.irungolasalle.eus | 943 62 84 11 | fp@irungolasalle.eus | Elizatxo etorb. 14-16 20303 IRUN



"ERREFUS TXAPELKETA"

"LA RESTO COPA"



ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU RESTA Y GANA



ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU

183 Udalerrri nor baino nor
arrituko dira 2 hilabete
"errefus" gutxiago nork
bilduko.

2022ko MAIATZAREN 2tik
UZTAILAREN 2ra

GUTXIAGO EDUKIONTZI BERDEAN/
GRISEAN ETA GEHIAGO URDINEAN,
HORIAN EDO MARROIAN

- GUTXIAGO GEHIAGO DA +

REDUCIR LA FRACCIÓN RESTO, TIENE PREMIO

183 Localidades competirán por
ser las que menos cantidad de
residuo "de resto" recojan en
2 meses.

DEL 2 DE MAYO AL
2 DE JULIO DE 2022

MENOS AL CONTENEDOR VERDE/
GRIS Y + AL AZUL, AL AMARILLO
O AL MARRÓN

- MENOS ES MÁS +



Santxotena museoa bisitatu dute eskolako ikasleek

Arizkungo Bozateko museoa ikusteaz gain Ordoki zalditegian ere izan ziren eta zaldi gainean ibili ziren

MAIDER PETRIRENA

Arizkungo Bozate auzoan dagoen Santxotena museoa bisitatzera joan ziren eskolako irakasle eta ikasleak apirilaren 12an. Museoaren egilea Xabier Santxotena da. Santxotena zuraren artisautzarekin lotutako familia tradizionalan jaio zen, eta gazte-gaztetatik eskulturak erakarri zuen. 1970ean Jorge Oteiza ezagutu zuen, eta haren ikasle nabarmena izan zen.

Eskolako ikasleek ederki gozatu zuten Xabier Santxotenen obrak ikusi eta ukitzen.



Ikasleak Santxotena Museon.

Santxotena museoarekin batera, Ordoki zalditegian ere izan ziren. Zeinen gustura ibili ziren zaldi gainean, txangoa borobiltzeko.

Mediku izan zen Pilar Martinez istripuan hil da

Albiste latz baten ondorioz herria hunkituta dago. 39 urtez gure herrian mediku lanean ibili zen Pilar Martinez Jimenez herritarra ezustean joan zaigu, maiatzaren 2an izandako auto istripuan. Zure herriak zure falta sumatuko du. Doluminak familiari.



Pilar Martinez erretiroa hartutakoan.



NIEVES BIURRARENA

Artzain amerikanoen besta berriz ere

1987an hasi ziren elkartzen Ameriketako artzain ibilitako sunbildarrak eta aurtengo 15 bildu dira maiatzaren 1ean. Meza ondotik, Bustitz Ostatuan *highballa* hartu eta bazkaldu zuten. Ohitura segituz, lur azpian Joxe Mari Arretxea Manterolak egindako bi ogi eder dastatu zituzten.



MAIDER PETRIRENA

ETBko 'Biba Zuek' saioan herritarrak

ETB1eko *Biba Zuek* saioan agertu ziren herritarrak maiatzaren 5ean. Desfibriladorea ezarrita dagoen labaderoan Aritz Agesta eta Aitor Ibarrekin izan ziren. Ondotik, Ariztigain kanpinean, Arantxa Alzuri eta Eukene Tudelarekin 8. txapelketako pintxo irabazlea nola egin ikusi ahal izan zen.

**ZUBIONDO**
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

**Lizun**
GAZTANDEGIA

**IDIAZABAI**

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**TTIPI-TTAPA**
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

**BORDAKETA**

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordaketa.com



Saritutako ahariak, artzainekin, epaimahaikideekin eta udal ordezkariekin. ADC

Hamabi ahari plazaratu dituzte Udaberriko Ferian

Mutur beltzetan Donamariako Zabalteneakoak eta mutur gorrietan Iturengo Zubialdekoak lortu zuten lehen saria

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Udaberriko feria hamalagarren aldiz ospatu zen maiatzaren 6an, Udalak, Nafarroako Gobernuaren eta Cederna Garalur elkartearen laguntzaz antolatua. Bederatzi artzainek hamabi ahari aurkeztu zituzten lehiaketara, 2019an azken edizioa egin zenean baino lau gehiago.

Hiru ahari mutur beltzen artean, Donamariako Zabalteneako Joxe Mari Indak aurkeztutakoek lortu zituzten lehen eta bigarren sariak (120 eta 70 euro). Hirugarrena, 50 euro, Donamariako Porotxeneko Jose Miguel Lasagaren ahariarendako izan zen.

Mutur gorrien atalean bederatzi buru aurkeztu zituzten eta diru-kopuru bera izan zuten saritzat. Lehenbiziko saria Iturengo Zubialdeko Isidro Bazterrikak aurkeztutako ahariarendako izan zen. Bigarrena Zubietako Txekeneko Mikel Mendiburuk eskuratu zuen eta hirugarrena Doneztebeko Elbistegiko Koro Antxorenaren ahariak. Alfredo Basterra albaitariak, Pedro



Giro ona izan zen plazan.

Jose Martin Doneztebeko trantateak eta Patxiku Mitxelena zubietarrak osatu zuten epaimahaia. Sariak banatzen Pello Grazena zinegotzia aritu zen.

Eguraldia lagun,azienda feria polita gelditu zen, behiak, behorak eta astoak ere aurkeztu baitzituzten zenbait baserritar eta tratantek eta eskulangileek ere beraien produktuak atera zituzten plaza-
ra.

Bide seguruak

Arratsaldean ospakizunekin segitu zuten. Eskolarako bide seguruak ibilbideak erakusteko kalejira egin zuten eta eskolan txokolatea, haurrendako jokoak eta musika izan zituzten.



ERNAI

Borratutako murala berriz margotua

Euskarak estatu bat behar du, Gazteok independentzia eta Ernaren logoa. Korrikaren harira, mezu hori zuen murala margotu zuen Malerrekako Ernaik Doneztebeko Merkatu Plazan. Handik egun batzuetara, ordea, borratua agertu zen. Hori salatu bidenabarkoan, berriz ere margotu zuten gazteek.

Errekako judoka ttikienak ere bikain ibili dira

Benjamin mailako Errekako judokak ere Nafarroako jokoetan aritu maiatzaren 7an. Maialen Juanotenak (-34 kilo) zilarrezko domina lortu zuen eta Saioa Irigoien ere (-30 kilo) bikain lehiatu zen, nahiz eta dominarik ez lortu. Zeukaten guztia eman zuten tatami gainean, beraz, zorionak bie.



NOELIA ARIZTIA


MINIESKABAZIOAK
 MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
 enpresa eta partikularrentzat
 Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491


BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

 Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Malerrekako Eguna gozatzeko prestatzen ari dira

Mendaur eskolako musikariek, joaldunek, muslariek eta bertze hainbatek parte hartuko dute maiatzaren 28an Donamarian

ARKAITZ MINDEGIA

Donamarian ospatuko da Malerrekako eguna maiatzaren 28an. Egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek eta herritarrak egunaz gozatzen ariko dira, baita egitarauan bere lekua eskaintzen ere. Goiz-eguerdi partean Mendaur triki-pandero eskolakoek karrikak alaituko dituzte eta arratsaldean gure herriko joaldunak ariko dira. Ezin atzendu, mus txapelketako finalean ere herritarrak izanen direla, maiatzaren 13an Iturengo herriko ostatuan jokatzekoa

zen kanporaketan txapeldun eta azpitxapeldun geldituta-koak, hain zuzen.

Ahari lehiaketan garaile

Udaberriko feria ospatu zen maiatzaren 6en Donezteben hamalagarren aldiz. Malerrekako ahari lehiaketan, azkeneko edizioetan baino artzain gehiago animatu ziren. Mutur beltzetan Donamaria-ra joan zen lehen saria, baina mutur gorrietan herrira etorri da, Zubialdeko Isidro Bazterrikak aurkeztutako ahariarentzat.

Leiza-Ezkurra bikotea Nafarroako txapeldun pilotan

Nafarroako kirol jokoetan, alebin mailako eskuz binakako txapelketan txapeldun suertatu dira Mattin Leiza eta Mikel Ezkurra. Ezkurra Memorialeko finalean ere izan zen Mattin Leiza.



0-3 urteko haur eskolei sustengua eman diete NARBARTeko Arotzenea eskolan ere

MAITE BERTIZ NARBARTE

0-3 urteko haur eskolak borrokan ari dira Nafarroa osoan. Asteotan greba mugagabea daude langileak eta manifestazio jendetsua egin zuten maiatzaren 7an, lan baldintzak hobetzea eskatzeko eta langileen «duintasuna» aldarrikatze

ko. Bada, eskola hauei elkartasuna eta babesa adierazteko NARBARTeko Arotzenea eskolako ikasle eta irakasleek ere beraien aletxoak paratu nahi izan dute eta elkarretaratzea egin zuten eskola atarian, beraiekin bat egiten dutela adierazteko.



ARKAITZ MINDEGIA

Maiatzeko aingeruak igandeko mezetan

Aspaldiko ohiturari eutsiz, maiatzeko igandeko elizkizunetan sei gaztetxo aingeru egiten ari dira: Iñaki, Ruben, Udane, Irati, Aitzol eta Maialen igandero hor dabilta, mezan laguntzen. Beraien lanak, Korpus egunean, Bestaberrin akituko dituzte.



UTZITAKOA

Joaldunen itzulera Herri Urratsera

Herritar ugari hurbildu zen Senpereko Herri Urratsera bere atxikimendua ematera. Joaldunak, bi urteren ondotik, aspaldiko urteetako ohitura berreskuratu eta ibilbidean ibili ziren joareak astinduz eta Trikidantz taldea egitarauko azken kontzertuetako bat eman zuen Araba gunean.



Arotzenea eskolakoek elkarretaratzea egin zuten. MAITE BERTIZ



Zubietako jaialdian aritu ziren profesionalak eta neska gazteak. ARGAZKIAK: ADOS

Malerrekako Erronkako finalean izanen da Ekaitza

Maiatzaren 7an herriko pilota plazan jokaturako jaialdian bi partidak irabazi zizkion Axkini

FERMIN ETXEKOLONEA

Ados pilota elkarteak eta Malerrekako Mankomunitateak, Malerrekako errespetuzko harremanak kanpainaren barnean, zazpi herriko udalen eta Doneztebeko Santamaria jatetxearen eta Ttipi-Ttapa Fundazioaren laguntzarekin antolatutako Malerrekako erronka emakumeen pilota txapelketako lehen faseko azken-aurreko jardunaldia Zubietan jokatu zuten maiatzaren 7an. Eguraldi bikaina lagun, jendetza bildu zen Zubietako pilota plazan eta finalerako lehen txartela Ekaitzak lortu zuen Axkini bi partidak irabazi ondotik.

Ekaitza finalera

Izan ere, lehian Ekaitza (Iera Iturriaga leizarra, Naroa Etxekolonea zubietarra eta aita zubietarra duen Ane Mendiburu) eta Axkin (Orbegozo, Ruiz de Infante eta Naroa Agirre) taldeak izan ziren. Lau eta erdiaren barreneko lehian, Ekaitzako Iturriagak 18-13 irabazi zion Axkingo Ruiz de Infanteri. Eskuz binakakoan, berriz, Ekaitzako «herritarrek»,



Etxekolonea herritarra sakean.

Etxekoloneak eta Mendiburuk 22-20 irabazi zieten Orbegozo eta Agirrerri. Honenbertzez, maiatzaren 22an Sunbillan jokaturako den finalerako lehen txartela «etxeko» taldeak, Ekaitzak lortu zuen, 4 punturekin. Puntu bakarra aski zuen Zubietan eta biak lortu zituen. Beste finalista maiatzaren 14an Urroren jokatzekoa zen jaialdiaren ondotik jakinen da.

Profesionalen aitzinetik, inguruko pilotari gaztetxoak jokoan ikusteko aukera ere izan zen. Olatz Baleztena eta Maialen Elizalde prestatutako taloek ere arrakasta izan zuten eta arratsalde pasa polita egin zuten. Eguraldi ederra lagun, jendetza bildu zen eta giro bikaina izan zen.

Zubietarrak ere Malerrekako Egunerako prest

Maiatzaren 28an Donamarian ospatuko den Malerrekako Eguneko ekitaldietan parte hartzeko prest daude herritarrek. Joaldunak eta paella egileak joanen dira, noski. Beraietaz aparte, eskulangileak ere joanen dira eta larunbatean jokatzekoa zen herriko mus txapelketako garaileak, Malerrekako mus txapelketan parte hartzera. Gainera, Donamariako armaria ere landuko du Migel Arregi herriko eskulangileak Malerrekako Eguneko zuran, lehendik ageri diren ondoan.

Mikel Mendibururen aharia bigarren Donezteben

Maiatzaren 6an Donezteben ospatutako Udaberriko ferian Malerrekako ahari lehiaketa jokatu zen. Mikel Mendiburu zubietarraren ahariak bigarren postua eskuratu zuen mutur gorrien atalean eta 70 euroko saria eraman zuen Txekenera. Patxiku Mitxelena epaimahai-kide izan zen. Herriko artisauek ere parte hartu zuten egun berezi honetan, Joxepa Loiarrek gidatutako taldeak egin dako taloak dastatzeko edo Luis Mari Esarteren zur lanak ikusteko aukera izan baitzen Merkatuko plazan.

Iturengo arotzaren berri eman du Andres Iñigok artikulu batean

TTIPI-TTAPA

Aita Donostiak *Iturengo arotza* kanta bildu zuen eta, ondotik, Mikel Laboak, Oskorrik, Pottokak eta bertze hainbatek kantatu dute. Erramun Joakin Sunbil arotzaren bizitzako artikulua argitaratu du Andres Iñigok *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian. Iturengo Berdabioa etxean jaio zen Erramun Joakin 1755eko azaroaren 6an eta Montevideon (Uruguai) hil zen 1821eko urriaren 8an, 65 urte zituenean. Bien bitartean, bi aldiz ezkondu zen eta bere bizitzan gertatutako zenbait pasadizo ere zehatz dokumentatu ditu Andres Iñigok aldizkarian.

Argitsu elkartekoen azoka maiatzaren 22an Elgorriagan

Baztan-Bidasoko eskulangileak biltzen dituen Argitsu elkartekoen azoka antolatu du maiatzaren 22an, igandean Elgorriagan. 10:00etatik 14:00etara eskuz egindako eta landutako hainbat produktu ikusteko eta erosteko aukera izanen da plaza inguruan.

Miguelena SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25

Amezti zeharkarria, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticomiguelena.com

Maiatzaren 28an ospatuko dute Malerrekako Eguna

Donamariako Udalak 80 urte baino gehiago dituzten 25 herritar omenduko ditu

TTIPI-TTAPA

2019an ospatu zen Ezkurran Malerrekako Egunaren azken edizioa. Orduko hartan Donamariako herriari eman zioten 2020ko ospakizuna antolatzeko lekukoa. Bi urtez, ordea, ez da besta ospatzerik izan, baina berriz ere Malerrekako Eguna antolatu du Malerrekako Mankomunitateak eta maiatzaren 28an izanen da Donamarian.

Goizean goizetik hasi eta iluntzera arte antolatu dituzte ekitaldiak. 08:00etan Malerrekako gazteen mendi martxa abiatuko da Doneztebeko Merkatuko Plazan. Ibilbideari dagokionez, Bide Berdetik Ameztiara igo, Oizera jaitsi eta Donamarian bukatuko dute ibilaldia.

10:30ean, hasiko da eguna Donamariako plazan eginen duten harrera ekitaldiarekin. Bertan, Malerrekako herrietako ordezkariak hasiera emanen diote egunari. Donamariako Udalak 80 urtetik gora dituzten 25 herritarri omenaldia eskainiko die, eta omenaldi horrekin batera,

eskualdeko musikariak karririkak alaitzen hasiko dira.

Goizean zehar, 11:00etatik 14:00etara artisauak eta talogileak izanen dira plazan. Horrekin batera, bertzelako animazioak ere izanen dira. 11:00etatik 12:00etara dantzariak izanen dira plazan, eta 12:30etik 13:30era buruhandiak ibiliko dira herrian zehar itzulua egiten. Kirolak ere izanen du protagonismoa, Malerrekako aizkolarien apustua ere egingen baitute: Jazinto Ettxekonanea, Mikel Indakotxea, Jexux Etxeberría eta Jon Telletxea ariko dira aizkoran elkarren kontra desfioan.

14:00etan paella jatea izanen dute plazan. Denera 300 paella errazio egitea aurreikusten dute, eta horrekin batera postrea ere banatuko dute. Bazkariaren ondotik, 16:30etik 19:00etara Hauspolariek musika taldeak joko du plazan. 17:00etatik 19:30era txokolatada, umeentzako jokoak eta tailerrak izanen dira frontoian, eta buruhandiak ere aterako dira kalejiran. Ondotik, 19:00e-



2019an ospatu zen azkenekoz Malerrekako Eguna Ezkurran. UTZITAKOIA

tan joaldunek joareak astinduko dituzte, eta 19:30ean zozketa, mus txapelketako sari banaketa eta lekukoa pasatzeko ekitaldia egingen dituzte. Aurtengo edizioaren ondotik, heldu den urtean Oizek hartuko du Malerrekako Eguna antolatzeko ardura bere gain.

Eguna bukatzeko, 21:30ean herri afaria egingen dute Herriko Ostatuan, eta afarirako txartelak Donamariako He-

rriko Ostatuan eskura daitezke dagoeneko. 23:30ean Gabezin musika taldearen erromeria izanen da plazan.

Bertso jarriak ortziralean

Malerrekako eguna ez da datorren egunetan Donamarian izanen den kultur ekitaldi bakarra izanen. Malerrekako Mankomunitateak, eta Malerrekako Bertso Eskolak antolatuta, *Auskalo zeinek jarriak* bertso musikatuak aditzeko aukera izanen da ortziralean, maiatzaren 20an Jauregian. Unai Agirre eta Eñaut Agirre bertsolariak ariko dira kantuan, Imanol Kamioren musikak lagunduta. Emanaldia 19:00etan izanen da.

EGUN OSORAKO EKITALDIAK PRESTATU DITUZTE

Herritarren erantzun oparoa izan dute kultur egunek

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko asteburu kulturala izan zen apirilaren 29, 30, eta maiatzaren 1ekoa. Ortziralean talo jatea izan zuten, larunbatean 90 lagun elkartu ziren Ruper Ordorikaren kontzertuaz gozatzeko, eta igandean haurrentzako

txotxongilo emanaldia, txokolatada eta jubilotekean egingako eskulanen erakusketa izan zuten.

Ekitaldi guztiak izan ziren euskaraz eta doan eta, borondatea bildu zuten Malerrekandauden Ukrainako familientzako.



Igandean txotxongiloez gozatzeko aukera izan zuten haurrek. UTZITAKOIA



Maiatzaren 7an Iruñean egin zuten manifestazioa. EKINKLIK ARGAZKIAK

Eskualdeko haur eskolak baldintza «duinen» eske

Maiatzaren 2tik greba mugagabea daude Baztango, Berako, Leitzako eta Lesakako haur eskoletako langileak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 2tik, Nafarroako osoko 50 haur eskola baino gehiago greba mugagabea daude, tartean eskualdeko lau: Baztango Haur Eskola, Berako Mukixu Haur Eskola, Leitzako Itzaire Haur Eskola eta Lesakako Magale Haur Eskola.

Aldarrikapen argia dute: lan baldintzak hobetzeko eta ratioak jaisteko negoziaketa mahai baten parte izan nahi dute. Hilabeteak eman dituzte protestak egiten hezitzaileek, eta orain arte egindako mobilizazioek gobernuaren erantzunik ez zutela ikusita erabaki dute orain greba mugagabera jotzea. 0-3 urte zikloan lan egiten duten langileen lan baldintzak «duinak» ez direla salatu dute, eta egun dauden ratioekin ezin dutela kalitatezko hezkuntza bermatu.

Horregatik, eta aldarrikapen horiek denak ezagutarazteko, apirileko azken astean Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin, eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioarekin bildu ziren plataformako ordezkariak. Bilerak, ordea, ez zuen

esperotako eragina izan, Hezkuntza kontseilari Carlos Gimeno entzungor egin zela beren aldarrikapenei, eta plataformako kideen erranetan «harrotasunez» mintzatu zelako. Gauzak horrela, aste horretan hartu zuten maiatzaren 2an greba mugagabea hasteko erabakia.

Manifestazioa Iruñean

Haur eskoletako langileak greba mugagabea daudenean, hamarnaka izan dira langileei beren babesa adierazi dieten entitateak, eskolak eta norbanakoak. Horrez gain, maiatzaren 7an manifestazioa egin zuten Iruñean Nafarroako 0-3 plataformak deituta. 2.500 lagunetik gora bildu ziren Iruñeko karriketan, *haur eskolen duintasunaren alde* lelopean. Ordura arteko balantze «gazi-gozoa» egin zuten: «gazia, greba mugagabea egotea gogorra delako, eta gozoa, herritarrengandik jasotako erantzun positiboagatik». Maiatzaren 10ean beraien aldeko 30.000 sinadura aurkeztu zituzten Hezkuntza Departamentuan.



Berako Mukixu Haur Eskolako hezitzaileak udal ordezkariekin.



Baztango Haur Eskolako kideak Joseba Otondo Baztango alkatearekin.



Leitzako Itzaire Haur Eskolakoei deituta jendetza bildu zen elkarretaratzean.



Lesakako Magala Haur Eskolako kideak udal ordezkariekin.

Urte osorako programazioa prest du elkarteak

Elkarteko bazkideek egun bakarreko irteeretan eta bidaietan parte hartzeko aukera izanen dute

P. IRASTORTZA

Pandemiaren ondotik, normaltasuna ailegatu den honetan, elkarteko batzordeak heldu den seihiileko egutegia antolatu du ilusionaturik. Maiatzaren 4an egin zuten zuzendaritza batzordea, eta erabaki garrantzitsuak hartu zituzten 2022ko uztailetik abendura bitartereko egutegian. Ondorengo irteerak antolatu dituzte heldu den sei hilabetetarako:

Uztaila: Aralarra joanen dira eta amatxi-atautxien eguna ospatuko dute, eta itzuleran El Toro hotelean bazkaria izanen dute. Uztailan bertze irteera bat egingen dute Hernaniko Galarreta frontoira erremonte partida bat ikusteko. Horrekin batera, Oianume jatetxean bazkaria izanen dute.

Abuztua: Irteera bakarria programatu dute. Arantzazura ateraldia egingen dute, eta Urnietako Oianume jatetxean bazkaria egingen dute.

Iraila: Bi irteera antolatu dituzte. Alde batetik, Oiarzungo Gurutze Berri hotelean bazkaria izanen dute. Bertzetik, Portugalera bidaiaria antolatu dute. Zortzi egun eta zazpi gau emanen dituzte bertan, eta bertzeak bertze Fatima bisitatuko dute.

Urria: Urrian ere bi ekitaldi antolatu dituzte. Alde batetik, Benidormen 10 eguneko egonaldia egingen dute, eta bertzetik urteroko zita garrantzitsua izanen dute: bazkide eguna. Dantxarinean bazkaria izanen dute, eta omenaldia egingen diete elkarteko hainbat kideri.

Azaroa: Lodosara egun batego irteera antolatu dute, Benta Larrion jatetxean egingen duten bazkariarekin. Gainera, 10 eguneko bidaiaria izanen dute azaroan Tenerife eta Lanzarotera.

Abendua: Abenduan irteera bakarria izanen dute, Errioxako Santo Domingo de la Calzadara. Bertan egun pasa egingen dute, eta itzuleran Arabako Guardia herrian bazkalduko dute.

Bertzelako ekitaldiak ere bai Aipatu ekitaldiak ez dira Arkupeak elkarteak urte osoan antolatuko dituen bakarrak. Bazkideek ez dute atsedenerako tarte handirik izanen, bertzelako solasaldi, erakustaldi, ikastaro, eta denetarik eskaintza eskainiko duelako elkarteak. Ekintza guzti horien xehetasunak eta data zehatzak aurtengo urte hasieran banatutako 25. buletinean aurki daitezke.

Kontuan hartzeko ohar garrantzitsua ere zabaldu du elkarteak. Bazkideentzat ikastaro batzuk doan izaten dira, eta doan ez direnetan, beharpen potoloak izaten dituzte bazkideek. Norbaitek horren inguruko informazio zehatza jakin nahiko balu, Doneztebeko bulegoan jaso du beharrezko informazio dena.

IRTEEREZ GAIN, IKASTAROAK ETA SOLASALDIAK IZANEN DITUZTE



Yoga praktikatu zuten bazkideak, irakaslearekin. P. IRASTORTZA

Soinketa eguna egin zuten Donezteben bi urteren ondotik

P. IRASTORTZA

Bi urtez egin gabe egon ondotik, maitzaren 5ean ospatu zuten Donezteben elkarteko bazkide aunitzek hainbertze estimatzen duten gimnasia eguna.

12:00etan eman zioten hasiera egunari, eta dantza, pilates eta yoga taldeak izan ziren goizeko protagonistak. Rebeca dantza akademiako Ioanek gidatu zituen dantzariak eta bi saio eskaini zituzten. Ondotik Maite Sanz irakasleak gidatu zituen pilates ariketetan parte hartu zutenak, eta kirol ariketekin

bukatzeko gorputzaren eta arimaren kontrola, eta bien arteko elkarlana nola kudeatu erakutsi zuen Patxi Chocarro yoga irakasleak.

Goizean kirola egin ondotik, ohitura den bezala bazkaria egin zuten parte hartzaile denek. Doneztebeko Santamaria jatetxean elkartu ziren denak bazkaltzeko eta indarberritzeko, eta egunari bukaera emateko Joxeangel musikariaren eskutik, dantzaldia izan zuten bertaratutakoek. Jo eta fuego ibili ziren dantzan egun ederra bukatu arte.



P. IRASTORTZA

Giro ederrean Orion eta Zarautzen

Orio eta Zarautzera egin zuten elkarteko bazkideek urteko laugarren irteera apirilaren 28an. 172 bazkide bertaratu ziren lau autobusetan. Goizean Zarautzen paseoa eta bazkaria izan zituzten, eta arratsaldean Orio aldera joan ziren. Egundera pasa zuten bertaratutako denek.

Urdazubiko bestak 2022



LA KOSKA

JATETXEA

ongi pasa bestak!!

948 599 042 - URDAX



ETXELEKUA
ARDI LATXAREN GASNA

ongi pasa bestak!!

7. AK MUNDUAN

SALMENTA ZUZENA EGUNERO

Zugarramurdiako karretera

948 599 169 - Urdazubi

www.etxelekua.com



**JOXEMI
BENGOTXEA S.L.**

ongi pasa bestak!!

TEILATUAK | FATXADAK | ESKAILERAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK

LEIHOAK | ATEAK | ALTZARIAK | ZOLAK

ESKABAZIOAK | ESKOILERAK
LUR MUGIMENDUAK | HONDAKINAK

HARROBI MATERIALAK HORMIGOIAK

T. 660 501 584 | T. 948 592 111

Etxelekua | URDAZUBI (Na)

joxemibengotxea@yahoo.es | canterasaskape@gmail.com

Egitaraua

Maiatzak 25, asteazkena

20:00etan txupinazoa eta ezkila-jotzea plazan. Aperitifa. 21:30ean herri afaria Montxo erretegian, Hauspolariak alaiturik. Afariko txartela aitzinetik erosi behar da, maiatzaren 22a izanen da azken eguna.

Maiatzak 26, ortzeguna

11:00etan meza nagusia. 12:00etan ezkila-jotzea eta aperitifa txistulari eta dantzariekin. 16:30ean haurren jokoak. 21:30ean paella jatea Trikidantz taldeak alaiturik. Ondotik dantzaldia goizaldera arte.



**Urdazubiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !**





ZUBIONDOA

OSTATUA
AUTOZERBITZUA
OROIGARRIAK

Ongi pasa bestak!

(0034) 948 599 041

DANTXARINEA

Bazteretxea

JANARI-DENDA

benta

Tel.: 948 599048

Ongi pasa bestak!!

URDAZUBI



IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN
HORMIGOI ESTANPATUA
ZOLADURAK

KURRINKA CONSTRUCCIONES, S.L.

Barrio Luorlas, s/n - 31011 URDAX (Navarra)

Tel. (0034) 609 878 162 (Antonio) - e-mail: antonio@kurrinka.com

Tel. (0034) 600 438 438 (Angel) - e-mail: kurrinka@kurrinka.com

www.kurrinka.com



Maiatzak 27, ortziralea

12:00etan Trikuharri magia eta falko-
neria ikuskizuna, dohainik. 14:00etan
Ugarana emakumeen elkarteko bazkaria.
16:30ean haurrendako Conquis *Challen-*
ge-a. 18:30ean txokolatada haurrentzat.
19:30ean sagardotegi mugikorra eta
aperitifa denentzat plazan. Ondotik kon-
zertuak: Keinu, Lau Haizetara, Kamuts,
Kurkuma eta Ozpinduk.

Maiatzak 28, larunbata

14:30ean zikiri jatea Elutxa txarangak
alaiturik. Ondotik kalejira karriketatik bar-
na. 16:30ean haurren jokoak. 21:00etan
zingar jatea plazan eta Chuchin Ibañez
mariatxiek dantzaldia. 22:00etan Kon-
zertuak: Modus Operandi, La Topadora
eta DJ herrikoia.

Maiatzak 29, igandea

16:30ean aizkora apustua. Ondotik pilota
partida: Bengoetxea VI - Arretxe II/ Pas-
cual (Estella) - Azanza. Sarrerak 5 euro-
tan. Ondotik dantzaldia plazan Hauspo-
larien eskutik, pintxo eta freskagarriekin.
20:30ean boletoen zozketa.

Otorduetako txartelak salgai egonen dira
aitzinetik Indiano Baitan eta Montxon.



ARRETXEIA ESTANKOA

ZIGARRO PURUEN CAVA



ongi pasa bestak!



DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



**Karta bikaina eta hainbat prezio tiko
menuak kalitatezko produktuekin.**

IKUSI
KARTAK
HEMEN



ventabiok.com

Oihana Jatetxea +34 848 478 882
Lapitxuri Jatetxea +34 948 599 093
Otxondo Jatetxea +34 848 478 879

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING



IRIARTEA BENTA
Autozerbitzua · Ostalua · Larua...
DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventairteaa@hotmail.es



Pinturas Iñaki Alzuyet margoak
Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)
FATXADAK, BARNEALDEAK eta PLADURRA
ONGI PASA BESTAKI
pinturasalzuyet@yahoo.es



Mikelen-Borda BENTA - JATETXEA
ONGI PASA BESTAKI
GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU
Dantxarinea - URDAZUBI
T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com



CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA
ONGI PASA BESTAKI
URDAZUBI
Tel. 948 599 484 www.carrelagesbengotxea.com

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

«Herritar gehienek gogo aunitzekin hartuko dugun eguna izanen da zikiro eguna»

Jaione Perurena Azkarraga
Urdazubiko gazte batzordeko kidea

Duela hiru urte sartu zen Jaione Perurena urdazubiarra herriko gazteen juntan, «lagun batekin sartu nahi nuen, eta ikusten genuen sartzeko tokatu behar zitzaigula. Urte egokia iruditu zitzaigun biak sartzeko eta pausoa ematea erabaki genuen».

Normalean, «juntan bi urtez egoten gara, baina azken urte hauetan bestarik ospatu ez denez, bertze urte bat gehiago gelditu gara, sartu direnei erakusteko». Bortz gaztek osatzen dute batzarra, 24-27 urte artekoak; «hiru sartu dira aurtan. Urte batez bi sartzen dira eta hurrengoan hiru, txandatzuz, eta barnean daudenek sartu berriei erakusten diete». Juntaren lan nagusia inauteriak eta bestak antolatzea da, «eta tarteka mus txapelketaren bat, bertso saioen bat eta dirua biltzeko horrelako ekitaldiak egiten ditugu».

Bestetarako prest

Bestaren «antolaketa osoaz» ardura- tzen dira batzordeko gazteak; «hiru hila- bete lehenago has- ten gara dena pres- tatzen; publizitatea, kontzertuak, afariak, txartelak, jatekoak, bilerak... mila gauza daude egiteko, eta batzuk tontakeriak dira baina egin behar dira». Lanak denen artean banatzen di- tuzte, «baina azkenean denok denetik egiten dugu, bakoitzaren egoera des- berdina delako. Batzuk bertzeek bai- no denbora gehiago dute, ni adibidez aurtan lanarekin eta oposizioekin nago eta ez dut horrenbertzeko denborik, eta horren arabera moldatzen gara. Astean behin gelditzen saiatzen gara zer egin dugun eta zer egin behar den ikusteko». Lan handia da baina «gogotsu» antola- tu dituzte bestak aurtan; «duela bi urte antolatu genituen baina ezin izan geni-



tuen ospatu, eta joan den urtean ez ge- nuen deus egin, hortaz, inoiz baino gogo gehiagorekin antolatu ditugu aurtengo bestak». Herritarrek ere gogotsu ikusten ditu; «eta ez gazteak bakarrik, helduak ere gogoekin ikusten ditut eta zer pres- tatu dugun aunitz galdetzen digute».

Jarduerak herritar guztientzat

Egitaraua «denen gustura» egiten saia- tu dira, «haurrendako jokoak, bazkariak, gazteendako kontzer- tuak, helduendako mariatxiak, pilota, aizkora... denenda- ko zerbait ekartzen saiatzen gara beti». Kontzertuekin bere- ziki «iparraldeko eta hegoaldeko herrieta- ko gazteak» erakarri nahi dituzte larunba- tean, apustu handia egin baitute; Mo- dus Operandi eta La Topadora taldeak izanen dira oholtzaren gainean. «Mu- sikari garrantzia eman diogu eta gastu handiena izan dira, horregatik, kostu horiek estaltzen saiatu nahiko genuke, eta jendea etortzera animatu nahi dugu. Bazkariaren aldetik ez dugu kezkarik, jendea urtero etortzen da eta badakigu etorriko direla».

Bestetako ekitaldirik gustukoenari buruz



Ongi pasa bestak!



JATETXEA • ERRETEGIA

@asadormontxo f @

Ortziralean eta larunbatean
besta giroa!!

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK
- ESPEZIALISTAK ARRAIN
ETA TXULETOIAN



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

ONGI PASA BESTAK!



KUPELA SAGARDOTEGIA

Kupela
Cubierta



MIKALA OSTUA & PINTXOAK

MIKALA
BAR & SNACK



LUGARANA JATETXEA

LUGARANA
Restaurant



NUBA DANTZALEKUA



EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik

LANDIBAR CENTER: Barrio Dantxarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ +34 902 210 800 (es) | ☎ +33 972 104 020 (fr) | www.venta-peio.com



ORDUTEGI TABALA
FAMUEN BEHARRETARA
EGOKITZEN GARA
URTE OSOAN IREKIA

Gere itikien garagena bermatzen dugu,
bakoitzaren eritasuna errespetatuz,
inguru seguru eta goxo bat eskainiz.

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49



BAZKARIAK
AFARIAK
BOKATAK...

948 599 021
URDAZUBI



ONGI PASA BESTAKI

ongi pasa bestak!

948 599 267 • URDAZUBI

www.irigoienea.com • reservas@irigoienea.com

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI (Na)
ursunea@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.

Ongi pasa bestak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com



galdetzean, Perurenak argi du:
«larunbateko zikiroa. Heldu eta gazteak
elkartzen dituen bazkaria da, herritar
guziek elkar ikusten dugu eta txarangak
aunitz animatzen du gi-
roa. Herritar gehienek
gogo aunitzekin hartu-
ko dugun eguna izanen
da zikiro eguna».

**Bestondoarekin ere
lanera**

Besta eguna da, baina
baita lan egiteko egu-
na gazte hauendako;
«kristoren ardura da eta
erantzukizun dezente
ditugu. Tontakeriak dira

baina adi egon behar dugu, beti etortzen
da jendea galdezka, dena antolatu behar
da... eta guk prestatu dugunez, guk da-
kigu non dauden gauzak, noiz etorriko
diren eta dena. Jendeak
aunitz laguntzen digu
baina hala ere guk beti
hor egon behar dugu.
Baina gustura gaude,
ez da horrelako sakrifi-
zioa!».

**«Egitaraua
denen gustura
egiten
saiatu gara:
haurrendako
jokoak,
gazteendako
kontzertuak,
helduendako
mariatxiak...»**

Akitzeko, «jendea etor-
tzera animatu nahi dugu
eta eskerrak eman nahi
diogu Urdazubiko eta in-
gunuko jendeari laguntza
guztiagatik».



URBIA

Ongi pasa
bestak!

Jatetxea
Karta

Jantziak eta
baserako erabilerak



San Salvador 33, Urdazubi
948 599 131

Faustino ETXABE tallerak

Autoen konponketa

**BESTA ON
BATZUK PASA !!**

948 599 038
ZUGARRAMURDI

Josenea
Gasolindegia

JOSENEA
ZONE AUTO

**Gasolia etxera
eramango dizugu!**



- Erregai mota guztiak
- Autoa garbitzeko gunea
- Auto tailerra
- Denda
- Parkinga
- eta gehiago...



www.josenea.es

☎ 948 599 090 - 948 599 236 📍 N-121-B errepidea • DANTXARINEA



ZURE IZENA

OSTATU-JATETXEA

MENUAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK,
MUSUZAPIAK, BASO-AZPIKOAK...
Zure diseinuarekin pertsonalizatuak



HAUSTEN EZ DEN MENU ORRIA
Menu hautsezina erresistentzia handiko
materialekin egina dago.

Neurriak:
14x30 cm | 15x21 cm | 15x42 cm |
21x30 cm | 30x42 cm |
Papera: 400 g. hautsezina
Aukeran matea edo distiraduna



MENU ZABALGARRIA



KRAFT MENU ZABALGARRIA



PLASTIKOZKO MAHAI-OIHALA



MENU KATALOGOA



MENU ENKAPSULATUA



KRAFT PAPEREZKO
MAHAI-OIHALA



MAHAI-OIHAL HAUTSEZINA



PVCzko MAHAI-OIHALA

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publikatzea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tupi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU
AURRE
KONTUA

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

TXOKOA

Ile-apaindegia

Estitxu Mikelerizena

644 94 11 55

Pedro M^a Hualde, 38 behe | 31730 Irurita

Ongi pasa
bestak!

DOARQ

arkitektura bulegoa
maile & idala danberena olatxoa
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

ONGI PASA BESTAK

IRURITA

sukalDeco
estudio cocina y baño




www.sukaldeco.com
IRURITA 948 580 666

OLARI

jatetxea

info@restauranteolari.es | www.restauranteolari.es
948 452 254 | @olari_restaurante



Iruritako bestak 2022



«Herriko adin guzietako jendea elkartzeko aukera ematen digute bestak»

Iruritako gazte batzordea

Iruritan herriko gazteen taldeak antolatzen ditu bestak. 10 lagunek osatzen dute taldea, 18-29 urte bitarteko taldekideekin; «herrian gauden gazte kuadriletatik 2-3 pertsona aukeratzen ditugu, taldean elkartzen gara eta guk egiten ditugu presaketak. Taldea bi urtetik behin aldatzen da».

Prestakuntzetan murgilduak

Herriko besten «antolaketak osoak» arduratzen dira: «musika taldeak, otorduak, egunean zehar dauden jarduerak, egitaraua, edari eta janari eskariak, zerbitzarien kontratazioak, egindakoa herriarrei helarazteko ardurak...». Egin beharreko lanak bileretan banatzen dituzte, «eta normalean bakoitzak bere ingurutik jotzen du egin beharreko gauzak hautatzerako orduan». Guraso elkartearen laguntza ere izaten dute, «beraiek arduratzen baitira haurren egitaraua antolatzeaz, eta besta egunetan haiek egiten dituzte haurren jo-koak eta otorduak».

«Inauteriak pasatu eta hurrengo astean» hasten dituzte presaketak; «ordutik ia astero elkartzen gara, gauza aunitz egin beharra direlako. Astero bakoitzak zeregin batzuk hartzen ditu eta biltzerakoan egindakoa elkarbanatu eta zeregin berriak ezartzen ditugu».

Besta bereziak

Bereziak izanen dira aurtengo bestak, bi urteko geldialdiaren ondoren. «Bestak gogoz prestatu ditugu eta jendeak ere gogoz hartuko dituela uste dugu, herrian besta usaina sumatzen baita». Izan ere, koronabirusarekin «ez genekien bestak antolatu eta egiteko aukera izanen genuen edo ez, eta denboraz mugatuak ibili gara. Gureta-ko, bestak urteko datarik seinalatuenak dira, herriko adin guzietako jendea elkartzeko aukera ematen digutelako».

«Bestak gogoz prestatu ditugu eta jendeak ere gogoz hartuko dituela uste dugu, herrian besta usaina sumatzen baita»

Berrikuntza gisa, aurtengo Salbatore egunean pilota jaialdia egingen dute, «eta gainerako egunetako berrikuntzak ikusteko, bertara hurbildu beharko zarete...». «Denen gustuko bestak» antolatzen saiatzen dira, «nahiz eta badakigun hori batzuetan ezinezkoa dela». Era guzietako musika taldeak, dantzaldiak eta ikuskizunak antolatu dituzte, «denen gustuko zerbait egon dadin». Helburu nagusia argi dute; «herrian giro polita sortzea».

Taldearen lehenbiziko urtea da eta «ilusio handia» dute, badakite besta egunetan lana egitea tokatu zaileia, «baina ez dugu besta alde batera utziko». Argi dute ere «Iruritako bestetan ez dugula inolako eraso sexista, homofobo, arrazista eta halakorik onartuko. Denok ongi pasatzeko eskubide bera dugu!». Jendea antolatutako ekintzetan parte hartzera animatu dute; «bi urteren ondoren denok gogotsu hartuko baitiegu beste berriz ere martxa!».

«Gazte garaiko besten oroitzapen ikaragarri politak ditut; beti kanpoan egoten ginen»

Maite Oteiza iruritarra

«Bere herria maite duen pertsona» da Maite Oteiza iruritarra, «irakurtzea, paseatzea eta jendearekin egotea» gustuko duena. 1966an Mexikon sortu zen, «baina borts urterekin etorri nintzen Iruritarra eta beti bizi izan naiz hemen».

«Bestak aunitz aldatu dira»

Herriko bestak emozio handiz bizi izan ditu Oteizak eta gazte-tako denboren «oroitzapen ikaragarri politak» ditu; «garai horiek ez dira bueltatuko. Irufeko batendako San Fermi-nak direna ziren niretako Salbatore bestak. Orain gazteek bertze lehentasunak dituztela iruditzen zait, bidaiatzea, mendira joatea... baina lehen jendeak oporrak hartzen zituen herriko bestetan eta jendetza etortzen zen bezperatik».

Bestak antolatzen zituelarik, «plazan dantzaldiak egiten genituen eguerditan, baina aunitz garestitzen zitzaigun orkestra bat hiru-lau egunetarako ekartzen genuelako. Gosaria, bazkaria eta afaria eman behar genien eta hemengo etxe batean pasatzen zuten gaua. Gastuak murrizteko, dantzaldiak kendu behar izan genituen, baina arras politak izaten ziren, musikak beti ekartzen du marba eta alaitasuna».

Barrak ere ez ziren falta; «lñeztura elkar-
tea zegoen, Patxa irekia zegoen, Juanito Meoki ere irekia zegoen, barra paratzen genuen orain Arkupe dagoen lekuan, 'Peskaderian' ere barra irekia zegoen, Angela irekia zegoen, Olari ere... barra aunitz genituen eta jendea gainezka egoten zen herria». Gainera, «orain besta ortziralean edo larunbatean egiten da, baina lehen egunero ateratzen ginen. Oteizak kontatu digunez, «bestetan egu-
nero kanpoan afaltzen genuen. Lehen



Iruritan ez genuen inauteririk ospatzen eta bezperan egiten genuen moztorro eguna, bazkariarekin. Ortziralean Galartzara joaten ginen bazkaltzera 30 bat lagun, gero Arizkunera, Erratzura... itzulua egiten genuen. Gaur egun hori egitea pentsae-
zina da, kotxea hartzea

«Udan herriz herri ibiltzen ginen. Jende aunitz, kantuz eta giro onean, horiek ziren gure bestak. Orain gizartea aunitz aldatu da.»

ere... Gero Iruritarra bueltatzen ginen, larunbatean zikiri jatea eta igandean bazkaria lagunekin. Gainera, San Miguel elkarteak antolatua lasterketa ziklista izaten zen. Beti kanpoan egoten ginen. Orain barra guzietan musika paratzen da, baina lehen aunitzez gehiago kantatzen genuen. Plazan bonbo bat genuen eta txirula hartuta ostatuz ostatu ibiltzen ginen kantuz. Arras giro polita zen».

Udan «herriz herri bestaz besta» ibiltzen ziren, «guretako bestak kristorenak ziren; eta herri batean baino gehiagotan bestak baldin baziren, zein orkestra izanen zen begiratu eta horren arabera aukeratzen genuen. Horiek ziren gure bestak; jende aunitz, kantuz eta giro onean».

Gauzak «ikaragarri aldatu direla» dio Oteizak; «duela urte batzuk bestetan sozietatean bazkaltzen ari ginela gazte batzuk agertu ziren Ligako hondar partidua ikusi nahi zutela. Orduan konturatu nintzen gauzak zenbat aldatu diren, herriko bestetan futbola ikustera? Hori pentsaezina zen lehen. Gaur egun igandean gaueko hamarretan akitzen dira bestak, karpia hesten dute eta espaloian eserita dagoen gazteren bat bakarrik ikusten da... onartzea kostatu zait, baina gizartea aldatu da eta lehentasunak bertze batzuk dira».

Ongi pasa bestak!

Carpinteria

Lizasoain, S.L.

Erreformak - Leihak - Ateak - Eskailerak - Armairuak - Sokaldeak

948452077 - Zaldubia ind. - 31730 IRURITA

MIGUELENE

OBRAS Y CONSTRUCCIONES - ERAIKUNTZAK

Ongi pasa bestak!

IRURITA | T. 677 225 112

ARKUPE

Tokolatxak

1984

IRURITA
Dukea plaza
T 948580059
T 948452021
(Obredora)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupetokolatxak.com

Construcciones URBALLO, S.L.

hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromiserik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberriak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA
T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

J.P. AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



JOHN DEERE

GOES

CFMOTO

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



Errotulazioen eta diseinuen aritzen gara.
Egin nahi duzun proiekturako hainbat
proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori
gauzatzen lagunduko dizugu.

Kristalak tindatzea

Autoak errotulatzeko

Inprimatze digitala

3Dko kartel argidunak

Erarekailuak eta kartelak pertsonalizatzeko

Lokalak errotulatzeko

Kanpo seinaleak

Publizitate-olanak

Bista-bartelak, alberanak, etab.

☎ 948 58 09 77 ☐ 647 00 63 36

Pol. Ind. Zaldubia, 1

31730 Irurita (Nafarroa)



Egitaraua



Maiatzak 25, asteazkena

12:00etan txupinazoa, herriari buelta Baztango gaiteroekin eta erraldoiekin. **16:00etan** haurrendako jokoak. **17:00etan** haurren VII. trinkete pilota txapelketaren finala. Ondotik helduen XIII. trinkete txapelketaren finala. **18:00etan** haurren merendua. **18:30etik 20:30era** dantzaldia plazan Salaberrirekin. **20:00etan** ezkila-jotzea. **21:00etan** baztanzopak. **01:00etik 04:00etara** dantzaldia karpan Salaberrirekin.

Maiatzak 26, ortzeguna

09:30ean dianak. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** herriko dantzariak. Ondotik luntx herrikoia. **16:45ean** haurren pilota finaleko sari banaketa frontoian. **17:30etan** Pilota jaialdia frontoian. **19:00etan** Menditararak plazan. **21:00etan** mutildantzak. **00:30etik 04:30era** dantzaldia Bizpiru Pelau taldearekin.

Maiatzak 27, ortziralea

09:00etan dianak baserrietan. **11:00etan** haurrendako puzgarriak frontoian. **13:30ean** haurren bazkaria karpan. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Olarin. Gazte bazkaria Jauregiarten. **15:00etan** haurrendako puzgarriak. **18:00etan** txokolatada. **18:30ean** kalejira erraldoiekin. **20:00etan** dantzaldia Gabezin taldearekin. **21:00etan** mutildantzak eta larrain dantza. **22:00etatik 01:00etara** Burrumba elektrotxaranga. Ondoren Tirri&Tery karpan. **00:30etik 03:30era** dantzaldia Gabezin taldearekin plazan.

Maiatzak 29, igandea

Goizean kalejira erraldoiekin. **18:30ean** aizkora desafioa, Joxean Etxeberria Jon Rekondoren aurka. Ondotik Lau Haizetara taldea. Bestak akitzeko Gaixoa gu.



Maiatzak 28, larunbata

10:00etan dianak Tuku-tuku txarangarekin. **12:00etan** kalejira erraldoiekin. **14:00etan** zikloa txarangak alaiturik. **18:00etan** herriari buelta txarangarekin. **20:00etan** dantzaldia Biziraun taldearekin. **21:00etan** mutildantzak eta gaitak. **00:00etatik 04:00etara** DJ Endara karpan. Dantzaldia Biziraun taldearekin plazan. Ondotik DJ Aimar.

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 • T. 948 58 14 18

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

HORMANN

banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK

Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkia
babestu
toldo batekin





Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



JUANKAR MIRANDA LEKUJONA
EROSKI - ELIZONDO

«Bertako produktuak ditugu harategian eta produktu freskoak egunero arraindegian»

2016ko ekainean ireki zen Elizondoko Eroski. Juankar Mirandak hainbat urte daramatza Eroskirekin lanean, «hemengo nagusiek uztean niri eskaini zidaten hartzea, eta pausoa ematea erabaki nuen». Negoziak ongi funtzionatzan du eta «arras kontent» daude. «Bertako produktuak» saltzen dituzte; «Nafarroako produktuak ditugu, harategian bertako haragia eta Esarten egindako janariak ditugu, eta arraindegira produktu freskoak ekartzen dizkigute egunero».

Eskaerak etxeetara eta landetxeetara dohainik eramateko zerbitzua ere dute. Elizondon landetxeekin «lan aunitz» egiten da eta Aste Santuan, udan eta Eguberrietan «jende pila bat ibiltzen da, eta turismoak aunitz laguntzen digu».



IÑAKI ARIZTIA URRIZA
URDZUBIKO UDALA

«Turismoa guttina berreskuratzen ari gara eta bisitari aunitz ditugu»

Urdazubiko turismoa «guttina berreskuratzen» ari dela dio Iñaki Ariztia alkateak; «bisitariak bueltatzen hasi dira berriz ere eta aunitz hobetu da, ez gara pandemia aitzineko egoerara bueltatu baina horretan gaude». Lezeak, herriko museoa eta arte erakusketa, Trikuharri parkea eta bentak dira «gehien bisitatzen dituzten lekuak». Bentetan, «bisitarien %90 inguru Frantziakoak dira», baina herrira, berriz, «leku guzietatik etortzen zaizkigu; Nafarroatik, Kataluniatik, Madrildik...». Ariztiaren

ustez, Urdazubik duen akatsik handiena «herriarena den jate-txe edo ostatu baten falta» da; «denak pribatuak direnez, jenderik ez dagoelarik ixtea erabakitzen dute eta tristea da urtaririla edo otsailean dena itxita aurkitzea».



Urdax-Urdazubi
Dantzarinea
www.urdax-urdazubi.com



OIER ZULAIKA ARAKISTAIN
DONEZTEBEKO UDALA

«Etorri eta gozatu herriaz eta inguruaz, denok dugu tokia Donezteben»

Doneztebe eta bere ingurua «toki ederra» direla dio Oier Zulaika zinegotziak. «Gure herrira datorrena egun pasa etortzen da normalean, karrika, komertzio eta parkeetan ibiltzera edo inguruko bide eta mendiak ezagutzera. «Herri-gunea» bisitatzen dute batez ere; «asmo horrekin ari gara erdigunean eragin nahian, ibiltari eta ibilgailuen hartu-emanak goxatu nahian». Doneztebe eta Malerreka marka «indartu» nahi dute, «bisita gidatuekin, laxoa gure kirol

deigarria ezagutaraziz, bertze ekitaldiak landuz... etorri eta gozatu herriaz, bere denda, ostatu eta jatetxez, inguruko bide bazterrez, familia giroan, lagun artean, jai egitera, kirola egitera... denok dugu tokia Donezteben».



AYUNTAMIENTO DE DONEZTEBE/SANTESTEBAN



SARAKO TURISMO BULEGOA
SARAKO UDALA

«Garrantzitsua da hemengo baloreen eta hizkuntzaren transmisioa»

Sarako turismoa «biziki ongi» dago, «osasuna badu». Jende aunitz joaten da turismo bulegora «zer egin eta ikusten ahal den galdetzeko». Leku bisitatuenean artean daude Larhango tren, lezeak, eliza, Ortillopitz etxea, euskal pastelaren museoa, abereen parkea... «eta mendizale aunitz etortzen dira ibilaldiak egitera». Bisita gidatuak egiten dituzte ekainetik buruilerara arte, astelehenetan ez kila-dorrea ezagutzeko eta asteartetan kontrabandisten bidea.

Sarako kulturari eta historiari buruzko azalpenak ere ematen dituzte. «Hemengo bizi-moduaren, baloreen eta hizkuntzaren transmisioaren garrantzia nabarmentzen ditugu, lehen bezala bizi gara, baserriari lotuak».



Mendialdeko Azoka Ibiltaria ekainaren 5ean izanen da

10:30etik 14:00etara herritarrek eta kanpokoek guztira 28 postu jarriko dituzte

TTIPI-TTAPA

Arribe, Lekunberri eta Gorritiren ondoren, ekainaren 5ean Goizuetak hartuko du Mendialdeko Azoka Ibiltariaren lekukoa. Egun horretan, ekoizleen eta artisauen topaleku bilakatuko da herria. 10:30etik 14:00etara eguraldi ona egiten bada kanpoan jarriko dituzte postuak, eta txarra baldin bada, frontoian.

Guztira 28 postu izanen dira eta tartean, hamar bat herrikoak: Maingenea, Mantxintxa tiki, Domiña, Auxonborda, Jose Antonio Lujanbio, talogileak, Txirikorda [osagarriak eta bi-



lazko azokako irudia. FELIX LOIARTE

txiak], Belen [margo lanak], Arrate [gantxiloa], Garbiñe [egurrezko tailu lanen erakusketa]... Elikagaien eta artisauen lanen artean, aukera zabala izanen da.



Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten Txinoko festetan. FELIX LOIARTE

Giro polita eta herrikoia izan dute Txino auzoko festetan

TTIPI-TTAPA

Zubiondo Tabernako familiak antolatuta, maiatzaren 6an eta 7an ospatuko zituzten Txinoko festak. Ostiraleko mus txapelketan Oier Apezetxea eta Oihán Zugarramurdi izan ziren irabazleak, Fermin eta Austin Narbarteri finala irabazita. Larunbat eguerdian

Martin *Xauxarrek* bota zuen txupinazoa, Fernando *Polloren* laguntzarekin. Arratsaldean Xabier Legarreta eta Unai Agirrek egin zuten bertso saioa, giro ezin hobean, eta afari batekin eman zioten bukaera, batzuk goizaldera arte luzatu bazuten ere. Dragoiak ere ez zuen hutsik egin.

40 bikote VI. Umore Ona Pilota Txapelketan

Abian da VI. Umore Ona Pilota Txapelketa. Maiatzaren 13an hastekoa zen lehia, eta ekainaren 17ko asteburura arte, bost kategoriatan banatuta, Nafarroako eta Gipuzkoako 16 klubetako 80 pilotarik parte hartuko dute. Finalak ekainaren 17ko asteburuan jokatuko dituzte.

Eraso sexisten kontrako protokoloa lantzen

Eraso sexisten kontrako protokoloa egiteko bidea hasi dute udalak eta gizarte zerbitzuen mankomunitateak. Herritarren parte hartzearekin maiatzean bi saio egitekoak zituzten udaletxeko ganbaran eta ekainaren 28an, 17:00etan, toki berean aurkeztuko dute protokoloa.



ESTEBAN AROZENAK UTZITAKOA

Ehun lagun garagardo festan

Goitiki haurtzaindegia alde, garagardo festa egin zuten apirilaren 30ean eta Umore Ona elkarteak goraino bete zen; txartel guztiak salduta ehun lagun elkartu ziren, eta batzuen kasuan goizaldeko ordu txikiak arte luzatu zen mahaiko egonaldia. Zozketako saritua, berriz, Julen Arozena izan zen.



FELIX LOIARTE

'Urak aske' dokumentalaren aurkezpena

Enobietako urtegiaren hustea jasotzen duen *Urak aske* dokumentala aurkeztu zuten apirilaren 29an. Dokumentala ikusteaz gain, Arturo Elozegi ekologian katedradunak azalpenak eman zituen, eta udaletxeko ganbara jendez bete zen..



Haurrak eta gaztetxoak dantza ikastaroan. ENERITZ IRAOLA

Igeriketa ikastaroa antolatu du guraso elkarteak

Hainbat irteera ere egingo dituzte datozen asteetan hurrek eta gurasoek

ENERITZ IRAOLA

Ekainerako igeriketa ikastaro intentsiboa antolatzen ari da guraso elkarteak. Hau idazterakoan azken xehetasunak lotzen ari dira, baina Tolosa-ko Usabal kiroldegian, bi astez, hamar saioko ikastaroa da antolatzen ari direna. Herriko haur guztiei zuzenduta

dagoen ikastaroa da eta bi taldetan banatuko dituzte ikasleak, HHkoak batetik eta LHkoak bestetik. Xehetasun gehiago Whatsapp bidez emango dituzte.

Dantza ikastaroak

Udaberri giroan udari begira ere jarriak dira. Festetako

dantza emanaldia prestatzeko dantza ikastaroak hasiak dituzte haur eta gaztetxoek.

Igaro Balda ariko da aurten irakasle lanetan eta ostirale-tan izango dituzte klaseak; aste batean denek elkarrekin biltzen dira eta bi taldetan adinaren arabera banatuta hurrengoan. Eskertzekoa da Igarok erronka hau bere gain hartzeko erakutsi duen borondatea.

Irteera gehiago

Eta ikasi eta trebatu bakarrik ez, gozatzeko ere tarteak hartuko dute gurasoek eta hurrek. Hainbat ateraldi antolatu dituztelako datozen hilabeteetarako. Maiatzaren 14an egitekoa zuten lehenbizikoa, Igantziko Irrisarri Landera. Maiatzaren 28an, berriz, Leitzaan antolatu dituzten eskolarteko topaketetara joatekoak dira.

Ekainean ere badute kanporako asmoa: ekainaren 11n Uitzira joango dira Kaskamotz egunean parte hartzera eta aurrerago Elorrioko upategi batetara irteera ere egitekoa dute txakolina nola egiten den ikusi eta inguruak eza-gutzeko. Ez dute aspertzeko astirik izango!

Herri lanetarako langile bat gehiago kontratatu du udalak

Udalak jakinarazi duenez, maiatzaren 9an hasi eta sei hilabetez, herri lanetan aritzeko langile bat gehiago kontratatu du udalak. Gizarte Zerbitzuen bidez heldu da eta gaur egungo herri langileak denari bere zereginetan lagunduko dio.

Legez kanpoko erreketak egitea debekatua dago

Mendian baimendutako egunetatik kanpo erreketarik ez egiteko eskaera ere egin du udalak. Azken aldian bi txandatan gertatu dela adierazi du eta basozainek udalera jotzen omen dute erantzukizunak eskatuz. Udalak azpimarratu nahi izan du bada-kiela eguraldia tarteko aurten ez dela erreketak egiteko aukera gehiegirik izan, baina gaineratu duenez, «inolaz ere ezin da erreketarik egin baimendutako eremuetatik kanpo eta aurretik abisurik eman gabe».



J. INZIARTE

Sasoiko segitzen du Leire Baraibarek

Apirilaren 30ean Zubirin jokatu zen Nafarroa Xtrema proban, 35 kilometroko lasterketan, bigarren postua eskuratu zuen Leire Baraibar herritarrak. Oihane Kortazarren atzetik iritsi zen helmugara eta beterranoen kategorian lehenbizikoa izan zen.



UTZITAKOIA

Eskolako lagunak elkartuak

Landa eremuko eskolak bideo bat prestatzen ari dira eta bertan parte hartuko dute Nazabal eskolakoek. Horren harira, berriki bideoa grabatu eta argazkia atera dute eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek eta ordukoa da irudi hau.

Indartsu dator hilaren 23an hasikoden kultur aroa

Hitzaldiak, erakusketak, bertso sariketa, azoka, lehiaketak... Egitarau zabala Sagardo Egunarekin borobilduko dute

JUAN MARI BARRIOLA

Ate joka dugu aurtengo Kultur aroa. Leitzeko Kultur Taldeak eta herriko beste hainbat eragileren artean, proposamen zabala prestatu dute maiatzaren 23tik garagarriaren 11ra. Kultur aroari hasiera eman aurretik, igande honetan, maiatzaren 22an, Jon Maiaren *Kantu Bat Gara* kontzertuaz gozatzeko aukera izanen da, 19:00etan Herri Aretoan.

Hasteko erakusketak eta hitzaldiak

Kultur aroaren barne, berriz, maiatzaren 23an habitat erakusketa zabalduko dute Herri Aretoan. Euskal Herriko historiaren begirada interesgarri bat da, Nabarralde Fundazioak landutakoa. Egun horretan, 19:30ean Beñi Agirrek aurkeztuko eta azalduko du, eta ondoko egunetan eskolako ikasleek eta irakasleek bertara joateko aukera izanen dute.

Maiatzaren 24an, *Lagunartean hika eta toka, eta noka?* saioa izanen da 19:30ean aretoan, Fernando Oiarzun hita-noari buruz osatzen ari den liburuaren aurrerapen moduan. Maiatzaren 25ean, *Ukrainan zer ari da gertatzen?* hitzaldia emanen du Txente Rekondok, 19:30ean, eta biharamunean, 26an, Xabier Irujok Beotibarko kondairaren egiak azalduko ditu aretoan, 19:30ean.

Mingaño Saltsan sariketa

Aurreko aldizkarian adierazi bezala, maiatzaren 27an Mingaña Saltsan bertso sariketako finala jokatu dute Torrean. 21:00etan hasita afaria ere izanen da.

Leitzaketa eta artisau azoka

Hilabetea borobiltzeko, hilaren 28an, Leitzaketa lehiaketa azkarra egingen dute aretoan, 18:30ean, eta 29an artisau azokak hartuko du lekukoa goiz osoan plazan.

Aurkezpen gehiago

Garagarriaren 1ean, Itziar Azpiroz herritarrak eta Koke Ardaizek landutako *Naturaren leihoak* erakusketa zabalduko dute aretoan. Astegunez 18:00etatik 20:00etara ikusgai izanen da, eta larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Ez da garagarriaren leko hitzordu bakarra izanen. Independentziarako Indarra dinamikaren baitan, Miren Zabaleta EH Bilduko Nafarroako arduraduna eta Floren Aoiz Iratzar fundazioko zuzendaria *Nafartasuna Europako burujabetza aro berrian* gaiaz ariko dira, 19:00etan Aurrera elkartean. «Europar sortu daitekeen erabakitze eskubidearen eta herrien burujabetzaren aldeko aldarriak Nafarroan eta Euskal Herrian izan ditzakeen ondorioak» eta «azken hamarkadan nafartasunak izan duen bilakaera» aztertuko dituzte.

Garagarriaren 9an, berriz, Mikel Illarregik *Leitza oinazpian* bere lana aurkeztuko du Herri Aretoan, 19:00etan.

Sagardo Eguna

Garagarriaren 11n, Jeiki abesbatzak Txillidalekun emanen duen saiora joateko autobusa antolatu dute eta 19:00etan, XII. Sagardo Eguna hasiko da, bi urtez egin ez dena pesta giroan bukatzeko.



Herritarren interesa piztu zuen EBKren aurkezpenak. EBK

Energia Berriztagarrien Komunitateak herritarrei atek zabaldu dizkie

JUAN MARI BARRIOLA

Hilabetetako lanaren ondoren, Energia Berriztagarrien Komunitatearen sustatzaileek kooperatiba bat sortzeko proposamena luzatu zuten maiatzaren 6an Herri Aretoan egindako aurkezpenean.

Udalaren eta Goienerkooperatibaren laguntzarekin, aurrerak aztertu dituzte eta ederki azaldu zuten egitasmoa jendez bete zen aretoan. Helburua energiaren alorrean burujabetza lantzea da, kontsumitzen dugun gehiena kanpoan ekoizten baita eta beraz, aberastasuna kanpora joaten da. Eta

egungo sistemaren ondorioz, larrialdi egoeran gaude.

Hasiera emateko, kiroldegia- ren gainean eguzki panelak jarriko dituzte eta horiekin energia kopuru handia lortuko litzateke bazkide egingen liratekeen herritarrentzako. Baina aldi berean, aukera gehiago aztertu eta landu nahi dituzte. Kooperatiba bat sortu eta martxan jarri nahi dute, baita talde sustatzailea handitu ere.

Gaian interesa duen herritar orok atek irekita ditu eta Internetez (www.leitzekoebk.eus) edo bi liburu dendetan izena eman daiteke.



NAFARROAKO GOBERNUA

Kristina Saralegi gogoan

Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren ekimenez, *Ideiak loratz* erakusketa inauguratu zuten maiatzaren 2an Iruñean, eta irekiera ekitaldian Kristina Saralegi omendu zuten. Itziar Gomez kontseilariak oroigarria eman zion Joxe Manuel Huizi alargunari.

14 bikote Plazako XXIX. Pilota Txapelketan

Reparto egunarekin bat eginez, finala abuztuaren 6an jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Pilotariek eta pilotazaleek gogotsu hartu dute Plazako XXIX. Pilota Txapelketa. Maiatzaren 7ko asteburuan jokatu zuten aurreneko jardunaldia eta repartito egunean bukatuko da lehia. Abuztuaren 6an hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partida eta final haundia jokatu dituzte. Aurretik, maiatzeko, ekaineko eta uztaileko asteburuetan zazpi jardunaldi, final-laurdenak eta finalerdiak izanen dituzte.

Izena eman duten hamalau bikoteekin bi talde osatu dituzte eta Mikel Iriarte antolatzailearen hitzetan, «batzuk plazan sekula jokatu gabeak dira, gazteak animatzen ari diren seinale». A taldean, Hego Txopere-na-Luken Casares, Mikel Zabaleta-Aitor Arraras, Andoni Zabaleta-Kevin Vera, Eden Gastea-



Plazako txapelketako irudia. MIKEL IRIARTE

rena-Arkaitz Olano, Iñaki Alduntzin-Unai Olano, Markel Barriola-Ekaitz Narbarte eta Mikel Martinez-Eñaut Goikoetxea bikoteak ari dira; eta B taldean, berriz, Mikel Zabaleta-Eki Mateorena, Miel Olano-Iñigo Alduntzin, Imanol Urkiola-Xabier Jaunarena, Ibai Bengoetxea-Iñaki Zabalo, Ioanes Ceballos-Mikel Iriarte, Ander Alduntzin-Anton Abruza eta Zuhaitz Beloki-Garikoitz Huizi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Preferente mailara igo da Aurrera

Nafarroako erregionaleko lehen mailako bere multzoan aurrenekoa izan ondoren, beste multzoetako batean buru izandakoaren kontrako bi partidak irabazi zituen Aurrerak, eta hala, aspaldiko partez Preferente mailara bueltatzea lortu du. Giro ederrean ospatu zuten igoera.

Señora sariketako finala ekainaren 4an Herri Aretoan jokatuko dute

TTIPI-TTAPA

Abian da II. Señora sariketa, emakumeen eta hegemonikoak ez diren gainontzeko identitateen ikusgarritasuna bilatzeko asmoz, hainbat bertsolarik eta bertsozale feministek antolatutako lagunarteko txapelketa. Bi kanporaketa eta finala ditu aurtengo edizioak, eta finala Herri Aretoan izanen da, ekainaren 4an, 17:00etan. Sarrerak www.bertsosarrerak.eusen eros daitezke.

Haur, Guraso eta Eskolen Topaketa maiatzaren 28an izanen da

TTIPI-TTAPA

Berdintasuna, laguntasuna, festa giroa, konpartsa, jokoak, tailerrak, musika... Hori dena uztartuz, maiatzaren 28an Leitza egingen dute Aresoko Nazabal eskolako, Goizuetako Andres Narbarte Xalto eta Leitza Erleta eskolako haurren, gurasoen eta eskolen topaketa. Pandemia tarteko egin duten geldialdiaren ondotik, indartsu dator aurtengo edizioa. Egun osoko pesta izanen da.



Goizean herrian barna ibilbide gidatua egin zuten. ATEKABELTZ HERRIGUNEA

Herri borroken ibilbideari errepasoa egin diote Atekatu egunean

TTIPI-TTAPA

«Eguna oso polita atera zen». Halaxe laburbildu du Ateka-beltz Herriguneko Garazi Zabaletak maiatzaren 7an egingandako Atekatu eguna.

Goizean, herrian barna ibilbide gidatua egin zuten: «Azken hamarkadatan Leitza izandako herri borrokak eza-gutzeko aukera izan genuen: Maxurrenea herrintzat mugimendua, 90ko hamarkadako Ttamtaka emakume taldea, Kornitako parke eolikoaren kontrako mugimendua, gaztetxe zaharra eta Ateka-beltzen historia... Argazki zaharrak ere

bildu genituen. Hamabost bat lagun elkartu izanen ginen eta oso polita izan zen».

Eguerdiko bazkarian 30 bat lagun bildu ziren; Illarregi anaiek bertso saioa egin zuten, eta arratsaldean mahaiaren bueltan kontu kontari segitu zuten. 20:00 aldera hasi zen Ibil Bedi taldearen kontzertua eta jende dezente bildu zen. Afari-meriendaren ondoren Pelax taldeak hartu zuen lekuko eta kontzertua eman zuten. Eguna borobiltzeko Telmo Trenor eta Gela DJak aritzekoak ziren, baina azkenean Üzkülüz DJak ordezkatu zituen.



Uriarte mendi lasterkaria da eta hurbiletik ezagutzen du EHME; aurreneko ediziotik antolatzaile lanetan dabil.

«EH Mendi Erronka 400 boluntariok eginiko lanaren emaitza da»

IRAITZ URIARTE INTXAURRONDO EH MENDI ERRONKAKO ANTOLATZAILEA

560 bat lasterkari bilduko dira ekainaren 4an Leitza hasi eta bukatuko den Euskal Herria Mendi Erronkan. Bi modalitate izanen dituzte: 67 kilometroko luzea bat eta erreleboka bestea

G. PIKABEA

«Tiki-taka, tiki-taka, badator EHMEren VIII. edizioa». Bi urteko geldialdiaren ondoren, antolatzaileek halaxe iragarri zuten joan den udan; Euskal Herria Mendi Erronka ekainaren 4an egingen dela. «Ilusioz eta indarrez» egin dute bidea geroztik, eta azken txanpan sartuak dira dagoeneko. Iraitz Uriarte Intxaurren leizarrak kontatu dizkio xehetasunak TTPI-TTAPARI, eta argi utzi nahi izan du mendi erronka lasterketa baino gehiago dela, besteak beste, «ofizialtasunaren, euskararen, euskal mendizaletasunaren... aldeko aldarria». Baina bereziki «auzolan erraldoia» dela nabarmendu du:

«Hau ez da zortzi erok antolatzen duten lasterketa bat, hau 400 boluntarioren lana da».

Aurtengoa zortzigarren edizioa du EH Mendi Erronkak. Nolakoak izan ziren hasierako urratsak?

Orduko oroitzapen oso onak ditut. Bizkaitar bat Leitza etorri zen eta hiru bailara lotu gintuen: Leitza, Lekunberri-Larraun eta Araitz-Betelu. Duela hamar urte, hasi ginenean, askokez genuen elkarezagutzen,

eta orain adiskidetasun handiko taldea osatu dugu. ESAITekin [Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea] hasi ginen, mendi lasterketen inguruan ofizialtasuna lortzeko, eta ESAIT desagertu zenean, filosofia horrekin segitzea erabaki genuen. Horregatik urtero euskararen alde, euskal mendizaletasunaren alde... egin duen norbait omentzen saiatzen gara. Gure argitalpenak ere bide horretatik

**«LASTERKETARI
ESKER HIRU
BAILARA ELKARTU
GARA»**

**«AUZOLANA
MANTENDUZ IDEIA
BERRIAK GARATU
BEHAR DIRA»**

doaz, kirola bai, baina aldarrikapena ere bai. Eta bide batez, neurri batean, eskualde honentzat aberastasun iturri ere bada.

Nolako bilakaera izan du?

Oso bilakaera polita. Aurreneko bi urteak non geunden kartzeko eta lasterketa bat zer zen ikusteko izan ziren. Taldean bi edo hiru lasterkari ginen, eta gainerakoek ez zuten mundua ezagutzen, eta hasierako bi edizioak nolabait lasterketa finkatzeko izan ziren. Geroztik, urtetik urtera gauzak bestelako kontzientziarekin ikustera pasatu gara. Adibidez, azken bost urteotan plastikoaren inguruko kontzientzia barneratu dugu, azken bi urteotan emakumezkoen parte hartzea bultzatzeko iniziatibak egin ditugu eta aurtengo Bartzelonako gonbidatu berezi bat izanen dugu. Marta Roman gonbidatu dugu, mendian ere transen mundua ezagutarazteko. Urtero zerbat berria sartu eta aldarrikapen bat egin saiatzen gara.

Lasterkarien egutegian ongi finkatu den lasterketa dela uste duzu?

Nik uste dut baietz. Aurtengoa kenduta, urtero dortsal guztiak agortu dira, 800 dortsal. Aurten gutxiengo izanen dira, 560 inguru, baina lasterkarien artean finkatua dago. Gainera gehienak urtero-urtero errepikatzen dutenak dira, eta horrek gustatzen zaiela esan nahi du.

Inoiz pentsatu al zenuten horrelako arrakasta lortuko zuenik?

Ez, inondikinora ere ez. Bigarren urtean lasterkarien profila ikusita, distantziarekin eta desnibelarekin asmatu genuela konturatu ginen. Maratoi bat baino luzeagoa eta ultra bat baino laburragoa da, erdibideko bat, maratoietatik ultretara salto egin nahi dutenentzako aproposa. Arrakastaren gakoetako bat distantzia da, baina baita boluntarioen lana ere. 400 boluntario ibiltzen dira lasterketan. Auzolanean egin da eta oso oso pozik gaude boluntarioen lanarekin. Lasterketa bukatutakoan edo sare sozialen bitartez, lasterkariak beti nabarmen-tzen dute boluntarioen lana.

Boluntarioen lana bai, baina horren atzean bada lantalde bat...

Bai, zortzi laguneko lantaldea gara, eskualdeka antolatua. Koordinazioa Leitza egiten dugu, boluntario gehienak leizarrak direlako eta lasterketa hasi eta bukatu Leitza egiten delako, baina Araitz-Betelu eta Lekunberri-Larraungoen lana alde batera utzi gabe. Bilarako giroa sortu nahi genuen, eta lortu dugu. Elkarbizitzarako eta elkarlanerako garrantzitsua da.

Noiz hasten zarete antolatzen?

Hasieran askoz gehiago kostatzen zitzaigun, eta orain errazago eta azkarrago egiten dugu. Irail edo urri aldera hasten gara prestaketekin, eta azken hiru hilabeteak gogorak izaten dira: lasterkariei erantzun behar zaiela, boluntarioak mugiarazi behar direla, erosketak kudeatu behar direla... Hala ere, bereziki gogorrena azken hilabetea izaten da. Ez dago egun bat bera ere mezurik gabe.

Mendi lasterketak modan daude.

Mailara eusteak ikararik sortzen al dizue?

Lasterkariak erabakitzen dute zein lasterketa egin eta zein ez. Garbi dago berritu beharra dagoela, gure filosofia mantenduz eta lasterkariak mimatu, baina eraldatu beharra dago. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu lasterkariak mendi erronka boluntarioen lana dela jakitea, horren atzean etekin ekonomikoak nahi dituen enpresarik ez dagoela ikustea. Lasterkariak nabaritzen dute, eta auzolanaren filosofia mantendu nahi dugu, baina arrakasta izaten jarraitzeko ideia berriak garatu behar dira.

2020an eta 2021ean ezin izan zen mendi erronkarik egin. Berezia izanen da aurtengoa?

Bai. Bi urteren ondoren, horrelako lasterketa bat berriz martxan jartzea asko kostatzen da. Indar asko falta genuen, eta neurri batean gogoa ere bai. Pandemiak nekea sortu digu, eta boluntarioen artean ere sumatu dugu. Baina normaltasunera bueltatzeko horrelako ekitaldiak berrartu behar dira, jendea akti-



Uriartek ateri egitea nahi luke, boluntarioek eta ikusleek ere gehiago disfrutatzen.

batzeko, elkarlana eta auzolana bultzatzeko beharrezkoak dira.

Aurtengoak badu berrikuntzarik?

Aurtengoa berraktibatzen izanen da. Hurrengo urterako aldaketa handiak egiteko asmoa dugu, baina momentuz ez dugu deus aurreratuko...

Otsailaren 1ean ireki zenuten izen ematea. Nola joan da?

Urtero bezala, aurreneko egunetan oso ongi joan zen eta 500 bat lasterkari apuntatu ziren. Lasterkariak oso gogokoa dute aurreneko egunetan apuntatzea, eta gero, banaka-banaka kopurua igotzen da. Aurten 560 lasterkari baino gehiago edukiko ditugu Leitza plaza eta oso pozik gaude.

Lasterketan bi modalitate dira: 67 kilometrokoa eta erreleboka (38,8 km + 34,2 km), eta azken modalitatean gutxienez bikoteko bat emakumezkoa...

67 kilometrokoan 500 lasterkari izanen dira eta erreleboka 60. Errelebo lasterketak emakumezkoen parte hartzeari bultzada handia eman dio. Aurre-

tik emakumezkoen parte hartzea % 5-6koa zen, eta errelebo lasterketarekin emakumezko gehiago ikustea eta mendiko distantziei zieten ikara kentzea lortu dugu. Gaur egun, % 15-16 dira eta oso lorpen handia da.

Eta tartean leizarrak...

30 bat leizari izanen dira, tartean bost emakumezko. Gainera, ez diran normalean mendian ibiltzen direnak, erronka gisa hartu dute eta ilusioz daude. Guretzat ere oso berri ona da.

Zein da lasterketako unerik eta lekurik hunkigarriena?

Hunkigarriena hasiera izaten da, horrenbeste hilabetetako lanaren ondoren lasterketa ongi hastera doala ikustea. Gero, boluntarioen esfortzuari esker, ziur egoten gara ongi bideratua dagoela lasterketa.

Zein ekarpen egiten dio mendi erronkak Leitza eta inguruari?

Turismo aldetik asko ematen dio, ingurua ezagutzeko balio du eta hori aberasgarria da. Bestetik, hasieran erosketak guztiak supermerkatu haundietan

egiten genituen, baina orain dela sei urte bertako komertzioetan erostea erabaki genuen. Dena hemen erositakoa da, baita lasterkarien poltsetan sartzen dena ere.

Nolako maila espero duzue aurtengoa?

Egia esan, ez naiz izenei begira egoten den horietakoa, baina maila izanen dela esan didate. Nik nahiago dut herrikoei edo lasterkari xumeei begiratu...

Elurra, euria, eguzkia, hotza, beroa...

Nolako eguraldia nahi zenukete?

Ateri egitea nahi genuke. Zortzi urte daramatzagu lasterketa hau antolatzen eta ez dugu behin ere eguraldi ona izan. Bost urtetan kristoren euri zaparradak izan ditugu, baita kazkabarra ere; beste bi urtetan bero handiegia izan dugu, eta horren ondorioz, intsolazioak eta deshidratazioak. Eguraldiak ematen dizkigun kolpeak kudeatuz, asko ikasi dugu baina espero dugu aurtengoa ateri egitea eta hotzik ez egitea. Boluntarioek eta ikusleek ere gehiago disfrutatuko lukete.

Aurtengoa omenaldirik izanen da?

Bai, Nafarroan ikastolen sortzaileak izan zirenak omenduko ditugu.

Nolako izaten da biharamuna?

Polita izaten da. Egunean bertan dena biltzen dugu eta biharamunean jendeak egun polita pasatu duela entzutean horrenbeste hilabetetako lanak merezi izan duela sentitzen duzu. Lasterkariak ere askotan esaten dute hunkigarria dela eta egindako lan guztiaren ondoren jasotzen dugun saria da biharamunekoa.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Askotan aipatu dut, baina boluntarioen lana nabarmendu nahiko nuke, alde horretatik lasterketa erreferentziazkoa dela uste baitut. Hau ez da zortzi erok antolatzen duten lasterketa bat, hau 400 boluntarioen lana da. Horiek gabe ezin izanen genuke egin, eta aipamena haiek merezi dute, lasterketan ilusio guztiarekin lan egiten dutelako eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen direlako.

**«ERRELEBO
LASTERKETAREKIN
EMAKUMEEN PARTE
HARTZEA IGO DA»**

**«IKASTOLEN
SORTZAILEAK
OMENDUKO
DITUGU»**

Paskual Rekalderen sarrera-mintzaldia maiatzaren 21ean

Euskaltzain oso izendatu ondotik eman beharreko mintzaldia Amaiurko plazan egingen du

TTIPI-TTAPA

2020an Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen Paskual Rekalde Irigoien hizkuntzalari amaiurtarra euskararen alde egindako lan guztiagatik. Orain, Akademiaren barne-arauak agintzen duenari jarraituz, sarrera-mintzaldia egitea dagokio Rekalderi. Maiatzaren 21ean izanen da ekitaldia Amaiurko plazan. Euskaltzaindiak Osoko Bilkura egingen du egunean bertan 10:00etan Elizondon, eta 12:00etan hasiko da ekitaldi instituzionala Amaiurren.



Rekalde euskaltzaina. EUSKALTZAINDIA

Egun osoko egitaraua ekitaldi instituzionalean

Ekitaldi instituzionalari hasmenta emateko, Mikel Alzuart *Dutari* bertsolari baztandarrak bertso pare bat botako ditu. Gero, Amaiurren Kantuz abesbatzak Lauaxeta olerkariaren *Amayur gaztelu baltza* abesti ezaguna kantatuko du. Ondotik, Joseba Otondo Baztango alkateak eta Ixabel Aleman Amaiurko alkateak ongietorria egingen diete bertaraturakoei, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera. Gero, Paskual Rekaldek sarrera-mintzaldia irakurriko du.

Mintzaldian hiru gai nagusi jorratuko ditu Rekaldek: lehenbiziko euskara batua eta mintzamoldeak, bigarrenik Baztango hitzen ekarpena Euskaltzaindiaren Hiztegiari eta azkenik Amaiurko toponimia; toki-izenak, etxe-izenak, pertsona-izenak... ezagun zein ezezagunak.

Miriam Urkia euskaltzain osoak emanen dio erantzuna, eta gero euskaltzain berriak zin egin beharko dio bere karguari, euskaltzain izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela erranez.

Azkenik, euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jasoko ditu Rekaldek euskaltzainburuaren eskutik. Ekitaldiaren akabailan dantza-saioa egingen dute Amaiurko eskolako haurrek eta ekitaldira hurbildutakoek zintzurra bustitzeko aukera izanen dute.

Euskaltzainek, agintariek, senideek eta gonbidatuek Gaztelu elkartearen bazkalduko dute. Bazkalondan herriko arkeologia museoa bisitatzeko aukera izanen dute, eta eguraldiak lagunduz gero, Amaiurko gazteluaren hondakinak bisitatzen emanen diote akabaila jardunaldiari.

Paskual Rekalde Irigoien

Euskal Filologian lizentziaduna da EHU, eta, egun, Nafarroako Gobernuak euskara itzultzailea eta Eusko Jaurilaritzako Terminologia batzorde bereziko kidea da. Zenbait lan eta artikulua argitaratu ditu euskara batuaren eta euskalkien eta Baztango euskararen

inguruan. Horien artean daude Mariano Izeta zenaren *Baztango Hiztegia* eta *Dirua galgarri* lanen edizioa, eta Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako agiri zaharretako zenbait toponimo eta oikonomoren inguruko lanak, Andres Iñigorekin batera prestatuak.



Paskual Rekalde. EUSKALTZAINDIA

2003an euskaltzain urgazle izendatu zuten, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariorde 2018an. 2000.ean hasi zuen ibilbidea Akademian, eta gaur egun zenbait batzorde eta lantaldeetako kide da (Corpus, Euskalkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegia, Gramatika eta Onomastika...) eta, orobat, HIZBEA zerbitzuaren arduraduna.



instalazioak
IGOGAILUAK



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadak gutxi integratuak, portal barutik sarbidea, inguruak eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskalerrak tartan integratuak. Sarbidea portal barutik, inguru estropak gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-aulkian daudenentzako portalenako sarbidea egokitzeko dugu. Azkar egingen ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com



UTZITAKOAK

Oilategi bat Elizondoko eskola publikoan

Oilategi bat paratu dute Elizondoko eskola publikoan hurrek oiloak zaintzen eta arroltzeak biltzen ikas dezaten. Ikasleek mezu hau helarazi dute: «Elizondoko ikastetxe publikoan oilategi bat dugu. 5 urtekoek erakutsiko dizuegu telefono honetara deitzen baduzue: 948 581 808».

Olaia Elizalde lortu du gradu akaberako lana egiteko udalaren dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, bailararekin zerikusia duten lanak diruz laguntzeko deialdia egin du Baztango Udalak. Aurten, bi proiektu aurkeztu dituzte, baina epaimahaiak bat baztertu du oinarriak betetzen ez zituelako, beraz, Olaia Elizalde Garaikoetxea elizondarra izanen da 500 euroko bekaren onuraduna.

Energia Berriztagarrien Ingenieritza egiten ari da Elizalde, eta autokontsumo partekaturako potentzialitate fotovoltaikoaren azterketa egingen

du Berroetan. Herrian aplikatu daitezkeen komunitate energetikoak, autokontsumorako aukerak, legediak eta trabak ikertuko ditu, sistema elektrikoa deszentralizatzeko eta energia aurrezpena bultzatzeko, energia garbi eta berriztagarrien erabilera sustatuz.

Epaimahai Lekarozko institutuko eta Elizondoko lanbide heziketa ikastetxeko zuzendariek, Cederna-Garalurreko Baztango teknikariak eta Baztango alkateak osatu dute.



ALBARO SOULE

Izpegiko igoera giro ederrean

Izpegiko igoeraren IV. edizioa egin zuten maiatzaren 7an Erratzun, DRS Razingek antolatua. 43 partaide izan zituen rallyak eta 5,2 kilometroko igoera egin behar izan zuten. Ehunka lagun bildu ziren lehiaketa ikusteko eta eguraldi ederra lagun izan zuten egun guzian.

Husqvarna
DISTRIBUIDOR OFICIAL

BB BLOK BAT
TALLERES biokbat.com
C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Hainbat amaiurtarrek mugarri berria paratu zuten Alkurruntzen. UTZITAKOA

Amiurrek Baztanekin zituen mugetatik barna eginen dute aurten Mendi Itzulia

TTIPI-TTAPA

Baztango XXVII. Mendi Itzulia maiatzaren 29an antolatu du Baztango Mendigoizaleak taldeak eta Amaiurko gudaren 500. urteurrenari erreferentzia eginez, Amiurrek Baztanekin izan zituen mugetatik barna eginen dute ibilaldia.

Itzuliak bi ibilbide izanen ditu. A ibilbideak 28 kilometro eta 2.000 metroko desnibela izanen ditu. 07:00etan abiatuko da Amaiurtik eta hasteko Alkurruntzera igoko dira, Lizarmeakatik Zimitzeta eta Bagoira joanen dira, handik Bardako mendi igoko dute eta Itzulegitik eginen dute buelta. B ibilbideak 20 kilometro eta 1.425 metroko desnibela izanen ditu. 07:30ean abiatuko da herritik Alkurruntzera, handik Zimitzeta eta Bagoira, eta Antzabaletik bueltatuko dira Amaiurrera.

Izen-ematea online egin daiteke mendizmendi.com webgunean maiatzaren 27ko 18:00ak arte, baita egunean bertan ere 06:15etik aitzinera Amaiurren. 18 euro ordaindu beharko dira eta kamisetak banatuko dituzte partaideen artean. Informazio gehiago baztangomendigoizaleak.org atarian eskuragarri.

Mugarri berria Alkurruntzeko kaskoan

Alkurruntzeko mugarrira aspaldian desagertu zen, eta Mendi Itzuliaren aitzakiarekin eta «gazteluan gertatutako borrokaren 500. urteurrena gogoratzeko», mendiaren kaskoan mugarri berria paratzea erabaki dute amaiurtarrek. Maiatzaren 1ean paratu zuten harria, 1522 - 2022 idazkiarekin, eta hainbat herritarrek parte hartu zuten ekitaldian.



Urki Neol eta Alex Santesteban haien tutoreekin. NAFARROAKO GOBERNUA

Alex Santesteban eta Urki Neol Madrilgo Spainskills lehiaketan sarituak

TTIPI-TTAPA

Pasa den martxoan eta maiatzeko lehenbiziko astean Spainskills txapelketa egin dute Madrilan eta bertan lanbide heziketako ikasle hoberenek haien trebezia erakutsi dute hainbat arlotan.

Alex Santesteban iruritarra, Virgen del Caminoko ikasleak,

CNC fresaketa kategorian parte hartu zuen Abel Laskurain tutorearekin eta bigarren postua lortu zuen. Urki Neol arizkundarrak, berriz, Donibane lanbide eskolako Alfonso Erro tutorearekin ebanisteria kategorian parte hartu zuen eta hirugarren postua lortu zuen. Zorionak bioi!

Maiatzaren 21ean Errugbiaren Gaupasa eginen du BRTk Larraintzarren

TTIPI-TTAPA

Bi urteko geldialdiaren ondoren, XVII. Errugbiaren Gaupasa eginen du BRT Menditarrek aurten, «indarrez eta ilusioz beterik». Maiatzaren 21ean Larraintzargo frontoian izanen da besta. 21:30ean irekiko dituzte ateak, DJ TirriErdyk

alaitua. Bokatak afaltzeko aukera izanen da bertan, eta 23:30ean hasiko dira kontzertuak: Txingones de la Rencle mariatxiak, Trikidantz eta DJ Txurri eta Muski. Ohiko antzerkia eginen dute, baita bi zozketa ere, eta hainbat sorpresa izanen dira.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077
---	---	---	---

Egun guziko egitaraua Amaiurraldirako

«Errepublikas aske eta burujabea» aldarrikatzeko ekitaldia antolatu du Nafarroa Berriz Altxa ekimenak

TTIPI-TTAPA

Amaiurraldia ekitaldi politikoa egingen du Nafarroa Berriz Altxa ekimenaren 5ean Amaiurren eta Elizondon. Egun osoko egitaraua prestatu dute: 11:00etan autobusak Amaiurrera ailegatuko dira eta harrera egingen diete bertan. 11:30ean ekitaldi nagusia izanen da eta ondotik Amaiurretik Ordokira oinez joanen dira. 14:00etan Elizondon bilduko dira eta 15:00etan bazkalduko dute, bokaten edo menuaren aukerarekin. 16:30ean kontzertuak hasiko dira, Madame

Birrots eta Trikidantzekin, eta haurrendako txokoa ere izanen da Irrien Lagunekin.

Bazkariko menuak entsalada, paella, bildotsa txilindron erara, postrea, kafea eta kopa izanen ditu eta txartelak 30 eurotan daude salgai Iruñerriko eta Sakanako hainbat lekutan, Lesakako Arranon, Elizondoko Intzan, Erratzuko Zubipuntan eta online.

Antolatzaileek autobusean joateko eskatu dute eta izena emateko zerrendak paratu dituzte Iruñerrian, Sakanan, Lizarraldean eta Erriberan.



ONDIKOL

Zahar etxeko adinekoekin paseatzen

Elizondoko Herriak eta Bidelagunek antolatua, zahar etxean dauden menpekotasuna duten adinekoak buelta bat ematera atera zituzten maiatzaren 8ko goizean herriko hainbat boluntariok. Karriketatik barna ibili ziren eguraldi ederraz lagunduak eta hamaiketako ere izan zuten.

Beñat Irastorza Ugaldek irabazi du 2022ko (H)ilbeltza beka

TTIPI-TTAPA

«Euskarazko nobela beltza sustatzea eta sormen eta itzulpen lanak saritzea» helburu duen beka eman du bertze behin (H)ilbeltza elkarteak. 13 lagun aurkeztu dira deialdira eta Fred Vargasen *Debout les morts* liburuaren lagin bat euskaratu behar izan dute. Beñat Irastorza ordiziarra izan da irabazlea, 6.000 euroko saria jasoko du eta eleberri osoa euskaratuko du, Txalaparta argitaletxeak 2024ko (H)ilbeltzean argitaratuko duena.

Epaimahaia Joseba Otondo alkateak, Koldo Biguri (H)ilbeltzako ordezkariak eta Garazi Arrula Txalapartako ordezkariak osatu dute eta Irastorzak «obraren erritmoari tentuz eta zentzuz segitu diola» azpimarratu dute. Gainera, «erabilitako joskera,



Beñat Irastorza Ugalde. TXALAPARTA

testua irakurgarria egin nahian» nabarmendu dute, eta «orobat, hizkuntzaren erregistroak zaindu eta euskara aberatsa darabilela» adierazi dute.

Beñat Irastorza Ugalde

Ordizian 1993an sortua, matematika ikasketak egin zituen Bartzelonan eta «literatura eta hizkuntza zalea» da aspalditik. Gaur egun Frantzian bizi da eta hau du bere lehenbiziko itzulpen lana.

Bizikletaz mug! jardunaldiak egingen ditu Talde Ekosozialak aste honetan

TTIPI-TTAPA

Bizikletaren erabilera sustatzeko jarduerak prestatu ditu Baztango Talde Ekosozialak Elizondon. Maiatzaren 18an Arizkunenean bideo emanaldia eta solasaldia izan dute. Maiatzaren 19an Fantxikeko plazan elkartuko dira 19:00etan

bizikletako zirriken zulatzeak eta kateak konpontzen ikasteko. Maiatzaren 20an, berriz, bizikleta ibilaldia egingen dute Elizondoko karriketatik barna, 19:00etan herriko plazatik abiatuta. Ondotik, batukada izanen da mugikortasun as-teari akabera emateko.

Oharriz Auzoa z/g - LEKARAZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN S.L.
GASTROENFOTOGRAFIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



«Jendeak ardurari nolabaiteko beldurra ziola» ikusita, alkate izateko pausoa ematea erabaki zuen Ernesto Pratek joan den urtean. UTZITAKOIA

«Herria bertze modu batez ikusteko balio izan dit alkatetzak»

ERNESTO PRAT URZAINKI LEKAROTZKO ALKATEA

Lekarozko alkatetzan lehenbiziko agintaldia du Ernesto Pratek, eta orain arte izandako erronkez, Aroztegiko aferaz eta etorkizunera begira dituzten helburuez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

R. OSKARIZ | LEKAROTZ

Lehenbiziko agintaldia duzu. Zergatik erabaki zenuen alkate izatea?

Aitzinekoak uzten zuela jakin nuen, eta itxuraz ez zegoen inor prest alkate izateko. Iru-ditu zitzaidan jendeak nolabaiteko beldurra ziola ardurari eta pausoa emateko momentua izan zitekeela pentsatu nuen. Herriko alkatetzatik denok noizbait pasatu beharko genukeela pentsatu izan dut maiz, herria, ardurak eta eskakizunak bertze modu batez ikusteko. Esperientzia bizitzeko unea izan zitekeela iruditu zitzaidan. Gainera, Aroztegiko pelotazo urbanistikoaren mehatxua egonda,

konpromisoari heltzeko momentua zela pentsatu nuen. **Eginbeharrak taldean banatzen dituzue?**

Alkatetza taldean bortz lagun gaude eta batzarretan akta hartzearen ardura da zehaztua dugun bakarra. Suertatzen diren gainontzeko ardurak denon artean banatzen ditugu, aukeren arabera. Hilabete behin-edo elkartzen gara, nahiz eta mezuz eta telefonoz etengabeko harremana izaten dugun. Bertzetik, lagun batek herriko diru kontuak eramaten ditu eta bertze pare bat ur horniduraz eta kontsumoaz arduratzen dira. Azkenik, herriko hainbat bazterretako sasiak garbitzeko ardura ere

bertze sei lagunen artean dago banatua. Mila esker denei!

Zeintzuk dira alkatearen ardurak?

Nagusiki Lekarozko batzarren iritzia Batzar Nagusira eramatea eta lekaroztarren eskaerak Baztango Udalera. Horretarako herriko batzarrak antolatzen ditugu bi-hiru hilabetetik behin. Horrez gain, auzolanak antolatzea, bilkuretan parte hartzea, ur depositu kontrolatzea...

Alkatetzaren alde ona eta txarra?

Gauza aunitzen funtzionamendua ikasten ari naiz eta Lekaroz zein Baztan aise hobeki ezagutzen ari naiz. Ur ihesak eta arazoak daudelarik herriar batzuk laguntzeko duten prestutasuna ere ikara-

garria iruditzen zait. Aldi berean, eta honekin lotuta, herrian urarekin ditugun arazoak dira buruhauste gehien ematen didatenak.

Zein izan duzue zailtasunik handiena?

Erran bezala, urarekin ditugun arazoak. Lekaroztik bertatik zein Iruritatik ailegatzen zaigu ura baina hoditeria zaharra eta eskasa da. Ihesak nonahi daude eta ur aunitz galtzen da bidean. Honi herriarrok batzuetan egiten dugun uraren kontsumo arduragabea gehitu behar zaio. Horien guziaren ondorioz, herriko depositoa tarteka-marteka batere urik gabe gelditzen da eta etxeetan ura moztu behar izaten da.

Aroztegiko aferarekin ere bueltaka ibili zarete...

Bueltaka ibili gara lekaroztarrek, baztandarrak, eta lurra- ren defentsan aritu den oro, izan ere, Aroztegia Lekarozen dago baina eragin negatiboa Baztan mailakoa izanen litzateke guttienez. Nafarroako Gobernua, interes orokorraren izenean, interes pribatuen alde aritu da. Herriarrok erraten genuen gisan, iazko lanak baimenik gabe hasi zituzten, eta horrela ebatzi du Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Berriki, auzitegi berak berretsi

egin du San Martzial ermita ez dela promotoreena. Gaur egun lanak geldituak daude herritarren borrokari esker. Paradoxikoki baina, zazpi herritarrek deklaratzera joan behar izan dute lanak salatzegatik, foruzainek eta guardia zibilek baimenik gabeko lanak babesten zituzten bizkitartean. Gure ustez, herritarren erresistentzia jarrera ereduagarria izan zen eta aktibismoa eta elkartasuna esker nahi ditugu. Lekarozek behin baino gehiagotan utzi du argi inposatutako proiektuaren kontra dagoela, eta herritarren borondatea errespetatzea baino ez dugu eskatzen.

Zer behar ikusten dituzu herrian?

Ostatua hainbat hilabetez itxita egon ondok berriz irekia dago eta ez dago zalantzarik herriko giroa laguntzen duela. Modu berean, garrantzitsua da frontoia, eskola, elkartea, parkea... egotea. Nolanahi ere, orain batzartokia edo ekintzak egiteko areto baten falta sumatzen dugu. Covid-19aren pandemia dela eta, hondar urteetan ez dugu eskola edota elkartea erabiltzerik izan eta batzarrak frontoian egin behar izan ditugu. Negu bete-betean gogorrak izan dira batzarrak egiteko baldintzak.

Zer egin duzue agintaldian?

Egia errateko, alkate hasi nintzelarik hamaika asmo nituen, parkearen inguruan, herriko bideen inguruan... Baina hasi eta lau egunetara Aroztegiko



Aroztegiko lanak «geldituak daude herritarren borrokari esker». TTPI-TTAPA

lanen kalapita guzia hasi zen. Gatazka horrek energia eta indar dezente hartu zizkigun. Gero, urtero izaten omen den gisan, ur arazoak hasi ziren udaberria akitzearekin batera. Uda herriko depositua zaintzen eta ur ihesak konpontzen eman genuela erran daiteke. Tartean, ohiko aferak izan genituen: hilerriko bidea hormigoitzeko auzolana, herrian izaten diren ekintzetan laguntzea (Olen-tzero, Orakunde, arbolaren

eguna...), pistetan zaborra botatzea...

Eta zer egiteko asmoa duzue?

Lezabeko merenderoa txukundu nahiko genuke, adibidez. Iaz auzolan bat antolatu genuen horretarako baina alde batera utzi behar izan genuen eguraldiagatik. Gero eta okerrago dago. Bertzetik herriko plaza autoz betetzen da maiz eta oinezkoendako berreskuratzea gustatuko litzaiguke, herritarrek kontzientziatu

nahiko genituzke herriko kas-kotik polikiago pasatzeko autoarekin, parkea arras izorratua dago... Hamaika ideia eta lan badira. Artzapezpikutzak herriari ebatsitako ondasunak errekupekatzen saiatzea ere ongi legoke.

Nolako etorkizuna du herriak?

Lekarozek bizitzeko eta haurrak hezi eta hazteko neurri polita duela erranen nuke. Etorkizuna euskaraz ikusi nahiko nuke, naturaren erdian edo ondoan, inondik inora naturaren gainean.

Hurrengo urtean segitzeko prest?

Alkate izandakoek aipatu izan didate bi urte nahiko motz gelditzen dela. Lau urte, aldiz, luze egiten omen da. Egia errateko, oraindik ez dut horretan pentsatu, aldaketa unea hurbiltzean sentsazioen, gogoen eta indarren balantzea egingen dut eta erabakiko dut. Edozein modutan, jakin badakit Lekarozen jende aunitz dagoela alkate izateko gogoz eta aukera eman behar zaiela pentsatzen dut (irriz). Lehen erran bezala, esperientzia aberasgarria da eta denok pasatu beharko genukeela iruditzen zait. Agintaldiaren balorazioari dagokionez, pena dut momentuz kudeaketa hutsera mugatu dugula gure jarduna eta ez dugula ekarpen berriarik egin. Pandemiak erabat baldintzatuak egon gara baina kirol jardueraren bat herrian ospatzea gustatuko litzaidake, Lekarozko ingurune naturala balioan paratuko lukeena.

**«DENOK PASATU
BEHARKO GENUKE
NOIZBAIT HERRIKO
ALKATETZATIK»**

**«HERRITARREN
LAGUNTZEKO
PRESTUTASUNA
IKARAGARRIA DA»**

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Zarena Zarelako dantza taldea kanpoko plazan. JL BESSONART

Kultur topaketen bilan baikorra egin du kontseiluak

Espero baino hobeki erantzun du publikoak eta datorren urtean berriz ere antolatzeke asmoa dute

JL BESSONART

Xabi Camino, herriko kontseiluko kultur saileko arduradunak, bilan baikorra egin du *Kultura zure atean* goiburupean egin den kultur hamabostadiaren inguruan, jakinik lehen edizio honek ezezagun ainitz gordierik zeuzkala, Larreko kulturgunea eta herriko elkarte ainitzen aktibitateak herritarrei deskubriaraztea baitzen helburu nagusia. Espero baino hobeki erantzun du publikoak, Larreko iragan ikuskizunek aldiro jendetza ekarri baitute. Erran behar da, antolatutako ekitaldietan laue-

tatik hiru urrik zirela. Azpimarratzeko izan dira Mentalistaren ikusgarria, Zarena Zarelako dantzak kanpoko plazan, plazako errotaren barnean egindako kantaldia, Ortzadarren tinda tailerak, Jean Marc Dupont arraunlariaren abenturari buruzkoak... Herriko hamabortz elkarteak parte hartu dutenez, pentsa zer dinamika sortu duen ekimen berri honek. Oronen buru, azertu behar dituzte zer puntuek hobetze bat merezi duten eta, aldi berean, datorren urteari buruz, xedea dute egitasmoa berriz ere antolatzea.

'Herria' astekariak biltzar nagusia Senperen egin du

Aspaldiko partez, *Herria* astekariak biltzar nagusia Senperen egin du. Herriko etxeak fabore bat bezala onartu du ekimena eta baldintza guztiak eman ditu, berriemaileak ongi errezibitzeko. Dominique Idiart auzapezak bere hitzaldian azpimarratu du bere atxikimendua *Herria* kazetari buruz, betidanik irakurri duelakoz eta euskararen erabileran baitzepadakoa delakoz. Aperitifa eskainia izan zaie, handik Aro-Berriko ostatuko bidea hartu du eta Estebe ostalerak erregeak bezala errezebitu ditu.

Amaiurko batailari buruzko solasaldia Inharrian

Duela 500 urte iragan zen borroka Amaiurko gotorlekuan eta gertakari historiko horren inguruko solasaldia aurkeztu behar zuen Dominique Duvallek maiatzaren 12an. 1522ko uztailean, bataila honekin bururatu zen Nafarroako erresuma. Gatazka hau XVI. mendean Europan, bereziki François I.aren eta Charles V.aren arteko gertatzen ziren gatazken testuinguruan kokatzea zen xedea. Senpertar ainitzek lotura azkarrak dituzte Nafarroako familiekin, beraz interes handiko mintzaldia izan zen.



JL BESSONART

Bildotsaren Eguna maiatzaren lehenean

Bildotsaren Eguna ospatu zen maiatzaren 1ean. Bazen zer ikusi eta erosi, 500 bazkaltiar bildu ziren Xan Ithourria plazan eraikia zen oihalezko etxearen gerizan. Giro aparta sortu zen kantu eta musikarekin, arratsaldean Zirikatatzeko dantzarien ondotik harri altxatzaile eta aizkolariek hartu zuten segida.

IRARDIN	BEHOBIA	LUZAIDE	DANTXARINEA
31780 Bera	20305 Irun	31660 Luzaidia	31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Dantzan eta kantuan, giro ederra izan zen aintzira inguruan. ARANTZA AGIRRE

Milaka eta milaka euskaltzaleren bilgune izan da berriz ere Herri Urrats

TTPI-TTAPA

Itzulera ederra izan du Herri Urratsek. Pandemiaren ondorioz bi urteko geldialdia izan du, baina maiatzaren 8an, berriz ere, milaka eta milaka euskaltzale elkartu ziren Senpereko aintziraren inguruan, inoiz baino gogotsuago. Toki guztietan dantza, musika eta

animazioak izan ziren, baita bapo edan eta jateko aukera ere, hainbat laguntzaileri esker. Bildutako diruarekin Senperen bertan, Seaskaren bosgarren kolegioa eraiki nahi dute. Hortik harago, Brebeta eta Baxoa euskaraz egin nahi dituztela aldarrikatu zuten ospakizunean.

Kontrabandisten IV. Rallysprinta larunbaterako prest

Herriko motorzaleek laugarren aldiz antolatutako proba 15:00etan hasiko da eta sari banaketa 19:00etan egingen dute

ARANTXA ETA IRAIA

Larunbat honetan, maiatzak 21, Urdazubiko IV. Kontrabandisten rallysprinta jokatuko da. Laugarren urtez, herriko motorzaleek antolatutako lasterketa dugu, 15:00etan hasiko dena. Horretarako, bidea 13:00etan itxiko da. Beraz, ikusle guztiak tenore hori baino lehenago ailegatu behar dira haien tokietarat lasterketaz gozatu ahal izateko. Sari banaketa 19:00 aldera egingen dute plazaren inguruan.



Auto bat 2019ko proban.

Dena prest herriko bestetarako

Bi urtez ospatzeko aukerarik gabe egon diren herriko bestak egin ahal izanen dira aurtengo, aldizkari honen erdiko gehigarrian ikusiko duzuen bezala. Jendea gogo biziz dago eta herrian jada ikusten dira ur-

teroko karpa handia, banderín koloretsuak... Herria jada prest dago beste hasiera emateko. Joan den maiatzaren 14an karpa handia jarri zen hainbat herritarren laguntzarekin eta gosari eder batekin indarrak hartu ondoren txozna eta bertze hainbat gauza ere prest utzi zituzten.

Horretaz gain, zikero jateki eta paelladako txartelak ere jadanik salgai daude Karretero eta Montxo ostatuetan.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



ARANTXA ETA IRAIA

'Osasunez xahartu' hitzaldi arrakastatsuak

Harremana jubilotekak *Osasunez xahartu* izenburuarekin hitzaldiak antolatu zituen herritarrentzat. Bertan, hainbat hitzaldi eman zituzten: zahartzaroa zer den, gorputzean izandako eraginak, mentalki izandako eraginak, etab. izan zituzten hizpide eta jende andana bildu zen.

50. urteurrena ospatuko du Sarako Izarra errugbi taldeak

Maiatzaren 28an euskal ligako lehen mailako finala jokatu du Elorrión (Bizkaia)

GANEX

Sarako Izarra errugbi taldea 1972. urtean sortu zen eta 50. urteurrenako ospakizunetan da, beraz. Maiatzaren 28an euskal ligako lehen mailako finala Elorrión (Bizkaia) jokatuz ospatuko du.

Pierrot Etxeberriak 1972an ostatua bazuen eta gazte ainitz etorri ziren bertara. Pentsatu zuen gazte horiekin behar zuela errugbi talde bat egin. Herriko etxearekin solas egin eta horra nola sortu zen Sarako Basurde taldea. Oraiko Jean Fagoaga errebotetaigerilekuan, denbora batean Duponek bazuen soro bat eta jokatzeko moduan antolatu zuten. Nekez aritzen ziren, eremua malda baitzen, baina halere kontent ziren gazte horiek, errugbian jokatu eta elgarrekin jostetan aritzen baitziren matxaren ondotik. Egurrezko etxola bat bazuten egina beztimentak aldatzeko eta ainitzetan herriko komunetan garbitzen ziren, ostaturat joan aitzinean.

1974an herriko etxean galdera egin zuten bertze zelai bat lortzeko eta kontseiluak antolamendua egin zuen Sain Esteben familiarekin: zelaia hartu eta leizetako herriko lurretan ordaina ematea adostu zuten. Geroztik zelaia beti leku berean da, Animainean.

Errugbilariek, errugbizaleek eta lagunak batimendu tiki bat egin zuten poliki-poliki eta herriko enpresa batek tresnak utzi zituen lanak egiteko. Herriko langileek zelaia behar bezala antolatu zuten, estolderia egin, belarra berritu... ongi aritu ziren lanean doike, zeren geroztik beti zelai bera da. Berantago

herriak egin zuen orai den batimendu ederra, dutxak, gela leiho haundi bat, baita bigarren zelai bat entrenamenduendako ere eta bazterrean aparkalekua.

50 urteko historiako datak

1976an eta 1987an hirugarren mailan txapeldun ordea izan zen Sarako Izarra, baina 1990ean ailegatu zen lehen garaipen handia: hirugarren mailan Frantziako txapeldun izan zen, Biddarteko taldearen kontra. Orduan entrenatzailea Beñat Iraola zen eta lehendakaria Da Rocha. 1991n Cote Basque Lande txapelketa irabazi zuen. 1995ean bi titulu lortu zituen: laugarren mailan Frantziako txapeldun, Saint Andre de Roquelongue taldearen kontra baita Cote Basque Lande txapelketako txapeldun. Orduan Andre Belloc zen entrenatzailea eta lehendakaria Pierrot Etxeberria. Cote basque Lande txapelketan txapeldun orde izan da hirutan: 2003an hirugarren mailan; 2004an bigarren mailan eta 2011n laugarren mailan.

Orain euskal ligan

Oraiko lehendakaria Patxi Jaurregi Basurko bere bulegoko lagunekin nahi zuten zerbait egin taldea azkartzeko. Herritar gazte ainitz gelditu ziren eta bertzeak ez ziren motibatuak eta ez ziren ados Frantziako errugbi federazioarekin. Orduan, Hego Euskal herriko federazioarekin jokatzeko pentsatu eta herritar gazte ainitz berriz taldera etorri zen. 2018tik honat Euskal Herriko lehen mailan jokatzen ari dira. Iaz txapeldun izan ziren eta aurtengoa, maiatzaren 28an ikusiko.



Sarako Izarra errugbi taldea 1972an, taldea sortu zenean. ARTXIBOKOA



1990ean hirugarren mailan Frantziako txapeldun izan zirenean. ARTXIBOKOA



1995ean bi titulu lortu zituzten basurdeek. ARTXIBOKOA



Joan den urtean euskal ligan txapeldun izan ziren, aurtengoa ikusiko. ARTXIBOKOA



Mendizale elkarteak apirilaren 28an egin zuen urteko biltzarra. GANEX

Zangoak Arin elkartearen 25. urteurrena gogoratzeko zikiroa ereiaroaren 28an

GANEX

Sarako Zangoak arin elkarteak biltzar nagusia egin du apirilaren 28an Lur Berri gelan. Jean Grane lehendakariak ongi etorria eman zien denei, partikulazki kide berriei. Nola elkarte beti handitzen ari den, korrikalari gidariak behar dituela emendatu ere aipatu zuen eta urte honetan hil diren kide guztiak gogoan izan zituen.

Beatrice Ollier idazkariak erran zuenez, urteko aktibitateak ongi pasatu dira.

Xabi Larregle diruzainak, berriz, kontuak positiboan

dituztela azpimarratu zuen eta bukatzeko lehendakariak eman zuen aurten egingen dituzten ateraldien berri: Maiazaren hondarrean Picos de Europarat joanen dira; maiazaren 31n Iratirat; ereiaroaren 28an zikiroa egingen dute elkartearen 25 urteak ohoratzeko; uztailaren 5etik 7ra Cirque Gavarniera ateraldia egingen dute eta buruilaren 20tik 23ra arte ateraldia Dordoñerat.

Eguna umore onean bukatzeko denak Pikassarriko jabetxean Jean Jacques sukaldariak prestatutako bazkari ederra izan zuten.

Errugbi taldearen txapela VVFko zuzendariari

Aitzin horretan Sarako Izarra errugbi taldeari bazkaria eskaini dio Serge Lourauk, VVF Villages kanpineko zuzendariak eta hori eskertzeko Patxi Jauregui Basurko errugbi taldearen lehendakariak boneta eman dio Lourauri. Ondoko orrialdean ageri denez, maiazaren 28an euskal ligako finala jokatuko dute aurten ere basurdeek, Elorrioren. Finalerdietan Kanpanzar Arrasate taldea mendean hartu dute, bai Saran, baita Arrasaten ere eta orain Betsaide Elorrio izanen dute arerio finalean.

Igandean Goazen 8.0 kontzertuko bi saio izanen dira

Sarako Olhain ikastolak gonbidatuta, maiazaren 22an lehen aldikoz Lapurdin, *Goazen 8.0* telesaileko aktoreek kontzertua emanen dute kiroldegian. Saio bakarra aurreikusia zuten, 18:00etan, baina sartze guztiak agortu direla ikusita, bigarren hitzordubatu antolatu dute, 16:00etan. Gogoratu behar da aurtengo promozioan Joanes Etxebeste herritarra ari dela aktore lanean. Sartzeak 12 eurotan eros daitezke. Bortz urtez azpiko haurrentzat sartzea urri-rik izanen da.



Pikatzarreko bordan sortu eta Kaminoko bordan bizitu zen Mattin Dainziart.

95 urte zituela hil da herritar zaharrena, Mattin Dainziart

2007an Eusko Kultur Fundazioak egin zuen ondare immaterialaren bilketan parte hartu zuen Genobeba emaztearekin

KORO ETA MARIFA

95 urte zituelarik, joan den apirilaren 28an hil zitzaigun herritar zaharrena, Mattin Dainziart. Mattin Pikatzarreko bordan sortua zen, eta bizitza guztia Azkar auzoan bizitu zen, bere sortetxetik ezkondu eta Kaminoko bordan datat joanez.

Mattin eta Genobeba bere emaztea, beti baserriko lanean aritu ziren, lehengo usaia eta bizitzeko manierak mantenduz, eta horrengatik hain xuxen, 2007 urtean Eusko Kultur Fundazioak egin zuen ondare immaterialaren bilketan parte hartu zuten, eta beraiei esker informazio aunitz biltzea eta gordetzea lortu zen.

Gurutzez gurutze

Lehengo usaia zahar horietako bat, maiaztean gurutzez gurutze egiten ziren prozesioak ziren, eta aipatzekoa da prozesio hoietako batean, Mendibila egiten zenekoan, Pikatzarreko bordakoek eramaten zituztela arrainak Mendibil kaskora, han egiten zen gosarian apezak gosaltzeko. Egun eroria eta hautsia dago gurutzea.



Mendibilgo gurutzea hautsia dago.

Pilota txapelketa abiatua

Pilota txapelketa dugu uda eta bestak ailegatzen ari zaizkigunaren seinale, eta hori mar txan jarri dute dagoeneko.

Hamar bikote arituko dira, neska eta mutilak nahaste (neska bakar da, baina auzarta, aupa Argitxu!). Maiazaren 14-15eko asteburuan hasi zen, eta finala Andre Mari egunean egingen da.



Beti Gazteko bi laukoteak eta Amaiur, txapelketa mistoko podiumean. UTZITAKOIA

Beti Gaztek jantzi ditu 4x4 sokatirako lehen hiru txapelak

Apirilaren 30ean Lesakan mistoa irabazi zuen eta maiatzaren 7an Antsoainen emakumeen eta gizonen pisu astunetako

A. AROTZENA

Nafarroako launakako sokatira txapelketa mistoa jokatu zen apirilaren 30ean Lesakako udal pilotalekuan. Herriko laukoteak nagusi izan ziren, Beti Gazte A eta Beti Gazte Bren arteko finala jokatu baitzen. Hirugarren Amaiur A izan zen.

Bi multzotan banatutako bederatzita talde arituz lehen fasean. Lehen multzoan Beti Gazte B irabazi zituen tiraldi guztiak, bigarren Berriozar A izan zen, hirugarren Amaiur B eta laugarren Araxes. Bigarren multzoan Beti Gazte A izan zen lehena, Amaiur A bigarren, Berriozar B hirugarren, Amaiur C laugarren eta Antsoain bosgarren. Hortaz, Beti Gazteko bi taldeak elkarren kontra aritu ziren finalean. Azkenean, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Maialen Lopez eta Maria Ian-

tzik osatutako Beti Gazte A laukoteak jantzi zuen txapela, Unai Gurrutxaga entrenatzailer zutela. Beti Gazte B txapel-dun orde izan zen: Karmelo Mitxelena, Irantzu Goienetxe, Eneko Saldias eta Ainhoa Ubiria aritu ziren tiran, Julen Palenzuela entrenatzailer zutela. Podiumeko hirugarren koskan Amaiur A izan zen, Berriozar Ari irabazita, Joseba Jauregi, Ane Goienetxe, Amaia Sarra-tea eta Julen Jauregi osatu zuten Amaiurko laukotea, Migel Joxe Ariztia entrenatzailer eta Iñaki Urrutia laguntzailer zituztela.

TXAPELKETA MISTOKO PODIUMERA IGO ZEN AMAIUR

Pisu astunetako txapelak ere Lesakara

Emakumezkoen eta gizonen pisu astunetako txapelak (255 eta 320 kilo, hurrenez hurren) maiatzaren 7an banatu zituzten Antsoainen. Lekunberrin jokaturako lehen jardunaldian bezala, bi bietan Beti Gazte nagusi izan zen eta berriz ere lesakarrak jantzi zituzten txapelak. Emakumezkoetan, Ane Gurrutxaga, Maialen Lopez, Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi aritu ziren laukote txapeladunetan, Karmelo Pikabea entrenatzailer zutela. Gizasemeetan, Karmelo Mitxelena, Beñardo Iantzi, Iñigo Altzugarai eta Julen Palenzuela aritu ziren, Eneko Saldias entrenatzailer zutela. Tiralari helduekin batera, 20 urtez beheitikoek eta kadete mailakoek ere lehen jardunaldia jokatu zuten.

Orain, pisu arinetako txapelak dituzte jokoan, emakumeen 235 kilokoa eta gizonen 300 kilokoa. Lehen jardunaldia maiatzaren 14an jokatzeko zuten Betelun eta bigarren eta azkena maiatzaren 21ean, larunbat honetan, jokatzeko dute Berriozarren. Kadete eta 20 urtez beheitikoek bigarren eta hirugarren jardunaldiak ere jokatu dituzte.



UTZITAKOIA

Niko Mindegia Poloniako jokalaria onenen artean

Poloniako ligan erdiko jokalaria onena izendatzeko hautagaien artean sartu dute Niko Mindegia eskubaloia jokalaria doneztebarra eta gainera, EHF Champions Leagueko lauko finala jokatu du Wisla Plock taldearekin.

Nafarroako goi mailako kirolarien artean eskualdeko hamaika daude

Nafarroako goi mailako kirolarien 2022ko zerrenda argitaratu eman du Nafarroako Kirolaren Institutuak Aldizkari Ofizialean. Nafarroa osoko 338 kirolari, entrenatzailer eta epaileen artean eskualdeko hamaika daude: Eskubaloian, Ibai Meoki eta Niko Mindegia doneztebarrak; txirrindularitzan Mikel Nieve leitzarri; neguko kirolan Adur Etxezarreta aresoarra; futboleko Jon Karrikaburu elizondorria eta Aimar Sagastibeltza leitzarri; pilotan Joseba Aldabe eta Oian Canabal igantziarrak eta entrenatzailer dagokienez, txirrindularitzan Jose Luis Jaimerena elizondorria eta atletismoan Beintza-Labaien-go Idoia Mariezkurrena.



Txapelketako finalistak eta bertze parte-hartzaileak, Errekako ordezkariekin, sari banaketaren ondotik. ERREKA KE

Josetxo Ezkurra 31. Memorialaren finalak jokatu dituzte

Enaitz Anso oronoztarra txapeldun izan zen seniorretan, Erik Igoa etxalartarra benjaminetan eta Goiuri Zabaleta leitzarria infantiletan

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Josetxo Ezkurra zenaren ome-
nez Doneztebeko Erreka el-
karteak antolatutako hogeita
hamaikagarren pilota txapel-
keta azkenera ailegatu da.
Maiatzaren 7an jokatu zituz-
ten zazpi kategorietako finalak
Doneztebeko Ezkurra pilota-
lekuan. Eskualdeko pilotariei

dagokienez, hiru txapel lortu
zituzten: Etxalarko Erik Igoa
benjamin mailan, Leitzako
Goiuri Zabaletak infantil mai-
lan eta Zugarraldeko Enaitz
Anso oronoztarrak seniorretan.
Txapeldun orde izan ziren
Mattin Leiza aurtiztarra ale-
binetan eta Endika Santeste-
ban zubietarra kadetetan.

Emaitzak

Benjamin mailan: Erik Igoa
(Bortziriak), 18 – Aitor Sarasa
(Berriozar), 8

Alebin mailan: Mattin Leiza
(Erreka), 8 – Sergio Santesteban
(Esteribar), 18

Infantil mailan, mutikoak:
Igor Nazabal (Oberena), 18 –
Iñigo Alberdi (Ataun), 12

Infantil mailan, neskek: Goiuri
Zabaleta (Aurrera), 18 – Ai-
zane Ibarrola (Uharte), 3

Kadeteak: Endika Santesteban
(Oberena), 7 – Oier Ibarluzea
(Lapke), 18

Jubenilak: Beñat Labaka (Ilun-
pe), 8 – Oihan Etxeberria (Oiar-
pe), 18

Seniorrak: Iñigo Labaka (Her-
nani), 6 – Enaitz Anso (Zuga-
rralde), 18

Lesakako Uxuri Portu garaile Espainiako kopako trial proban

Espainiako Kopa trial txapel-
ketako hirugarren proba jo-
katu zen maiatzaren 7a Azu-
queca de Henaresen (Guada-
lajara). Lesakako trial taldeko
hiru txirrindulari joan ziren
eta emaitzarik aipagarriena
Uxuri Portuk lortu zuen, lehe-
naizan baitzen bere kategorian,
7 eta 9 urte arteko nesketan.
Xabier Valverde hamargarren
izan zen eta Goiuri Urria ha-
maikagarren, biek infantil
mailan. Ekainaren 11n Gua-
dalix de la Sierran (Madril) eta
urriaren 15ean Lizarran izanen
dituzte kopako hurrengo probak.



Uxuri Portu Guadalajaran. UTZITAKOA



13SHOT

Etxalarko Imanol Vicente garaile Pinedan

26. Autocross Pineda Trasmonte lasterketan lehiatu zen
apirilaren 30ean Imanol Vicente gidari etxalartarra eta
hogeita lau aurkariei aitzin hartuz, lasterketa lehenengo
postuan bukatu zuen. Lasterketa hau, Gaztela eta Leongo
txapelketarako puntuatzeko karrera zen.



UTZITAKOA

Beñat Apezetxea txapeldun Master Kaiolan

Beñat Apezetxea pilotari goizuetarrak Zornotzako VII. Master
Kaiolan txapeldun suertatu da. Maiatzaren 8an jokaturako
gazte mailako finalean, 22-12 irabazi zion Arkaitz Eskuzari.
Arabarra 10-1 aurreratu bazen ere, hamaikana berdindu
ondotik jaun eta jabe izan zen Apezetxea.

MAIATZAK 19 - EKAINAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOTIK

LEITZA Haur, Guraso eta Eskolen Topaketa

Aresoko Nazabal eskola, Goizuetako Andres Narbarte Xalito eskola eta Leitzako Erleta eskola.
Maiatzaren 28an, egun osorako egitarauarekin.

MUSIKA

AMAIUR

Elizondoko abesbatza

Elizan, maiatzaren 21ean,
20:00etan.

SARA

Goazen 8.0

Kiroldegian, maiatzaren 22an,
16:00etan eta 18:00etan.

LEITZA

Jon Maia 'Kantu bat gara'

Herri Aretoan, maiatzaren 22an,
19:00etan.

LESAKA

Lesakako soinulariak

Jubilatuen arkupeetan,
maiatzaren 27an, 20:00etan.

JARDUNALDIAK

URDAZUBI

IV. Kontrabandisten rallysprinta

Maiatzaren 21ean, 15:00etan.
Bide itxiera 13:00etan.

DONAMARIA

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 28an, egun osoko
egitarauarekin (28. orr.)

LEITZA

Haur, Guraso eta Eskolen Topaketa

Maiatzaren 28an, egun osoko
egitarauarekin.

BERTSOAK

ARANTZA

Nafarroako bertso eskolarteko finala

Aterpean, maiatzaren 21ean,
17:00etan.

BERA

Baztan-Bidasoko Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa

Kultur etxean, maiatzaren 27an,
18:00etan.

LEITZA

Mingaño Saltsan sariketako finala

Torrean, maiatzaren 27an,
21:00etan.

Señora sariketako finala

Herri Aretoan, ekainaren 4an,
17:00etan.

SOLASALDIAK

BERA

Emigración de la Navarra atlántica a América (1840-1874)

Raquel Idoateren eskutik.
Beralandetan, maiatzaren 20an
19:00etan.

AMAIUR

Paskual Rekalderen mintzaldia

Plazan, maiatzaren 21ean,
12:00etan.

LEITZA

Lagunartean hika eta toka, eta noka?

Fernando Oiartzunen eskutik.
Herri Aretoan, maiatzaren 24an,
19:30ean.

Ukrainan zer ari da gertatzen?

Txente Rekondoren eskutik.
Herri Aretoan, maiatzaren
25ean, 19:30ean.

Beotibarko kondairaren egiak

Xabier Irujoren eskutik.
Herri Aretoan, maiatzaren 26an,
19:30ean.

Nafartasuna Europako burujabetza aro berrian

Miren Zabaleta eta Floren Aoiz.
Aurrera elkartean, ekainaren
1ean, 19:00etan.

LESAKA

'Mendiak 1976' filma eta solasaldia

Harriondoan, maiatzaren 29an,
19:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, maiatzaren 21ean eta
28an, 10:00etatik 14:00etara.

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko plazan, maiatzaren
28an, 10:00etan.

LEITZA

Artisauen azoka

Plazan, maiatzaren 29an,
goizez.

BERTZELAKOAK

ELIZONDO

Txorimaloen tailerra

Plazan, maiatzaren 28an,
10:00etatik 13:30era.

LEITZA

Leitzaketa

Herri Aretoan, maiatzaren 28an,
18:30ean.

BERA

Ramon Zabalegiren erakusketa

Ikastolan, asteburuetan,
16:00etatik 20:00etara.

NIRE AUKERA

«Akorde batzuk, estrofa bat eta hasi da kanta bat sortzeko prozesua»

JON MACICIOR MITXELENA ARANTZAKO MUSIKARIA



J. INZIARTE

«Arantzan jaio eta Madrilen doktoretza egiten ari den gaztea» da Jon Macicior Mitxelena (Arantza, 1996). Daukan «denbora eskasa» musikarekin zerikusia duten ekintzetan pasatzea du gustuko, baita padelean eta futbolearen aritzea ere.

Hiri handira

2018an kimikako gradua bukatu zuen Maciciorrek, «eta Madrilera etorri nintzen kimika organikoan masterra egitera». Masterra bukatzean doktoretza hasi zuen, «hainbat gaixotasunen aurka farmako berriak diseinatzeko eta sintetizatzen dituen ikerketa talde batean».

«Gazte naizen momentu honetan», herri ttikian baino, hiri handian dago gusturago; «Madril bezalako

hiri batean dagoen entretenimendu eskaintza izugarria da, batez ere gazteontzat. Musika, zinea, kirola, besta... denetik egiten ahal duzu etxetik ordu erdi baino guttiagora eta asteko edozein egunetan».

Lehen akordeak

15-16 urte zituela oparitu zioten lehen gitarra akustikoa, «eta geroztik beti ibili naiz gitarrekin saltseatzen». Musika etxean ikasi du, «ez dut modu teoriko batean ulertzen,

«POP-ROCK HIZKUNTZAN ULERTZEN DUT MUSIKA»

jende aunitz bezala hainbat erreferenteren kantak ikasiz eta kopiatzen ikasi nuen jotzen». Gero, kanta propioak konposatzen hasi zen; «abilezia teoriko falta honen ondorioz erritmo eta melodia nahiko sinpletara mugitu izan naiz beti, betiere betiko lau akordeei ukitu pertsonal edo buelta ttiki bat ematen saiatuz».

Jotzeko eta konposatzeko modua «entzuten dugun guztiak» baldintzatua dela dio Maciciorrek, «gustatu edo ez». *Def Leppard* eta *Pink Floyd* taldeengatik erabaki zuen gitarra jotzen hastea, eta beranduago *Berri Txarrak*, *Foo Fighters* eta *Biffy Clyro* taldeak izan ditu erreferente. «Azken urtean gehiago murgildu naiz gaur egun komertzialagoak diren genero urbanoetan», eta argi du «nire buruak pop-rock hizkuntzan ulertzen duela musika».

Ibilbidea eta bidelagunak

Bere ibilbide musikalean hainbat kide izan ditu; «*Kalera* bertsio talde bezala sortu genuen Ibai Rosek (bateria), Denis Leizak (baxua), Mikel Leizak (ahotsa eta dultzaina), Beñat Lopezek (ahotsa) eta nik (gitarra), eta ezinbertzekoa izan da nire ikasketa prozesuan. 2017an *Itzalak* izeneko 13 kanta propioz osatutako diskoa kaleratu genuen eta gitarra izugarri landu dut proiektu honi esker, jotzeko eta baita sortzeko orduan ere.

Azken Trena taldean ere izan zen, «Jokin Pinatxorekin (ahotsa eta gitarra) eta

Carlos Garaikoetxearekin (perkusia) sortua. Modu akustikoan hasi zena baina formatu elektriko handiagora bihurtu zen Mattin Arbelaizen (bateria) eta Manex Ormazabalaren (baxua) laguntzaz. 2017an *Zerotik* diskoa kaleratu genuen gure 10 kantarekin. Gitarraista bakarlariaren papera hartu eta landu nuen talde honetan».

Erronka berriak

Kantu baten ekoizketa prozesua zein den deskubritzean, «mundu berri bat ireki zen nire buruan; zenbat jakintza teoriko eta tekniko, zenbat zailtasun, ñabardura, zein prozesu zaila... eta zein polita. Momentu horretan galdera bat egin nion nire buruari: gai izango al zara kanta berriak idatzi eta zuk zeuk grabatu eta ekoizteko? Mila bideo ikusi ondotik, ordenagailuaren aitzinean eseri eta gauzak probatzen hasi nintzen. Argi dago kimikari batek bere logelatik eta egunean ordu pare batez ez duela inoiz profesional batek bere estudioan sortutako lan baten kalitatea berdinduko, baina hori ez da helburua, entzuteko modukoa eta batez ere jendeak disfrutatzen modukoa den musika ekoiztea baizik, eta uste dut bete dudala».

Aurriak diskoa izanen denaren lehen bi kantak kaleratu ditu 'Jon Macicior' izenarekin Youtube eta Spotify bezalako plataformetan. «Akorde soil batzuk, estrofa bat eta hasi da kanta sortzeko prozesua. Bi hauek elektronikoan dira, eta horrek zailtasun estra bat du niretzako, baina hurrengoak estilo aldetik tradizionalagoak izanen direnak; bateria, baxua eta gitarra».

«PAZIENTZIAREKIN ETA ORDUAK SARTUTA DENA DA POSIBLE»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.


ELIZONDO. Pisua salgai, erdigunean, arkitektura tradizionalako etxean, Baztan ibaira eta Txokoto auzora begira. 3 logela bikoitz. Egongela- jangela zabala, begira-tokiarekin. 2 bainugela, bat bainuontziarekin eta bestea dutzarekin. Berokuntza eta ur beroa gas naturalarekin. Iaz pintatua eta berniz-tua. ☎658 75 81 73.



SUNBILLA. Pisu berria salgai, gustu handiarekin berritua. Sukalde, egongela eta jangela espazio zabal bakarrean, begiratoki eta balkoia bista ederrekin. 3 logela eta 2 komun oso. 2 aparkaleku lurpeko parkingean eta igogailua. Prezioa negoziatzeko aukera guziak. ☎699 12 28 15.

LEITZA. 85 m²ko pisua salgai, igogailuarekin. Zaharberritzeko. ☎636 85 05 70.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo biren-tzako apartamentua errentan emateko du, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire giro-tuarekin eta hagitz ongi hornitua. Uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostadietan libre. ☎658 94 37 02.

IRUÑEA. Iturruma auzoan lau loge-lako pisua errentan emateko. ☎616 19 70 88.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ERRENTAN HARTZEKO

IRUÑEA. Arrosadia auzoan edo uni-bertsitate inguruan, lau neskek pisua errentan hartu nahi dute datorren ikasturtetik aurrera. ☎617 80 88 48.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTU

LESAKAN edo **BERAN** furgoneta bat gordetzeko garajea edo marra errentan hartu nahi dute. Gutxieneko altura 2,03m. ☎647 74 15 44.

ELIZONDO inguruan errentan hartzeko industria-pabiloi bila. Denboraldi luzerako. ☎665 83 14 74.

LANA

ESKAINTZAK

ORONOS-MUGAIRI. Urgain Hotelean garbiketa lanetan aritzeko langilea behar dute. ☎637 71 53 84.

Biok Taldearen Luzaideko dendan **txarkuterian lan** egiteko langile bila. Pertsona atsegina, dinamiko, arduraduna eta txukuna. Frantsesa dakiena eta gidatzeko baimena izatea kontuan hartuko da. Berehala hasteko, egun osoko lanaldi egonkorra eta bazkaria barne. rrhh@ventabiok.com. ☎683 43 88 52.

ZURAIDE. Elikagaien enpresa batean merkatuetan aritzeko saltzaile-leskaeren prestatzaila-banatazaila behar dute. Frantsesez dakiena. ☎(00 33) 672 04 96 83.

IRUN. Jatetxe batean asteburuetan edo astegunetan egun osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. ☎650 17 30 31.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,88
- 1.koa 4,76
- 2.koa 4,64

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,99
- 1.koa 4,85
- 2.koa 4,74

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,545 €

Zerramak 0,780€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
apirilaren 29tik maiatzaren 6ra
bitarteko prezioak)

Frantses pixka bat dakiena. Bidali curriculumak.bentagorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

IBARDIN. Barrako zerbitzaria behar dute egun osoan lanetan aritzeko. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

ESKARIAK

Erizain titulua eta dokumentazioa behar bezala duen neska etxeko lanetan eta adinekoak etxetan edo zahar etxetan zaintzen ariko litza-teke. Esperientziaduna eta erreferentziekin. ☎631 12 10 31.

LEITZALDEAN neska euskalduna haurrak zaintzen aritzeko prest, uda aldean. ☎640 39 91 91 / 617 80 88 48.

Erizaintza Zaintza Laguntzaile Teknikariaren (E.Z.L.T. edo T.C.A.E.) titulua duen neska batek zaintzaile lanak egiten lituzke goizetan. ☎624 41 48 14.

Neska batek interna lan egiten luke, etxeko lanetan, haurrak edota adinekoak zaintzen, garbiketan... ☎652 99 28 27 / 603 43 41 11.

31 urteko Nikaraguako emakumea, erizain titulua duena, eta ikasteka soziosanitarioak dituen adinekoak zaintzeko edo adinekoen egoitzan lan egiteko prest. Bortz urteko esperientzia zaintza lanetan, eta dispo-nibilitate zabala. ☎674 44 82 79.

Etxetik administrazio eta finantza lanetan ariko nintzateke, telelanean. ☎664 43 28 25.

Ostalaritzan eta baserriko lanetan esperientziadun mutila lanerako prest. Orduka edo lanaldi osoan. Ordutegietan malgutasuna eta aua-toa duena. ☎643 79 05 06.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK



ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Txakurkumeak oparitzeko. Border Collie arrazakoak. Hilabete-koak. Oso politak. ☎636 02 23 11.

ERRATZU. Border Collie eta Mastin arrazen nahasketa duten zakurkumeak oparitzeko. ☎629 00 57 64.

Katakume begi urdin eta xuriak oparitzeko. Oso-oso politak. Dudak Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46.

DENETARIK

SALGAI




Ettxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Etixerako egur loteak egiten dira, etxera eramateko aukerarekin. Bertze lanak ere egiten dira. Belai ibiturak, lorategien apainketa edo mozketak, mantentze lanak... ☎618 20 23 95.



Baserriko ilar gorria salgai. ☎671 75 90 52.



Kuhn markako **belarrari buelta emateko tresna** salgai. Egoera onean. ☎630 41 13 94.

EROSI

Haritz egurra erosi nahi dute, kamioi trailer bat eta enborrak oso-rik. Prezio onean. ☎605 24 30 57.

MOTORRAK


TAILERRAK



URTEBETETZEAK



Donamariako **Ibai Fernandez Telletxea** etxeko traktorezaleak 6 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Egun ederra pasa dezazula eta merienda goxo-goxoa prestatu. Muxuak etxekoan partetik.



Zorionak Lekarozko **Oinatz Sarreatea Arretxea!** Maiatzaren 27an 6 urte beteko dituzu. Ongi pasa zure egunean. Muxu erraldoi bat familia guztiaren partetik, baina bereziki zure anaia Julenen partetik.



Aunitz urtez, **Urko!** 11. urtebetetze egun polita pasatu izana espero dugu! Muso haundi bat familia guztiaren partetik! Aupa txapeldun!



Iturengo **Naroa Elizalde** maiatzaren 19an 9 urte beteko ditu. Zorionak Ituren eta Legasako familiaren partetik. Muxu handi bat *pexioxa*.

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz

Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

HILBERRIAK

- **Axel Cogels**, Sarakoa, apirilaren 4an, 80 urte zituela.
- **Adel Saint Esteben**, Sarakoa, apirilaren 22an, 89 urte zituela.
- **Alfonso Mihura Arraztoa**, Arizkungoa, apirilaren 28an, 82 urte zituela.
- **Mattin Dainziart Irigoien**, Zugarramurdikoa, apirilaren 28an, 95 urte zituela.
- **Fulgenzio Oteiza Maisterrena**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 30ean, 91 urte zituela.
- **Pilar Martinez Jimenez**, Sunbillakoa, maiatzaren 2an, 70 urte zituela.
- **Mertxe Iñiguez Barrenetxea**, Berakoa, maiatzaren 5ean, 65 urte zituela.
- **Gabriel Urtizberea Etxabide**, Urdazubikoa, maiatzaren 10ean, 83 urte zituela.
- **Mª Dolores Baleztena Mitxeko**, Saldiaskoa, maiatzaren 10ean, 79 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Vicent Ameztoui eta Sibylle Rozada**, apirilaren 22an Saran.
- **Jonathan Demarcq eta Aline Dubacque**, apirilaren 30ean Saran.

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN

Diseinua prestatzetik inprimatzeraino, prozesu osoa

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tipi.eus
www.kulturkari.com

URTEURRENA

**Maria Cruz
BARAIBAR EZKURDIA**

1932/10/03-2021/05/06
I. URTEURRENA

*Galdu egin zintugun,
baina berriz gurekin sentitzen zaitugu
oroitzapen bakoitzean.*

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

Txuma EUGUI EUGUI

Elizondon, 2020ko maiatzaren 19an
II. URTEURRENA

*Bi urte gure ondotik joan zinela.
Bi urte zure goxotasuna
gure bihotzeko kabira pasa genuela.
Bi urte begi hetsiekin
ikusirik behar izaten zaitugula
eta zure ahotsa isiltasunean entzuten.
Bi urte eta elkarrekin jarraitzen dugu.
Aita, aitegi, Txuma... Maite zaitugu.*




URTEURRENA

**Maite
IPARRAGIRRE IPARRAGIRRE**

Ettxalarren, 2021eko maiatzaren 22an,
45 urte zituela
I. URTEURRENA

*Beti irribarra zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.*

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

**Euxebio
IGOA MITXELENA**

Lesakan, 2020ko maiatzaren 1ean
II. urteurrena

Bizitzan zehar gauza aunitz zuk
zenizkigun irakatsi
zuri hori guztia eskertez ezingo dugu
inoiz ere utzi;
zuk gure bideak argitzen
a ze garrantzi
denborak aintzinerat egin arren
matte zattugu atabki.

ZURE FAMILIA





OROIGARRIAK



KULTURKARI
Onenak gurekin | Publikatu

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoltzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



IZARRA
HERRIK, ZURE ONDOAN
JAKI AITZAKI

**Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak**



TANATORIOAK

• ELIZONDO

• ARANTZA

• BERA

• IGANTZI

• DONEZTEBE

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**
Onenak gurekin | Publikatu

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
 ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN 948 48 95 50**

info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
 Trasladoak Irufeta, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 h **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Milioina' ala 'milioi bana'?

Zenbaki banatzaileak ekarri ditugu aldi honetan Euskararen Txokora. Zenbatzaile kardinalei -na atzikia erantsiz lortzen dira banatzaile edo distributiboak (eta zenbana? galderari erantzuten diote): bana, bina, bosna (borzna), hamarna, hamabosna (hamaborzna), ehuna, ehun eta seina, berrehun eta hamaseina, mila bana, launa mila, bosna milioi... (*batna, *bostna, *bortzna, *milana, *lau milana, *bost milona...).

- Milioi bana (*miloina) egokitu zaie loterian.
- Bosna mila (*bost milana) euroko bermea ordainduta atera ziren kalera.

Iparraldeko tradizioan, zenbakia bokalez bukatzen denean -na gabe -ra erabiltzen da: bira (baina hiruna, launa), seira, zazpira, zortzira, bederatzira... Eta Euskaltzaindiak ez du erabilera hori gaitzesten.

Arestiko adibideetan ikus daitekeenez, mila eta milioi zenbatzaileek ezin dute itsatsirik eraman -na banatzailea, eta bana ezartzen zaie ondian: mila bana, bina mila...

Ez zaio hori gertatzen ehun zenbatzaileari: **ehuna** ('bakoitzari ehun') da erabiltzekoa, eta eredu berari jarraitzen diote ehun osagaia duten gainerako zenbatzaileek ere: berrehuna, bostehuna..., bostehuna mila...

Gainerakoan, banak singularreko komunztadura du:

- Liburu bana erosi dugu (*ditugu).

Hortik goitikoek pluralean egiten dute komunztadura:

- Launa kilo gatz eman dizkigute.
- Bosna ontza urre hartu zituzten.

Banatzaileek aurrekaria plurala behar dute:

- *Nik liburu bana erosi dut > Guk liburu bana erosi dugu.
- *Auto banatan etorri da > Auto banatan etorri dira.

Ez dira egokiak era honetako esaldiak ere, ez direlako banatzaileak:

- *Disko eta liburu bana erosi ditu Mikelek.
- *Disko eta liburu bana erosi du Mikelek
- > Disko bat eta liburu bat erosi ditu Mikelek.

Nola erran



istorio ≠ historia

Bakoitzak bere adiera du:

Istoria kontakizuna da, bereziki, kontakizun laburra.

- Hamaika istorio kontatzen zizkien.
- Gezurrezko istorioak.

Historia (zientzia) gizadiaren (edo gizarte edo giza talde baten) iraganaldiko gertaera gogoangarrien ezagutza edo kontakizuna; kondaira.

- Ingalaterraren historia.
- Historiako irakaslea.

Hona hemen adibide batzuk:

- *Hagitz historia xelebreak kontatzen ditu pailazoak
- > Hagitz istorio xelebreak kontatzen ditu pailazoak.

- *Euskal literaturaren istorioa XVI. mendean hasi zen > Euskal literaturaren historia XVI. mendean hasi zen.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

PLAZAN BAZAN



HIZKI-MARRAZKI

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakinen duzu.



ALFABETO A



SUDOKUA

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, arras ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



BIOTERRA
2022

Ekainak 3-4-5

Ficoba > Irun



Euskadiko EKO azoka



Produktu ekologikoak,
bioeraikuntza,
energia berriztagarriak
eta kontsumo arduratsua

IZENA EMAN ETA LORTU
ZURE DOAKO SARRERA



Ficobara zuzenean!



euskotren



**Bizikleten salmenta
eta konponketa.**

**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kantónberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com



SCOTT

PINARELLO

ROSSI

MERIDA

BERGAMONT

BH

COLNAGO

LOOK

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

~%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Keskuntako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

805 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Mikel Bengoetxea Iturriria | ELIZONDO

Buatxabal - Kamiseta bat
Sagrario Mindegia Etxeberria | ITUREN

Salting Iruñea - Bi sarrera
Julio Nieto Baranda | ARESO

Mendukilo - Bi sarrera
Orreaga Irigoien Pedroarena | GARRALDA

Irrisarri Land - Sarrera bat
Joseba Martinez Gerra | BERA

Arrate Estetika - Produktu sorta
M^a Angeles Rodriguez Lasarte | EZKURRA

Wow Park - Sarrera bat
Ana Esther Menta Soubelet | URDAZUBI

Txalaparta - Bi liburu
Leire Arcelus Ugalde | ETXALAR

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

LESACA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



Bi sarrera

WOW PARK

www.wowpark.fr



Sarrera bat

Wow park
Votne Parc Adventure



**MU
SI
KA**



Huntza
Skakeitan

MAUKA
MUSIKAREN

www.maukamusik.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ttarttalo.eus



www.izarpark.eus